

puntuak

Antzuolaren historiari argia emanez

Juanjo Brizuelari elkarriketa, 'branding'-az




FILMETAKO EFEKTU BEREZIAK ETA KARAKTERIZAZIOA HUHEZINEMA FILM LABURREN JAIALDIAN

Aretxabaleta zinemaz blai, gaur banatuko dituzte Huhezinema lehiaketako sariak / 5

Efektu berezietan aritzen den Bacon FX enpresa bilbotarreko kideak, zinemako pertsonaiak karakterizatzen, eguaztenean Aretxabaletan.

XABIER URZELAI



Seminarioko patiorako eta ingururako aurreikusten den aukera bat. BEB ARKITEKTOAK

Hasi dituzte aurretiko lanak seminarioko parkinga egiteko / 29



AUTOAK 2019 / 23

SINADURAK

ANAJE NARBAIZA / 6	MIGUEL LAZPIUR / 30
ITSASO ERRETOLAITZA / 11	AINHOA NEGEUETA / 35
LEIRE ELEJALDE / 19	AINTZANE OIARBIDE / 48

ALKIDEBA
 SOLUZIOAK ALOKATZEN DITUGU

MAKINERIA ALOKAIKURUA ERAIKUNTZARAKO ETA INDUSTRIARAKO

NILFISK-en banatzaile ofiziala

Maltzaga - Sorluze errepidea.
 Tel.: 943 75 15 54 • Sorluze (Gipuzkoa)

Goitondo industriagunea, 3, pabillola
 Tel.: 943 17 13 62 • Mallabia (Bizkaia)

administracion@alkideba.net
 Saskibaloi taldearen babeslea

OINTXE!

Indartsu abiatu da 21. Korrika

Atzo, arratsaldeko bostetan, abiatu zen Korrikaren 21. aldia, Garestik; edozelan ere, Debagoienera iristeko, apirilaren 13ra arte itxaron beharko da. Korrika egiteaz gainera, askotariko ekitaldiak ere antolatu dituzte bailaran



Korrikaren hasiera, Garesen, atzo, telebistarako jaso zuen taldea. AMAIA TXINTXURRETA

Amaitu Zabala DEBAGOIENA

Apirilaren 13an, zapatua, Udantatik sartuko da Korrika Debagoiengan; 12:15 bueltan Oñatin izango da -2.265 kilometro- eta alderik alde zeharkatuko du herria. Handik Bergararako bidea hartuko du, eta herrigunera 13:30ean iritsiko dela aurreikusten da -2.277 km-. Bergara utzi ostean, Sorluzerantz joko du, baina ordu gutxira berriro sartuko da Debagoiengan. Esan behar da Bergaran Erramu Zapatu eguna ospatzen dela api-

rilaren 13an, eta, hortaz, feria egunean murgilduta egongo direla han eguerdian, Korrika herrigunetik pasatzen denean.

Apirilaren 14an, domeka, goizaldean sartuko da Korrika berriz Debagoiengan. Otxandiotik etorriko da eta 02:00etan sartuko da Aramaiotik -2.416 km-; herrigunera 03:00etan iritsiko da. Handik Arrasaterako bidea hartuko du, eta 03:30ean muga zeharkatu -2.430 km- eta goizaldeko 04:00 bueltan iritsiko da erdigunera. Ordu erdi

geroago iritsiko da Aretxabaletera -2.438 km- eta 04:42an helduko da Eskoriatzara -2.440 km-. Azkenik, 05:30ean Leintz Gatzagan sartuko da -2.447 km- eta handik Gorbeialderako bidea hartuko du, eta ibilbidea Gasteizen amaitu. Bestalde, 21. edizioa ez da Antzuola eta Elgetatik pasatuko.

Josu Zubia Debagoieneko Korrikaren dinamizatzailea oso pozik agertu da Korrikaren batzordeetan egindako lanarekin: "Korrika igaroko den Debagoie-

neko herri guztietan eta baita Elgetan ere sortu dira Korrika batzordeak, eta herritarrak oso gogotsu eta inplikaturik dabilta lanean, bai korrika egiteko, baita Korrikaren inguruan antolatu diren ekitaldietan parte hartzeko ere. Esan behar da jende honek guztiak egiten duela korrika posible".

Zubiak gaineratu du ibarreko kilometro guztiak salduta daukela eta aurten aurreko urteetan baino eragile gehiagok erosi dituztela kilometroak.

'Bideoklika' lehiaketa

Debagoieneko AEK-k antolatutako Bideoklika lehiaketak badiu bi irabazleak. Orotara, hamabi bideo jaso zituzten antolatzailerak eta horien artean bi izan dira boto gehien eskuratu dituztenak: Arrasateko Aspaceren eta Oihan Loiti arrasatearrarena, hain zuzen. Arrasateko Aspacerekoek gizartearen ikusgarritasuna handitzea eta euskararen alde egitea izan zuten helburu lehiaketan parte hartuta.

Korrikaren inguruko ekitaldiak Debagoiengan

OÑATI

- **Apirilak 6-7** Zuberoako Korrikara irteera. Izena emateko Arranon edo Gaztetxean.
- **Apirilak 7** Antzerki laburrak: *Tabernaria*, *Komunak* eta *Biba Voi!* Gaztetxean, liburutegian eta Elkar Hezi ikastetxean 12:00etatik 14:00etara.
- **Apirilak 11** Laburbira, 20:00etan, kultura etxean.
- **Apirilak 12** Korrika Txikia, 15:30ean, erdigunean zehar. 20:00etan, Huntza eta Mc Onak taldeak plazan.
- **Apirilak 13** KORRIKA EGUNA 11:00etan, Korrika beroketak - Irazanen eskutik-; 12:15ean, KORRIKA NAGUSIA. Ondoren, Oñatz dantza taldea; 15:00etan, herri bazkaria gaztetxean; 18:00etan, VIII. Txinparta Bertsolari Txapelketako finala gaztelekuan.

BERGARA

- **Apirilak 11** 18:00etan, umeentzako jolasak eta otarreak egiteko tailerra Jardunen eta

Aspaceren eskutik; 19:00etan, pintxo-pote musikatua, Musika Eskolaren eta erraldoi taldearen laguntzarekin.

- **Apirilak 12** 11:00etan, Korrika Txikia kaleetan; 19:00etan, dantza erakustaldia Moises Aspiazu taldearen eskutik San Martin plazan.
- **Apirilak 13** KORRIKA EGUNA

OSINTXU

- **Apirilak 12** Korrika Txikia.
- **Apirilak 13** KORRIKA EGUNA: Korrikaren ondoren herri bazkaria, etxafuego jaurtiketa eta kanpai errepika.

ARAMAIO

- **Apirilak 5** *Dantza* pelikula, 22:00etan, kultura etxean; Telmo Esnal bertan izango da.
- **Apirilak 10** *Black is beltza*, 19:00etan, kultura etxean.
- **Apirilak 12** 15:00etan, Korrika Txikia.
- **Apirilak 13** 12:00etan, ginkana herrikoia eta 18:00etan, Korrika jaialdia.

- **Apirilak 14** KORRIKA IRITSIERA, 02:00etan.

ARRASATE

- **Apirilak 6** Murura mendi irteera, 09:30ean Bolintxoko biribilgunetik abiatuta. Besaide mendizale elkartearen eskutik.
- **Apirilak 7** - Adrenaline, Logela Multimedia eta The Rugged, 18:00etan, Amaia antzokian.
- **Apirilak 10** - 19:00etan, Laburbira Kulturaten. AEDk eta Udalak antolatuta.
- **Apirilak 12** - Korrika Txikia 10:30ean San Isidro Plazatik Seber Altube Plazara. *Erraiak* dokumentala 18:30ean, gaztetxean.
- **Apirilak 13** KORRIKA EGUNA 12:30ean, erraldoiak, Arrasateko konpartsaren eta gaiteroen eskutik. 17:00etan, Korrikaraokea Txatxilipurdiren eskutik. 19:00etan, kalejira Txikitxu Arrostitzen eta Lore

Gazteak-en eskutik eta 21:30ean, kantu afaria Txalaparta elkartearen. Txartelak: Kajoin, Monten eta Jai-zalen. Gauean, Never Surrender eta Batec gaztetxean.

ARETXABALETA

- **Apirilak 6** Murura mendi irteera- 09:00etan Elizan-.
- **Apirilak 10** Kantu pintxopotea 19:00etan.
- **Apirilak 12** 10:30ean, Korrika Txikia; 18:15ean, Dantza Plaza; eta 21:00etan, bertso afaria Uratz-alde elkartearen, Unai Iturriaga eta Oihana Iguaranekin. Txartelak: Taberna Berri, Urbaltz eta Loramendin.
- **Apirilak 13** Korrika festa Pagaldaixenian.
- **Apirilak 14** KORRIKA IRITSIERA 4:27an.

ESKORIATZA

- **Apirilak 6** Murura mendi irteera, 9:00etan Apozagan.

- **Apirilak 13** KORRIKA EGUNA: 17:30ean, Eskulan Eguna; 18:30ean, buruhandiak; 19:00etan, dantza herrikoiak; 20:00etan, kantu kalejira; 23:00etan, kontzertuak, 05:00etan, txokolate-jana.

LEINTZ GATZAGA

- **Apirilak 6** 21:00etan, *Dantza*, Telmo Esnalek aurkeztuta.

ELGETA

- **Apirilak 12** Korrika Txikia 15:00etan, herri korrika 18:30ean eta afaria Oskarbi Elkartearen. 21:30ean Onintza Enbeita eta Sustrai Colinarekin.
- **Apirilak 13** KORRIKA EGUNA Autobusa Bergara eta Osintxu arteko zatira.

ANTZUOLA

- Autobusak Aiherrera, apirilaren 7an 16:00etan eta 8an 10:00etan.
- **Apirilak 12** Eskolak Korrika Txikia egingo du 16:00etan Errekalde auzotik .

'Egin klika Goienan'

Aurten ere elkarlanean jardungo du Goienak beste hedabide batzuekin 21. Korrikari jarraipena egiteko. Atzo, esaterako, Korrikaren hasiera bat eginik eman zuten hainbat euskal hedabidek.

16:10ean hasi zen Korrika hasieraren zuzeneko emisioa Garestik, Korrika hasi baino 40 minutu lehenago, eta ETBrekin, Berria-rekin, Hamaikarekin, Infosarekin, Kanalduderekin eta Xaloarekin elkarlanean eman zuten emisioa. Aurkezleak Ileski Serrano eta Naroa Iturri izan ziren. Erreportariak, berriz, Amaia Txintxurreta (Goiena), Ion Orzaiz (Berria), Pantxika Maitia (Kanaldude) eta Julen Iraola (Infosare).

Horretaz gain, apirilaren 14an, Korrikaren amaiera ekitaldia zuzenean emitituko dute Goiena telebistan eta *Goiena.eus* atarian. Emankizun hori ere euskal hedabideekin elkarlanean emitituko dute.

Saio berezia

Bestalde, *Korrika Debagoienean* saio berezia egingo du. Korrikak apirilaren 13an-Oñati eta Bergara- eta 14an-Aramaiotik Gatzagara- zeharkatuko du bailara. Debagoieneko ibilbidearen irudiekin saio berezia ekoiztuko dute domekan bertan: Goiena telebistan 22:00etan emitituko dute eta sarean ere ikusgai izango da.

Goienako lantaldeak Korrikaren 21. edizioaren erabateko jarraipena egingo du; horretarako, *Goiena.eus* atarian Korrikaren gaineko kanal berezia sortu dute. Eta papereko edizioan ere lekua izango du Korrikak, Debagoieneko ibilbideko argazki eta guzti, apirilaren 17an.



Erreka kooperatibaren lehendakariak jaso du saria, Cristina Etxegoienek. TU LANKIDE

'Enpresa nazioartekotzeari' saria jaso du Errekak

Gipuzkoako Bazkondeak Gipuzkoako Enpresa Sarien banaketa ekitaldia egin du eta Antzuolako Erreka kooperatiba sarituetako bat izan da, munduan barrena negozio ildo bakoitzeko nazioartekotze modelo ezberdin bat izateagatik

Amaia Zabala ANTZUOLA

Gipuzkoako Bazkondeak Gipuzkoako Enpresa Sarien banaketa ekitaldia egin du, eta, hain zuzen ere, enpresak saritu ditu nazioartekotzeko eta prestakuntzako arloetan egingako lanagatik. 27. aldia izan da aurtengoa.

Sarituetako bat Antzuolako Erreka izan da; hain zuzen, *Enpresa nazioartekotzeari* saria jaso du, negozio ildo bakoitzeko nazioartekotze modelo ezberdin bat izateagatik munduan barrena. Hiru negozio unitate, hiru nazioartekotzeko modelo, eta salmenten % 50 baino gehiago kanpoko merkatuetan zabaldurik baititu Errekak.

Munduan hedatutako enpresa

Erreka 55 urte dituen Mondragon Taldeko industria kooperatiba bat da. Hainbat sektore eta merkatutan dago eta bere aktibitatea hiru negozio unitetetan banatzen da. Batetik, *Fastening solutions* dago: Errekaren jatorrizko aktibitatea da eta sektore eolikorako eta erai-kuntzarako exijentzia handiko forjazko torloju beroak egiten ditu. Bestetik, *Plastics*: automobilgintza sektorerako plastikozko injekziozko pieza teknikoak egiten ditu. Eta, azkenik, *Sarbide automatikoak*: oinezkoentzako ate automatikoak eta egoitzen sektoretako sarbide automatizatuak egiten eta jar-

tzen ditu. Erreka kooperatiba hiru kontinentetan banatutako laguntza zentroekin, bost delegazio komertzialekin eta lau instalazio produktiborekin dago munduan barrena hedatuta. Egun, Erreka 430 langilek osatzen dute: erdiek Antzuolako egoitza zentrolean eta Bergaran egiten dute lan, beste 35ek Espainiako Estatuan eta gainontzekoak, 150, atzerriko instalazioetan dabilta.

Beste saritu batzuk

Esergui-Aviak urteko *Gipuzkoa enpresa* saria jaso du eta Donostiako Elkar enpresak, berriz, *Zerbitzu enpresa* saria eraman du, "negozio modeloa egokitzeagatik".

Goiaz! 2019, Lanbide Heziketaren azoka

Debagoieneko Lanbide Heziketaren 11. Azoka apirilaren 8an eta 9an izango da, Kulturaten

Amaia Zabala ARRASATE

Hamaika urte dira Debagoieneko Mankomunitatea, eskualdeko Lanbide Heziketako ikastetxeekin batera eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, ekimen hori antolatzen hasi zela. Antolatzaileen esanetan, helburu nagusia hasieratik izan da Lanbide Heziketa ezagutzera ematea eta lan-merkatutako balizko aukera bezala aurkeztea; bereziki, gazteei, baina baita langileei, gurasoei eta, orokorrean, herritarrei ere.

Goiaz! ekimenaren antolatzaileek gaineratu dute jadanik milatik gora bisitari pasatu direla Kulturateko klaustroan jartzen diren standetatik: "Badirudi pixkanaka emaitzak lortzen ari garela; Lanbide Heziketa ikasi daitekeen eskualdeko zazpi ikastetxeetan 1.200 ikasle baino gehiago baitaude matrikulatuta, 24 ziklotan."

Arrasateko Kulturaten izango da aurtengo azoka eta antolatzaileek herritar guztiei egin diete gonbidapena. Informazio mahaia bisitatzeke ordutegia hauxe izango da: astelehenean, apirilaren 8an, 09:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara; eta asteartean, apirilaren 9an, 09:30etik 13:30era.

Beti nahi izan duzun irudia, kirurgia barik

Medizina estetikoak

Quirónsaludek soluzio integral eta pertsonalizatua eskaintzen dizu itxura gazteagoaz disfruta dezazun, kirurgia barik.

- Orbanak kentzeko Ellipse laserra
- Zimurren aurkakka
- Aurpegia gaztetu
- Biguntasunen aurkakka

Zerbitzuariak: Javier Alvarez dk. eta Pilar Del Prado dk., Medikuntza eta Kirurgian Zientzialariak. Asistentzia-arduradunak: Inune Cachorro doktorea, Medikoa eta Kirurgian Ientzialduna.

quirónsalud.es

Lehenengo kontuak

ORAIN DOAN

895 122718

Hospital Quirónsalud Vitoria
Esperanza kalea, 3 - 01002 Gasteiz
900 250 255

Hospital **quirónsalud**
Vitoria

2019-2020

lanerako gertu!

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK



Gaur Leire Erañarekin egon gara eta MGEP GMHZ informatika-ko ikasle bezala bizi izandako esperientzia kontatu digu.

MGEP-en Goi mailako Heziketa zikloko Informatika teknikari kompetentziak lortzen ari den Leire Eraña DUAL ikaslearen lekukotza

Kaixo, Leire. Zer ikasi duzu? Konta diezagukezu zergatik aukeratu zenuen Sareko Informatika Sistemen zikloa ikastea? Eta zergatik aukeratu duzun Mondragon Goi Eskola Politeknikoa?
Ziklo hau egin aurretik, Haur Hezkuntzako gradua ikasi nuen, umeak nire pasioetako bat direlako. Baina ikusita gizaratearen beharretako bat informatika zela eta kontuan izanik oso arlo zabala dela, Sareko Informatika Sistemen zikloa ikastea erabaki nuen. Zentroaren aukerari dagokionez, behin zer ikasi nahi nuen argi neukala, MGEP aukeratu nuen, oso erreferentzia onak izan ditudalako.

Sareko Informatika Sistemen zikloan, ETHAZI metodologiarekin lan egin duzue; hau da, erronkak taldean lan eginez, Informatika-mantenu teknikarietako funtzio profesionaletako kompetentziak lantzea. Zein motatako erronkak egin dituzue? Zein izan da zure esperientzia?

Bai, lehenengo zein bigarren mailan erronkak taldean burutu ditugu, ikasgai bakoitzean ikasitakoa konbinatuz, ikasitakoa kasu errealeara eramateko eta landutakoa hobeto barneratzeko. Lehenengo mailan, CAU (Erabiltzailearentzako Arreta Zentroa) bat egin behar izan genuen, planteatzen zizkiguten gertakari guztiak jaso eta ebatziz. Bigarren erronkan, asmatutako elkartearen sare sistema instalatzea eta konfiguratzea eskatu ziguten. Eta hirugarren erronkarako, asmatutako elkartearekin konektatu behar izan genuen, kontuan izanda eraikin bat Arrasaten zegoela eta bestea Cadizen, eta behar zituzten ballabide guztiak kudeatu behar izan genituen. Bigarren mailan, berriz, ikasgai guztiak nahastuz eta hiru hilabeteko bat egin beharrean, ikasgai bakoitzaren bloke bakoitzarekin erronka bat burutu genuen; hau da, ikasgai bakoitzean gai bat amaitzen dugun bakoitzean erronka bat egin dugu, zailtasun pibka bat gehituz. Beraz, bigarren mailan erronka gehiago egin ditugu. Honekin guztiarekin esan dezaket metodo hau oso emankorra dela, kasu errealei aurre egin behar diegulako; gauzak askoz ulergarriagoak egiten zaizkigu bere erabilgarritasuna ikusten dugulako.

Dual programan ere parte hartu duzu. Zein enpresatan zaude? Zein motatako zereginak dituzu?

Arizmendi Ikastolan nago, sistemen departamentuan; zeregin desberdin asko ditugu eta gehienak erabiltzaileekin lotuta egoten dira –irakasleak eta ikastolako ikasleak-. Normalean, ordenagailuak prestatu, ekipamenduak ituratu, gaurkotzeak egiten ditugu, dokumentazioa, ordenagailuak memoria gehiago jartzen diegu, datu baseak... egiten ditugu; beraz, lan nahiko osoa dela esan dezaket. Horretaz gain, web garapen baten lanean nabil, gune bakoitzeko IKT ballabideak eta bere ezaugarriak era errazean izan ditzagun teknikari guztiok.

Zer eskaini dizu Arizmendi Ikastolan lan egiteak, ikuspuntu pertsonaletik eta akademikotik?

Alde batetik, pertsonalki esan dezaket honek balio izan didala benetan informatika mundua gustatzen zaidala ziurtatzeko eta egunero gauza berriak ikasten direla konturatzeko, gehienbat informatika arloan, teknologiak egunetik egunera aurreratu doazelako; eta honek pertsona bezala haztera eramaten zaitu. Bestalde, heziketa-prozesuaren aldetik, oso atsegingarria izan da; askotan, nahiz eta klaseak oso praktikoak edo errealtateratu hurbilduak izaten diren, ez dakizu gero benetan zer topatuko duzun lanean zaudenean, baina dualari esker sentzazio hori esperientzia dezakegu eta egiten ari garena zerbaitetarako balio duela ikusten dugu.

Gomendatuko zenioke norbaiti duala egitea, hau da, aldi berean lana egin eta ikastea?

Duala oso gomendagarria da, egiten ari zarenean gustuko duzun edo ez konturatzeko era onena da; gainera, informatikaren –nire kasuan– munduan enpresek dituzten beharrez konturatzeko oso ballagarria da. Kontuan izan behar da enpresan ordu gehiago egotekoan, ikasteko eta klaseko lanak egiteko denbora asko gutbitzen dela; beraz, antolaketza ona izan behar da.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

Ate Irekien Jardunaldiak

Apirilak 10 (asteazkena) 18:30

Maiatzak 25 (larunbata) 11:00

Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu

943 71 21 91



LABORAL KUPERA

HETEL



Mondragon Unibertsitatea



Xabier Zubizarreta, Eli Galdos eta Victoriano Gallastegi, besteak beste, Epeleko errepidearen inaugurazioan, 1994an. 'A. PRESS'

25 urteren ostean, guztiz amaitzeke

Duela 25 urte hasi ziren diputazioak Beasain-Durango ardatza eraikitzen, eta, zatika-zatika lanean aritu ondoren, Deskargako zatia ireki zuten pasa den astean. Orain, Saratik (Arrasate) Elorriorako zatia soilik geratzen da proiektua amaitzeko

Amaia Zabala DEBAGOIENA

Epele-Sara errepidea izan zen Beasain-Durango ardatzaren lehen zatia eta jarraian etorri dira besteak. Orduan, Bergarako alkate Victoriano Gallastegik eta Arrasateko alkate Xabier Zubizarretak inauguratu zuten, ahaldun nagusi eta Oñatiko alkate ohi Eli Galdosekin batera. Orain, 25 urte geroago, Deskargako errepide zati berria zabaldu dute, eta bi alkate ohiek errepide horren garrantzia azpimarratu dute. Hauxe esan du Victoriano Gallastegik: "Orain dela urte asko ireki behar zena ireki da azkenean eta Euskadi epizentrot mailan ezartzea lortu dugu. Guk esandakoa bete dugu, agintaldi honetan amaituko genuela esan baikenuen. Zoriontzeko moduko gestioa egin da agintaldi honetan, eta, azkenean, agintaldia amaitzerako ireki da;

aurrerapauso handia da errepide hau bailarentzat".

Zubizarretak, berriz, azpimarratu du gainontzeko bailarekin lotzeko "garrantzi handiko zatia" dela; hori bai, gaineratu du "lehenago" amaitu behar zela obra eta, hain zuzen, atzerapenek "bailarari kalte handia" egin diotela.

Arrasate-Elorrio zatia

Beasain-Durango ardatza, oso osorik, errepide azkarra izan dadin, Arrasatetik –Epeletik– Elorriora doan zatia soilik geratzen da egiteke –eta Bergara-

ARRASATE ETA ELORRIO ARTEKO ZATIA ERAIKITZEKO PROIEKTURIK EZ DAGO, MOMENTUZ

ko ekialdeko saihebidetara bitan banatzea. Kanpantzarreko mendateko errepide zahararen gainean galdetuta, Zubizarretak honako hau erantzun du: "Euskal Herriaren ikuspegitik, Sara-Elorrio zatia egitea oso garrantzitsua da, hiriburu ekonomikoa, Bilbo, hiriburu historikoarekin lotuko bailuke. Baina gure administrazioek ez diote behar zitzaion garrantzirik eman eta bigarren mailako tratua eman diote lehen mailakoa eman beharrean. Izan ere, errepideak ere Madrilgo ikuspegi zentralistarekin eraikitzen dira hemen".

Gallastegiren esanetan ere komenigarria da Saratik Elorriorako zatia egitea, eta, momentuz, "proiektutik kanpo" geratu bada ere, mahai gainean jarraitzen duela etorkizun baterako.

Bizkaiko Foru Aldundiak, berriz, ez du Arrasate-Elorrio errepide zatia egitearen inguruko albisterik argitaratu azken urteetan, eta, proiektuaz galdetuta, ez dela legealdi honetako proiektua erantzun dute. Beraz, ikusiko da ea aurrerapausorik ematen duten.

Epele eta Sara arteko errepidea

Epeletik Sararako zatia berritzeaz galdetuta, berriz, berritzearen aldekoak dira bai Gallastegi eta bai Zubizarreta. Gallastegiren esanetan, errepide guztiak egoera onean egotea "beharrezkoa" da, batez ere, istripuak saihesteko, eta, ondorioz, komenigarria da Epeletik Sararako zati hori berritzea. Gaineratu du, ordea, obra horiek "lehenagotik arabera" egiten direla eta une honetan ez dagoela. Zubizarretak, berriz, salatu du errepide zati horri ez zaiola eman behar zuen kategoriarik.

Gatazkaz betetako proiektua

Gatazkaz betetako proiektua izan da Beasain eta Bergara arteko GI-632 errepidea, eta, hain zuzen, EAJren eta EH Bilduren artean enfrentamendu ugari sortu ditu.

1995ean hasi ziren Beasain-Ormaiztegi errepide zatiaren obrak, eta, geroztik, polemikaz, atzerapenez eta gailentuz beteta egon dira, Diputazioaren amesgaizto bihurtzeraino. Batez ere, 2011-2015 legegandian EH Bilduk gailentuz zirela eta enprekin izan zituen desadostasunengatik.

Horrez gain, 2013an Beasain-Bergara errepideko obratan lanean ari zen 33 urteko langile bat hil zen, gidatzen ari zen kamioiarekin hamar metroko mendoitz batetik erorita.

Erabiltzaileak, pozik

Deskargako errepide zati horretatik egunean 9.000 ibilgailu baino gehiago igaroko direla aurreikusuten da eta erabiltzaileetako askok egunero lanerako egiten duten ibilbidea da. Ramon Altuna, esaterako, Zumarragan bizi eta Arrasaten lan egiten duen aramaiorria da eta oso pozik dago obrarekin: "Orain, lanetik etxera 15-17 minutuan iristen naiz". Kamioilariak ere sekulako aldea igarri dutela jakinarazi dute, baina azpimarratu dute oraingo errepide

berriak ere aldapa duela eta "kontuz" joan behar dela.

Antzuolaren iritzia

Baina obra horiek gehien igarri dituztenak antzuolarrak izan dira, eta haien artean denetarikoa iritziak daude. Gehienak gustura daude herrian irabazi duten lasaitasunarekin; baserrietako batzuei, ordea, errepide berriko zaratak iristen zaizkie orain eta badira errepide berriko pasabide erraldoiek etxeko eguzkia kendu dietenik ere. Bestalde, herrian komertzioak dituztenek kontsumoa jaitsiko ote den kezka dute.

Era berean, obren eraginez kaltetutako auzoak konpontzea eskatzen dute herritarrek: Antzuolako ur zikinaren kolektorea egitea eta Bergarara arteko bigorri sarea amaitzea, esaterako; hala, *Herriak lotu bidegorria amaitu* lelopean bizikleta martxa egingo dute zapatuan.

Bidesaria izango du

Bide Azpiegiturako diputatu Aintzane Oiarbidek argi esan du Beasaindik Bergarara doan errepideak, bidesaria izango duela baina nola eta zeini aplikatu zehazteke dagoela.

Errepide zati obrak urteka

1994. Epele-Sara.

1998. Beasain-Ormaiztegi.

2002. Bergarako ekialdeko saihebidetara

2005. Ormaiztegi-Zumarraga.

2005. Bergara-Arrasate (AP-1).

2012. Zumarraga-Urretxu.

2015. Urretxu-Deskarga.

2016. Durango-Elorrio.

2019. Deskarga-Bergara.

Erabakitzeke: Sara-Elorrio.



ZABALIK

ANAJE NARBAIZA

Burua lehertu eta "bye-bye"

Ez jat iruditzen informatzeko mediorik egokixena, kontrastatu bareko millaka gezur esaten doskuelako. Baiña azken astian jasotako bideo batek burua nahastu dost, nahiz eta ezin izan doten ikusten amaitsu.

Bazirudien bideo joku batean giñela, zeiniek pizti gaizto gehixago lehertu. Baiña, zoritxarrez, pertsona errealean arteko gerria zan.

Hiroshima eta Nagasaki atzian geratu dira eta orain, armada amerikarrak drone txikiñak erabiltzen dittu etsaitzat dittuen pertsonen buruak leherrazteko. Dronearekin burua lehertu eta gorputza, *blaust*, lurrera jausten da patata-sakua balitz bezala.

Ez dago kontra egitterik, alperrik, armarik onena eskuan euki, ezin asmatu zein lañoren atzian gordetzen dan drone txikiña.

GEROZ ETA GEHIXAGO IKUSTEN DIHARDUGU BAZTER ASKOTAN GERTATZEN DIREN HILKETA MASIBUAK

Oin arte, oiñezko normalak, gerran gertatzen diren izugarrikerixekin, konsziente izan gara, bonbak, suntsiketa kimikuak, edozein motatako bortizkerixak, fusilamenduak...

Baiña geroz eta gehixago ikusten dihardugu munduko

bazter askotan gertatzen diren hilketa masibuak: Norvegia, Belgika, Finlandia... baiña guztien aurretik doiazanak Estatu Batuu dira; 2013tik hona 291 tiroketa egon dira bertako eskoletan. Eta guzti honetan benetan larritzekua da azkenaldixan tiroketaren egilliek bideuan jasotzen ditzuztela; ikaratu giñen Floridako Parkland eskolako tiroketan egilliak egindako grabaziñuakin, eta oraintxe bertan Zeelanda Berrian gertatutako tiroketaren egilliak grabatutako bideuakin.

Badirudi errealtatiaren eta bideo jokuen arteko birtualtasuna ez ditzugula desberdintzen eta mundu fiktizio baten bizi garela.

Horren aurrean zer egitterik dogun be ez dakigu. Badakigu teknologixak berak dakarren erosotasunari ezin dotzagula plantorik egin.

Baiña ikuspegi etikotik, teknologixak mundu erreala ikusten lagundu bihar dosku; bestela, itsutuko gara eta amaittuko dugu amerikarrak bezelaxe, ISISeko etsaien buruak lehertzen ditzuztenian "bye-bye" krudel batez agurtuz.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Datuak

JAKES GOIKOETXEA

HTTPS://LABUR.EUS/CBFNN
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Datuak hotzak direla esan ohi da.

Norberaren interesaren arabera interpretatzeko modukoak.

Errealtateak desitxuratzeko tresnak ere bai.

Datu batzuek, baina, errealtatearen gordina erakusten dute.

Erre egiten dute.

Indarkeria matxistaren hilotzen datuek erre egin beharko lukete.

Hilketa matxista guztiak mapa batean jarritz gero

–Berria-k bere webgunean egin duen moduan–, atentzioa ematen du Lapurdin elkarren gainean pilatutako puntu moreen orbanak.

22 hildako 2003 eta 2018 artean, Euskal Herriko hilketa matxisten %20, populazioaren %8 bizi den lur eremu txiki batean.

Hango zenbait eragile kexu dira, kontzientziario faltagatik, baliabide faltagatik, emakumeak tratatu behar dituztenetako batzuen sentiberatasun faltagatik, erakundeen arteko koordinazio faltagatik...

Eta egiteko asko dagoela erakusteko eta gabezia

horiek guztiak gorpuzteko, pertsona bat: Samuel Vuelta Simon, Baionako prokuradorea.

Ez beste batzuek seinlatu dutelako, bere burua agerian utzi duelako baizik:

patriarkatua ez onartuz, hilketa matxistei genero ikuspegia kenduz, "familia drama" kontzeptu lausoa eta zaharkitua erabiliz, hilketa matxistak errepide istripuekin parekatuz, *feminizidio* kontzeptuaren erabilera gutxietsiz, salaketa faltuak nabarmenduz...

Halakoak ez dira datuetan agertzen, baina errealtateak ulertzeko balio dute.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailtako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martín,
Amaia Igarua.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goyatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna Igone Osinaga.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Eskubideak defendatzeko matxinatu dira indigenak"

ASIER ELORZA UGARTE MUNDUKIDEKO KOOPERANTEA

Eneko Azkarate ARRASATE

Asier Elorza Ugarte familiarekin bizi da Kolonbiako Nariño departamenduan. Kolonbiako hego mendebaldean sortu den gatazka gertutik bizi du. Arrasatearrak 12 urteko ibilbidea egin du Brasilen, Mozambiken eta Kolonbian, Mundukiderekin batera kooperazio kooperatiboa praktikan jarritz.

Badira egun batzuk indigenak eta nekazariak kalera protestatzera irten direla. Zein da arrazoiak?

Haiek *minga* (auzolana) deitzen duten lanuztea hasi dute eta Cauca iparraldean Panamericana izeneko errepidea itxi dute.

Horrenbestez, Cauca azpian dauden bi departamendu Kolonbiako beste lekuekin isolatuta geratu dira, gure bizitoki den Nariño departamendua barne. Diotenez, Juan Manuel Santos presidente ohiarekin sinatutako 1.200 akordiotik bat bera ere ez da gauzatu.



Asier Elorza. MUNDUKIDE

Nolatan bizi zarete Kolonbian eta noiztik?

Semea, bikotekidea eta hirurok gaude irailla ezker Kolonbian Mundukiderekin lanean, Coemprender izeneko kooperatiba sendotzen

laguntzen. Pasto hiriburuko hondakinen birziklatzaileen kooperatiba da. Baztertua eta estigmatizatua dagoen kooperatiba. Kideen bizi-baldintzak hobetzen laguntzen ari gara, haiekin lankidetzan.

Eragiten dizue eguneroko lanean erreboltak?

Errepide nagusia itxita egon da gasolina eta gasa ez direlako iristen, ezta prozesatutako jakiak ere. Gasarena arazo handia da, hiri osoan ez delako saltzen, eta familiak egurrekin hasi dira sukaldeko lanak egiten. Garraio publikoari dagokionez, autobus gutxiago ari dira eta hegaldien prezioak hirukoiztu egin dira. Horrek eguneroko lanean eragiten digu.

Supermerkatuetan gauza batzuk ez dira heltzen eta probisioak amaituz doaz...

Bizi zareten auzoan, nabari duzue gatazka?

Gatazka ez da nabari, baina jendea larrituta dago, batez ere gasaren kontua dela eta. Duela egun bi, gaueko ordu bietatik zegoen ilaran zain jendea gas bonbonak erosteko, baina eguerdira arte ez ziren iritsi eta, gainera, ez zen denontzako egon.

Nola erantzuten du Gobernuak?

Kolonbiako presidentea, Ivan Duque, ez dago larrituta. Izan ere, gatazka-lekua Bogota hiriburutik urruti dago. Presidentea eta jende gehiena, komunikabide batzuen interesak direla medio, Venezuelaren egoeraz bakarrik daude jabetuta.

HAU BE BADOGU!

'#Itzulia' traola ziklisten sare sozialetan



Astlehenean hasiko da Euskal Herriko Itzulia, eta dagoeneko txirrindulariak probara begira daude:

@DanMartin86: "Zortedun sentitzen naiz gaur goizean ez naizelako eroriko handian izan Kataluniako Voltan... Datorren astean borrokara itzuliko naiz Itzulian" (itzulita).

@rorysutherland1: "Paris-Niza eta Kataluniako Volta eginda, orain Euskal Herriko itzulia gizon zahar honendako. Honen ostean oporrak beharko ditut!"

'Mozal legea' hizpide izan da sare sozialetan

Gaiarekin lorturiko hainbat traol erabilienetakoak izan dira astean zehar:

@antifaximoa: "#M8 50 emakume #Nafarroa-n identifikatuak. #M8 10 emakume #Gasteiz-en identifikatuak. #MozalLegea".

@txeramirez: "Mozal legea, PPK onartu, EAJk aplikatu eta PSOEk indargabetu ez duen beste eraso gordin bat. Gaur Gasteiz izan da lekuko Halabediko Mikel Saenz de Buruagaren kasuan. #KazetaritzaEzDaDelitua".

Garestik abiatu zen atzo 21. Korrika

Azken asteetan #Korrika eta #klikakorrika traolak, besteak beste, *trending topic* izan dira gurean, baina atzo, Espainia mailan ere traol erabilienetakoan zerrendan sartu ziren:

@Kikeamonarriz: "Badator #Korrika! Garestik abiatuta milaka euskaltzalek #klika egingo diogu #euskara-ri Euskal Herrian zehar! Korrika on @AEK_eus!".

@MeriLing1 (Ilaski Serrano): "Egun on! Euskal Herria korrika! #klikakorrika".

ITURRI ONETIK

Nogen taldea Seminarixoa maiztean

Nogen talde donostiarrek Bergarako Seminarixoa joko du maiatzaren 10ean, 21:00etan. Eme taldea izango du lagun kontzertu horretan. Nogenek iaz azaroan argitaratu zuen *Liv til døden* (*Hil arte bizi*) izeneko iraupen luzeko diskoa, eta, orduz geroztik, geratzeke dabil, aretoak han eta hemen betez: Donostia, Durango... Duela aste batzuk, Azpeitiko San Agustin aretoa lepo bete zuten eta, oraingoan, lehenengoz etorriko dira Debagoienara diskoa argitaratu osteko biran.

ALBISTE IZAN ZEN



2011-04-08

Sortu legezkoa izatea eskatzeko manifestazioa

Sortu alderdia legezkoa izatea eskatzeko manifestazio jendetsua egin zuten Arrasaten. *Eskubide zibil eta politikoen defentsan, orain legalizazioa* izenburuko pankartaren atzean, EA, Alternatiba, Aralar, Ezker Abertzaleak, Gorripideak eta ELA eta LAB sindikatuak kideak izan ziren manifestazioan. Gernikako Akordioan esandakoa berretsiz, "eskubide zibil eta politikoak" aldarrikatu zituzten.

Seminarioko aparkalekua

LARRAITZ URIBESALGO URIZAR
BERGARA

Eusko Jaurlaritzak jakinarazi du 2025erako hiriguneetara sartzen den trafikoa murrizteko neurriak hartuko dituela. Bergaran, aldiz, erdigunean aparkaleku berri bat eraikitzeke obrak hastea da gaur helburu nagusia. Seminarioko aparkalekua atzerapauso handi bat da mugikortasun jasangarriaren ikuspuntutik, erdigunera auto gehiago erakarriko dituelako, eremu horretan dauden trafiko arazoak areagotuz. Gainera, Udalak aurkeztutako Soinu Ingurua Hobetzeko Planaren aurka doa, zarata iturri berriak gehitzen direlako arazoak dituzten eremuetan. Kale trafiko gehien jasotzen dutenen artean dago, hain zuzen ere, Ibargarai kalea. Plan horretan bertan jasotako neurrien

arteana daude "disuasio-aparkalekuak sortzea" eta "garraio publikoa bultzatzea", erdigunerantz auto gehiago sartzea ekiditeko eta horri lotutako zaratak gutxitzeko.

Aparkalekua egiteko, Aranzadi Ikastolako patioa obra eremu bihurtuko da denbora luzez. Eskola ingurune batean tamaina honetako obra bat segurtasun aldetik erronka handia da eta neurri bereziak aurreikusi beharko lirateke. Zulaketa lanek sortuko dituzten zarata eta bibrazioek irakaskuntza jarduera normal bat ezinezko egingo dute. Nola bermatuko du Udalak halako obra handi bat irakaskuntza eraikin batetik hain metro gutxitara egin eta Ikastolak bere egunerokoarekin jarraitu ahal izatea gutxieneko baldintza duinetan? Obrak hastear daude eta galderak airean.

Erdigunean aparkaleku baten premia oso errotuta dago herriko biztanle eta

dendarien artean; aurkako iritzia azaltzea ez da politikoki zuzena. Hala ere, denok dakigu gertuen dagoen denda ez dela aparkaleku bat ondoan duena, eskuan klik batera dagoena baizik.

Hiritarra erdian kokatzen duen mugikortasun planifikazioa egitera behartuta daude gure agintariak. Bergaran aparkatzeko arazoak konpontzeko bide bakarra erdigunera sartzen diren ibilgailuak murriztea da, oinezkoei, bizikletei eta garraio publikoari lehentasuna emanez, Bergara guztiontzat herri bizigarriagoa izan dadin.

Berdintasuna ala desberdintasuna?

AGURNE JULDAIN

ARRASATE

Azken asteetan eguneroko entzuten egon gara aitatasun baimena luzatuko dela haur

jaioberrientzat amatasunarekin parekatzeko. Pozik hartu dugu berria, berdintasunera jo behar dugulako eta beharra dagoen hutsunea bete behar delako, noski!

Zer gertatzen da guraso bakarrek haurren kasuan? Haur hauek ez dituzte behar berdinak? Bi guraso dituzten haurrak oso txikiak dira jaio eta 16 astetara haurtzaindegira joateko, guraso bakarrek haurrak nagusiak dira 16 asterekin? Guraso bakarrek haurrak 16 asteko baimena dugu gure haurtxoarekin egoteko, ondoren haurtzaindegira, aitona-amonarekin, izeba-osabarekin, lagunekin,...

Ez da bakarrik adinaren faktorea.

Guraso bakarrek haurren kasu gehienetan ez dago aukerarik lan ordutegia murrizteko edo lan eszedentzia bat eskatzeko, soldata bakarrek bizi

behar dugu-eta, kasu gehienetan.

Egia da ama izateko proiektua hasten duzunean ez duzula proiektua hasten laguntzak izango dituzun edo ez pentsatuz; amets bat betetzeko proiektua da, gehienetan. Nire kasuan, behintzat, hori izan da arrazoi nagusia.

Baina pena ematen dit orain hauteskondeen atarian nola betetzen dituzten batzuek beraien ahoak lortutako ekimenaz. Noski berri ona dela gurasoentzat haurrarekin denbora gehiago egoteko aukera izatea, baina, agian, proiektua ez litzateke izan beharko gurasoak haurrekin egotea, baizik eta haurrak gurasoekin, guraso bi edo bakarra izanda. Haurrak dira behar dituztenak eta gizarteak da beharrik asetzeko lan egin behar duena.

Haur batek guraso bat edo bi izan, behar berdinak ditu, ezta?

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrek erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Amodio-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

Enpresa Batzordearen salaketa Udalaren aurka

200dik gora udal langile ordezkatzan dituen organoak salaketa jarri du Udalaren aurka, 2019ko lan deialdia eurekin "negoziatu gabe" onartzeagatik. Horrez gain, "motz" geratzen dela diote, 37 lanpostu finko daudelako aldi baterako langileek beteta

Xabi Gorostidi ARRASATE

Udaleko Enpresa Batzordeak prentsa agerraldia egin zuen martitzenean, berriki Udalaren aurka hartutako neurri legal baten berri emateko. Bertan izan ziren Enpresa Batzordeko buru Dorleta Kortazar, LABeko ordezkari Adela Bikandi eta Maite Barreña, ELAko David Fernandez de Gamarra eta Udaltzaingoan LABeko sekzio sindikaleko kide den Aitzol Osa. 200dik gora udal langile ordezkatzan dituen organoak salaketa jarri du Arrasateko Udalaren aurka. Donostian dagoen administrazioarekiko auzietako epaitegian jarri zuten, pasa den martxoaren



Enpresa Batzordeko kideak protesta egiten apirileko osoko bilkuran. XABI GOROSTIDI

29an, euren ustez otsaileko osoko bilkuran onartu zen 2019ko Udalaren lan deialdi publikoa "ez delako legezkoa". Diotenez, Langile Publikoen Oinarrizko Estatuaren arabera, deialdi publikoak onartu aurretik "Udala behartuta dago" sindikatuekin negoziatzera. Baina Enpresa Batzordeak dio 2019ko deialdia zuzenean Pertsonal Batzordera eraman dutela, eurekin "negoziatu gabe", eta hor legea urratu dutela. Urraketa horregatik, besteak beste, aurkeztu dute salaketa, eta bide judiziala argitu bitartean deialdi publikoa "behin-behinean bertan behera uzteko" eskatu diote Gobernuari. Epaia euren aldekoa bada, kontratatutako langileak kalteratu beharko dituzte, dagozkien kalte-ordainekin, eta hori saihesteko eskatzen dute argitu arte bertan behera uztea. Barakaldon, antzerako kasu batean -2018ko lan deialdi publikoarekin lotuta-, epaileak Enpresa Batzordeari arrazoiak eman berri diola adierazi zuten. "Gai hauek ez negoziatzea, arduragabekeria izateaz gain, eskubide sindikalen aurkako eraso larria da. Ikusita

gure eskaerak ez dituztela aintzat hartu, legezko neurriak hartzea erabaki dugu".

Esan beharra dago Udalak 2017an egin zuela azken aurreko lan deialdi publikoa; 2018an ez zen egin, eta 2019koa da azkena. Enpresa Batzordearekin lotuta, apirilean egingo dituzte hauteskunde sindikalak.

Interinitatea

Diote une honetan 37 lanpostu finko daudela Udalean behin-behineko langileek beteta. Euren ustez, Udalak aurkeztu duen lan deialdia "motz geratzen da", soilik zazpi plaza eskaintzen dituelako, guztiak udaltzain postuentzat. Aldi baterako langileak kontratatzerakoan, diote langileek maiztasun aldiz uzten dituztela postuak baldintza hobea goak dituzten beste lanpostu batzuegatik, eta egonkortasun falta horrek eragin zuzena duela "herritarrei eskaintzen dieten zerbitzuaren kalitatean".

Bestalde, kezka azaldu dute udal langile asko erretiratu egingo direlako bost urteren buruan, eta "jakintza trasbaseak" ondo egiteko plan bat eskatu dute.

GELMAko etxebizitzak (Arrasate)

2009 - 2019

461

etxebizitza eraikita

azkeneko 10ak salgai*

*3 logelako etxebizitzak

ESKURA EMATEA 2019ko UDAN

www.inmobibai.com

Bisitatu etxebizitza pilotua

Eta ezin badut nire etxea saldu?

EZ KEZKATU zurea saldu arte ez duzu eskrituratuko

%100eko arrakasta azkeneko 5 urteetan

Tel 943 25 38 21

E-mail info@inmobibai.com
Deba kalea 3 - 20500 Arrasate (Gipuzkoa)

BIBAI

2.629.349 euroko soberakina onartu dute

2018ko udal aurrekontutik bi milioi eta erdi pasatxoko soberakina geratu da, eta, Udal Gobernuaren aldeko botoekin, diru hori hainbat inbertsion bideratzea onartu dute. Oposizioak aurka botatu du, eta soberakina aztertzeko "24 ordu edukitzea" salatu dute

Xabi Gorostidi ARRASATE

Martitzeneko osoko bilkura aurretik, Udal Gobernuak 2018ko udal aurrekontuaren soberakina zein inbertsion bideratuko duen azaldu zuen.

Bertan parte hartu zuten Maria Ubarretxena alkateak, OZMA batzordeko buru Oscar Garciak eta Ogasun zinegotzi Ander Garayk. Gobernuko arduradunaren arabera, hauek izan dira bi milioi eta erdiko soberakina eragiten duten faktoreak: foru fondoak –esperotakoa baino 840.000 euro gehiago jaso dituzte–, EIOZ zergan –eraikuntzen, instalazioen eta obren zerga– 140.000 euro gehiago batzea eta lizitazio prezio azpitik egindako esleipenak.

Osoko bilkuran onarpena

Udal Gobernuaren aldeko botoak nahikoa ziren soberakina onartzeko, eta halaxe gertatu zen arratsaldeko osoko bilkuran. EAJk eta PSE-EEk alde botatu zuten eta EH Bilduk, Baleikek eta Irabazik, aldiz, aurka.

Botatu aurretik, ordea, alderdiek soberakin proposamenari buruzko iritziak eman zituzten. Hitzaz hartzen lehena EAJko Anuska Ezkurra izan zuen, eta, inbertsio garrantzitsuenak aipatzeaz gain, Udala "zero zor" egoeran dagoela aipatu zuen.



Garaia bidegurutzean biribilgunea bat egitea izango da inbertsioetako bat. x.g.

Oposizioak salatu zuen, lehenik eta behin, "24 orduko epea" izan zutela soberakin proposamena aztertzeko eta horri erkarpenak egiteko.

EH Bilduko Eneko Barberenak zalantzan jarri zuen soberakinaren faktoreei buruz Gobernuak emandako azalpena. "Zerga bilketari eta enpresen arteko lehiarengatik prezio jaitsierari egotzi diote soberakin hau, baina ez dituzte aipatu ere egin iazko aurrekontutik erabili gabe geratu diren partidak ere ba-daudela". Interbentzioan esan

zuenagatik, enplegu, turismo eta teknologia berrien sailetan 330.000 euro geratu dira erabili gabe.

Baleikereren kasuan, "adreilu eta zementu asko eta gizarte edo feminismo arloko gutxi" egotea salatu zuten.

PSE-EEko Oscar Garciak ez zuen ulertu oposizioak aurka botatzea, batez ere, fibrozementu arazoak konpontzeko 100.000 euroko partida zegoelako. "Duela gutxi gaiarekin oso arduratuta daudela esan zuten, eta orain aurka botatu dute".

Inbertsio nagusiak

Bi eratako inbertsioak egingo ditu Udal Gobernuak: 2019ko aurrekontuko partida batzuk handitu eta berriak sortu.

2019ko aurrekontutik handituko diren partidak

Araba etorbideko urbanizatzeari bideratuko diote inbertsio ekonomiko handiena; 1.000.000 euro. 2019ko aurrekontuan 200.000 euroko partida zegoen lanen exekuzioa hasteko, eta doikuntza horrekin lanen kostuaren %60 finantzatuta legokeela azaldu dute. Kulturoren exekuziorako partidari egingo dute bigarren inbertsio handiena. 447.000 euro gehitu dizkiote, eta, era horretan, lanen exekuzioaren %82 finantzatuta legoke.

Ahateen putzuko ur parkea egiteko 425.000 euro txertatuko dituzte, hala, %100ean finantzatuta utzita.

Erguingo lehen bi igogailuak egiteko 200.000 euro gehiago jarriko dituzte. Lehendik 100.000 euroko partida zegoen.

Beste urte anitzeko inbertsio batzuk Amaia antzokiko argiterian –55.000 euro– eta Juan Arzamendi Musika Etxeko ekipamenduan –30.000 euro– egingo dituzte.



Araba Etorbideko irudia. x.g.

Partida berriak

Kirol arloan 15.000 euro gehiago jarriko dituzte padel pistak txukuntzeko: pistetako belar artifiziala berritzeko eta kantxen albo baten euriaren aurkako itxitura jartzeko.

Gipuzkoa etorbideko espaloiak berritzeko, 40.000 euro gehiago jarriko dituzte; hala, Kabiako biribilguneetik MRWren egoitzaraino doan tartea berrituko dute.

Aramaiora doan errepedetik Garaia parkera sartzeko bidegurutzean biribilgunea jarriko dute. Hiru alderen artean ordainduko dute: Garaia parkeak ordainduko zati bat, Udalak 57.000 euro jarriko ditu eta beste zati bat Amenabarren kontu izango da –inguru horretan etxebizitza partzela berri bat egingo dutelako laster–.

Horrez gain, 100.000 euro bideratuko dituzte Garagartzako ur saneamenduan fibrozementuzko hodi bat ordezkatzeko, 50.000 euro Gernikako ibilbideko galtzada berritzeko eta 17.000 euro Makatzenako igogailu alboan horma irudi bat egiteko.



Ahateen putzua. JAGOBA DOMINGO

Kiroldegiak ordutegi bereziak izango ditu Aste Santuan

Oporrak direla eta, ohiko ordutegiak aldatuko ditu kiroldegiak. Hala, apirilaren 18tik 22ra arte, 09:00etatik 14:00ak arteko ordutegia izango du. Apirilaren 23tik 26ra, ordea, 09:00etatik 21:00etara egongo da zabalik.

Horrez gainera, kirol eremuak ohiko ordutegia baino ordu erdi lehenago itxiko dituztela jakinarazi dute.

Ibai-arte eta Ointxe! eskutik emanda, zapatuan

Ointxe! taldeak eta Ibai-arteak *IbaiOintxe!* jaia antolatu dute zapaturako, Herriko Plazan. Goizeko seietan txahala erretzen hasiko dira buruntzian. 11:00etan hasiko da *3x3 txiki*, eta 12:00etan tiro-teknika eta tiro-lehiaketa egingo dira. Arratsaldean, berriz, 18:30ean, *tiripintxo*a izango da eta 19:00etan, aldiz, The Song taldearen kontzertua.

CESPAko langileek mehatxuak jaso izana salatu du Gobernuak

Oscar Garcia zinegotziak osoko bilkuran esan zuen joan den zapatuan, Ferrerias kalean, garbitzaile batek mehatxuak jaso zituela. Adierazpen askeko guretatik kanpo zeuden kartel batzuk kentzen ari zela jaso omen zuen mehatxua, eta pertsona batek eskutik heldu ziola ere esan zuen. Udal Gobernuak gaitzespen-oharra kaleratu du asteon.

OHARRAK

Pentsiodunen protestak

Herriko Plazan elkartzeko dira, astelehenean, 12:00etan.

1969an jaiotako bazkaria, azaroaren 23an

Joan nahi dutenek ekainaren 30a baino lehen eman behar dute izena helbide honetan: 1969arrasate@gmail.com.

San Juan jaiak antolatzeko bilera

Hitzordua: apirilaren 9an, 18:00etan, Kulturategi Jokin Zaitegin.

Lekeitiora irteera apirilaren 24tik 26ra

LHko 3. eta 6. maila arteko haurrei zuzenduta dago. Izen emateak ludoteketan edo www. arrasate.eus webgunean.

Jaiak eztanda egiteko irrikan dago Altamira

Dena prest dute gaur eta bihar artean auzoan jaiak nagusitu dadin, eta, batez ere, haurrei begirako ekintzak antolatu dituzte. Iaz berrartu zituzten auzoko jaiak, eta aurten astebete aurreratu dituzte, Korrikarekin aldi berean ez egiteko

Xabi Gorostidi ARRASATE

Gaur, apirilak 5, hasiko dituzte Altamirako jaiak. 19:00etan taberna irekiko dute, xake eta yoga erakusketarekin batera.

Horren ostean, haurrentzako zinema proiektzioa egingo dute, auzoko lokalean. "Iaz ez genuen egin; beraz, hau lehen aldiz izango da", azaldu dute antolatzaileek. Auzoko lokalean izango da hori, 20:00etan, eta bertako proiektagailuari zukua aterako diote. Esan beharra dago haur bakoitzak etxetik eroan beharko duela afaria edo ogi-tartekoa.

Ekintza gehien, zapatuan

Ostirala beroketa lanak egiteko eguna izango da, zapatuko egitaraua benetan indartsu dator eta. 10:00etan suziriak jaurtiz hasiko dute eguna, eta 11:00etan patata-tortilla lehiaketari ekingo diote.

"Iaz, zazpi bikotek eman zuten izena eta lehia bizia izan zen.

Nibel handia. Behin tortillak eginda, tabernako barran jartzen ditugu parte hartzaileen produktuak, jendeak pintxo bezala dastatu ditzan".

Horren harira, taberna 11:30etik aurrera egongo da zabalik eta 13:00ak arte haurrentzako jolasak egongo dira.

13:00etan, Txikitxu Arrostitz taldeak dantzaldia egingo du, eta, ostean, Altamirako jaioberriei ongietorria egingo diote.

14:30ean, bazkaria egingo dute, baina aurtengoa Herri Gain elkartean izango da, iaz lokala txiki geratu zitzaizen eta.

17:00etan, suzirien hotsarekin hasiko da marrazki lehiaketa, eta 17:30ean hasiko da igelaren jokoa. 18:00etan, txokolate-jana egingo dute Altamirako plazan, nahikoa jan ez eta goseak daudenentzat. 18:30ean, buruhandien bisita izango dute; 20:00etan, AZ taldearen disko festa hasiko da; eta 22:00etako su artifizialekin amaituko dute festa eguna.



Jaien antolatzaileak, Altamiran bertan, jaietako kartelarekin. XABI GOROSTIDI

NIRE USTEZ



ITSASO ERRETOLATZA

Ospitalean, eguna argitzean

Bestelako pentsioa da ospitalea. Kaleko oinezkoengandik urrutik gelditzen den geltokia. Gosearen jokoetan 9. distritua lez, non ezer ez den berdina. Tokatzen denean, egunerokotasunetik at dagoen beste mundu batera bidaiatzen duzu. Bizitza antolaketa ezberdin batean. Eta bertan, bizitoki dute gaixorik daudenak, istripua izan dutenak, operazio zain daudenak, edo jaiotzaren eta heriotzaren artean daudenak. Eta, zorionez, hemen daude beti, inurri langileak legez, urdin, zuri eta larrosadun langileria prestua. Egunez eta gauez, korridoreetan, arratsaldeetako bisitariak desagertu ostean ere, isiltasun eskergarriekin batera, tirri-tarra jardunean. Badago territorio honetan funtzioen mailaketa, eta antolaketa bat ere. Medikuek hitza, profesionalek betebeharra, eta familiak maitasuna. Eta zaintzaile egokitzen zaizunean, logelatik ateratzean, kafe makinara, komunera bidean txabusinadunekin gurutzatzean, agurra egin egiten diozue elkarri, bere egoera konpartituko bazenu bezala. Lehenago ala geroago, denok pasatu behar baitugu ospitaletik: batzuetan, osatzeko; eta, ziurrenean, agurtzeko.

The Song
Kultura?... nik Arrasaten!

NIK ARRSTN!

Arrasateko kultura gida eta promozio gehiago
www.lbalarte.eus

apirilak 06
19:00 Arrasate Herriko Plaza
eta 11:00etatik aurrera

Ibai0intxe *jaiak*
Txahala burruntzian >

Lortu %50eko deskontu txartela Arrasateko dendetan

ARRASATEXO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDAGÓN

IBAI-ARTE

Esibanda, argitea, bizi onak
MUNDO INKLARIBETA GOBIERNO VASCO

Hiru partidu garrantzitsu, denboraldia borobiltzeko

Gazteen Ohorezko Mailako lider da momentu honetan Mondra, eta, hiru jardunaldiren faltan, aukera asko ditu Euskal Ligara igotzeko; bihar, zapatua, UDAREN aurkako derbia dute Mojategin, 15:30ean; hirugarren postuan daude orain aretxabaletarrak

Eneko Azurmendi ARRASATE

Denboraldi bikaina egiten ari da Cristian Levisen taldea. "Taldea hartu nuenean, esan zidaten talde ona eta indartsua edukiko nuela, sailkapenaren goiko postuetan egoteko modukoa, baina garai hauetan hain goian egotea ez genuen espero. Helburu garrantzitsu bat lortzeko borrokan gaude, eta ikusiko dugu zer egiteko gai garen gelditzen diren hiru partidu hauetan", azaldu du entrenatzaileak.

"Kalitate handiko" jokalariek izateaz gain, "konpromiso handia" dute, Levisen esanetan. "Denboraldia luzea izaten da eta beti egoten dira gorabeherak eta zailtasunak. Partidu guztiak izaten dira zailak, eta asko borrokatu behar izan dugu, baina hor gaude. Kalitatea edukitzea ez da nahikoa, eta jokalariek hauek duten konpromisoagatik ez baltz, ez ginatete gaude lekuan egongo", azpimarratu du.

Igoitz Mateok taldea utzi du

Talde laburra eduki du Mondrak denboraldi hasieratik. "Lesioekin, oro har, zortea izan dugu. Baina egia da Igoitz Mateo atezainak taldea utzi behar izan duela. Epe luzeko lesio bat izan du eta ezin izan da ondo errekuiperatu. Erabaki du onena taldea uztea



Gazteen Ohorezko Mailako taldea. Ezkerrean, goian, Cristian Levis. E.A.

dela, eta guk guztiz errespetatzen dugu hori. Berarekin gaude, ez duelako batere erraza izan".

Hori dela eta, urte guztia atezain bakarrarekin egiten ari dira. "Zorionez, ez du minik hartu eta ez dute kaleratu. Ea gelditzen diren hiru partiduetan ere hala den", dio Levisek.

Derbirako, motibatuta

Pasa den astean Urolak 4-1 irabazi zien arrasatearrei. "Porrot horrek min eman zigun, eta motibatuta gaude derbirako. Partidu bereziak izaten dira

aretxabaletarren aurkakoak, eta biharkoa ere hala izango da. Momentu ona da derbi bat jokatzeko, eta taldea konfiantzaz beterik dago". Ez da partidu erraza izango, halere. "Oso talde ona da, oso ondo jokatzen duena. Ligako talde indartsuenetako bat da, eta intentsitate handiarekin jokatu beharko dugu garaipena lortzeko".

Gero, Aloña Mendi eta Ilintxa geldituko zaizkie, sailkapeneko seigarrena eta laugarrena. "Amaiera zaila da, baina konfiantza osoa dut taldearengan".



ARRASATE ESKUBALOI

Oraindik ez dute irabazi

Pasa den asteburuan, Ford Mugarriko gazte mailako taldeak lehen postuan amaitu zuen Udaberriko Txapelketako liga erregularra. Pentsatzen zuten txapelkun zirela, baina astelehenean Federazioak jakinarazi zien kanporaketa bat jokatu beharko dutela Urnieta bigarren sailkatuaren aurka. Domekan jokatuko dute lehen partidua, Urnietan bertan, 10:00etan.

Azken ahalegina egingo du Kanpanzar ARTk domekan

Mailari eusteko dituen aukera urriak baliatzen saiatuko da Kanpanzar ART domekan Gazteizen, Escor Gaztediren aurkako partiduan -11:30ean-. Aurkari gogorra da, bigarren postuaren lehian dagoen taldea da eta. Hala ere, Igor Isasiren taldeak daukan guztia emango du sorpresa emateko. "Etxean gasteiztarrei irabazteko gauza izan ginen, eta ezustean harrapatu genituen, ez zuten halakorik espero". Gaztediri irabazita, seguruenik mailari eutsiko diote -beste emaitza batzuk ikusi behar dira- eta galduta, azken bigarren postuan sailkatzen badira, jaitziera fasea jokatzeko aukera izango dute maiatzean.

Bi irteera ditu egun hauetan Besaide Mendizale Elkarteak

Bihar, Murura egingo dute irteera. Korrikaren testuinguruan kokatzen den ibilaldia izango da -Korrika apirilaren 14an, azken egunean, pasako da Arrasateetik-. 09:00etan da irteera, Bolintxoko biribilgunetik.

Beste alde batetik, domekan, apirilak 7, Unzue-Unzue ibilaldi zirkularra egingo dute Nafarroan. 07:30ean aterako da autobusa Garibai etorbideko geltokitik eta 18:30ean izango da itzulera ordua, gutxi gorabehera. 15,65 kilometroko ibilbidea egingo dute eta igoko duten gailurrik altuena Alaitz izango da, 1.169 metrokoa. Bost ordu eta 40 minutu inguruko ibilaldia izango dela aurreikusten dute.

arbolapeta

arrasate

beinke

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Salca Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kortxi Lazkano - Pedagogoa
Ion Astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa	Arreta goztiarra
Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak	Logopedia
Laguntza eskolarak	Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 140/18

Laburbirak geldialdia egingo du eguaztenean

Film laburren emanaldia hilaren 10ean, eguaztena, izango da, 19:00etan, Kulturaten. Ane Zuazubiskar 'Erroak' lanaren zuzendariarekin solasaldia egiteko aukera egongo da. Laburbirak bederatzi film labur jasotzen ditu eta ordubeteko iraupena izango du

Arantzazu Ezkibel Galdos ARRASATE AED elkartearen eskutik egingo du geldialdia Laburbirak Arrasaten –Euskaltzaleen Topaguneak antolatzen duen euskal film laburren zirkuitua–. Berezia izango da, gainera; izan ere, Ane Zuazubiskar arrasatearraren *Erroak* filma eskainiko dute, besteak beste.

Bailaran grabatutako lana

Zuazubiskarrek idatzi du *Erroak* film laburreko gidoia, eta zuzendari lanak ere egin ditu; hala ere, taldean egindako lana dela nabarmendu du arrasatearrak. 2018ko apirilean grabatu zuten filma, Arrasaten eta Aretxabaletan: "30 bat urte dituen emakume baten bizipenak kontatzen ditu: inguruko hainbat lagunak haurrak izan dituzte eta berak ere erabaki bat hartu beharko du gai horren inguruan", dio Zuazubiskarrek.

Durango Azokan, *Irudi* gunean aurkeztu zuten filma,

eta, ondoren, Laburbira ekimenarekin hainbat herritan izan dira. Azaldu du harrera ona izaten ari dela, eta pozik dardela. "Film laburrean hainbat lagunek parte hartu dute eta euredako polita izango da filma ikusteko aukera izatea", gaineratu du.

Emakumeen presentzia

XVI. Laburbira izan da aurtengo. Bederatzi film labur jasotzen ditu; eta horietatik zazpi emakumeek zuzendutako lanak dira. Ordubete iraungo du film guztien emanaldiak, eta, hain zuzen ere, "proiektzioa kalitatezkoa eta dibertigarria" izango dela aurreratu dute.

Aurtengo Laburbirak 35 geldialdi egin ditu. Horietako batzuetan, gainera, egileekin solasaldiak egiteko aukera egon da. Hala, eguazteneko proiektioan, Ane Zuazubiskar izango da ikusleen galderak erantzuteko gogoz –19:00etan, Kulturaten–.

Pandero jaialdia, panderoak duen presentzia nabarmentzeko

Apirilaren 11n, eguena, egingo dute II. pandero jaialdia, Kulturaten; 18:00etan, solasaldia izango da


A.E. ARRASATE

Bigarren pandero jaialdia egingo dute eguenean Kulturaten. "Bigarren planoan egon izan da beti panderoa; bere garrantzia eman nahi diogu eta lehenengo planora ekarri", azaldu du Maixa Lizarribar trikiti irakasleak.

Horretarako, solasaldia antolatu dute "luxuzko solaskideekin": Ramon Zubizarreta *Landakanda*, Zumarragako trikiti eskolako Migel Urteaga Ori eta Manuel Arrizabalaga *Izer* izango dira solaskideak. Maider Osak gidatuko du saioa eta hiru

solaskideak gertutik ezagutu eta euren bizipenak ezagutzeko aukera egongo da. Solasaldia arratsaldeko seietan hasiko da; ondoren, jaialdia egingo dute. "Trikiti eskolako ikasleek emanaldia egingo dute, Kulturaten bertan", azaldu du Lizarribarrek. Ordu erdi inguru iraungo du jaialdiak.

Lizarribarrek nabarmendu du ateak zabalik egongo direla joan nahi duten guztiendako. "Trikiti eskolan badu presentzia panderoak; bada, gura dugu kalean ere izatea", dio.



Erroak film laburreko irudia. LABURBIRA

Apirilak
6
larunbata

BEZa*

**oparituko
dizugu
elikagaietan,
freskoetan, lurrinetan
eta drogerian**


Edariak eta haurtxoentzako produktuak barne.













Euskadi, Nafarroa, Kantabria, Errioxa eta Aragoiko EROSKI center eta EROSKI city Supermerkatuetan 30 €-tik gorako eta EROSKI Hipermerkatuetan 60 €-tik gorako erosketak egitean, sustapenera atxikitako salletan.

*Ez da erabilgarria duela unean EROSKI club kartela erabiltzea, sustapenera atxikitako salletan erabiltzea. EROSKI club kartela erabiltzeko salletan, EROSKI club kartela erabiltzeko salletan, EROSKI club kartela erabiltzeko salletan, EROSKI club kartela erabiltzeko salletan, EROSKI club kartela erabiltzeko salletan.



EROSKI

ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30



Korrika batzordeko hainbat kide, petoak jantzita, datozen egunetako ekintzetarako gertu. MIRARI ALTUBE

Lekukoaren zain, hasi dute atzera kontaketa

Herriko hamabost talde eta elkartetako ordezkariak hartuko dute Korrikaren lekukoa Aretxabaletan, hilaren 14an; aurretik, 12an, Pausokako, Kurtzebarri eskolako eta Arizmendiko neska-mutikoek beteko dituzte kaleak klika egiteko gertu

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Atzera kontaketa hasi da, udal-letxe zaharrea adierazitako lez, eta Aretxabaletako ibilbidearen lekuko banaketa ere egina dago; Mecako biribilgunetik Ederlan aurrealderainoko tartean hamabost lekuko aldaketa izango dira.

Apirilaren 14ra begira motorrak berotze aldera, egunetik egunera ekintza gehiago izango dira. Bihar, apirilak 6, esaterako, Murura joango dira familia giroan (09:00etan parrokiatik irtenda) Murruxiko eta Zaria mendizale elkarten eskutik, eta tontorrean, Eskoriatatik eta Arrasatetik igotakoekin egingo dute bat.

Korrika Txikia, gertu

Urtero lez, lekukoaren etorreraren bezperan, neska-mutikoak izango dira kale-bazterrak girotuko dituztenak. 10:30ean abiatuko da Korrika Txikia, Pausoka haur eskola albotik gaztetxoekin, eta lehen itzulia Haur Hezkuntzakoekin egingo

dute; hona hemen ibilbidea eta lekuko aldaketak: Pausoka (2 urtekoak), Andramari (5 urtekoak), Izotz taberna (4 urtekoak) eta Kioskoa (3 urtekoak). Herriko Plazan bukatuko dute horiek guztiek eta bigarren itzulia hasiko dute Lehen Hezkuntzakoekin: Herriko Plaza (5. eta 6. mailakoak), Pausoka (4. mailakoak), Arenaza altzari denda (3. mailakoak), Dagda (2. mailakoak), Durana kalea (1. mailakoak) eta Herriko Plazan bukaera. Mezua irakurriko dute orduan, Kurtzebarri institutuko balkoitik, eta kantuan eta dantzaren eginda bukatu ekitaldia. Irakasleek jakinarazi dute ume zein heldu "gogotsu" daudela une horretarako.

ITURRIAGAK ETA IGURANEK GIROTUTAKO BERTSO AFARIRAKO BADAUDE TXARTELAK

Bertso afarirako txartelak

Apirilaren 12an bertso afaria ere izango da, Lekaixoka bertso eskolak antolatuta. Unai Iturriaga eta Oihana Iguaran bertsolari ezagunak gerturatuko dira Uratz Alde elkartera (21:00). Txartelak oraindik salgai daude honako leku hauetan: Taberna Berri eta Urbaltz tabernetan eta Loramendi elkarteetan. Prezioa da 20 euro Loramendiko bazkideendako eta 22 euro gainerakoendako. Hori baino lehen, 18:15ean, dantzan egiteko aukera eskainiko dute; Leizarra musika eskolako Mikel Arcek gidatuta dantza plaza saioa izango da Herriko Plazan.

Lekukoari ongietorria Korrika Festak egingo dio hilaren 13an. Antolatutakoen artean daude umeendako jolasak, artisauen postuak, paella dastatzea eta taberna, eta kontzertuak iluntzean; Woods Strings, Jasan eta Txerrikumeak talde aretxabaletarrak elkartuko dira Paga-daixeneko oholtzan.

Ongizate zerbitzuen gaineko proposamena egin du EH Bilduk

Osasun etxea, eguneko zentroa eta etxebizitza komunitarioak herrian non kokatu proposatu dute

M.A. ARETXABALETAKO

Ongizate zerbitzuak "lehetasunen artean" dituztela adierazi dute EH Bilduko kideek, eta, ildo horretan, herrian dauden beharren gaineko proposamena aurkeztu.

Osasun etxea gaur egungo Basotxo erretiratuen elkarteko beheko solairuan jartzea proposatu du, "aurrealdera handituta 800 metro koadro izan arte"; horrek 500 metro koadro ditu orain. "Nahikoa izango litzateke solairu bakarrean zerbitzu guztiak eskaini ahal izateko", dio Ion Albizuk. Sotoan, oster,

biltegia, aldagelak eta gainerako eremuak egongo lirarteke.

Etxebizitza komunitarioak Basotxoren eraikin horretako lehenengo eta bigarren solairuetan kokatzea proposatu dute: "Pertsona nagusiendako eta bazterkeria arriskuan daudendako apartamentuak izango lirarteke". Eta eguneko zentroa gaur egun osasun etxea dagoen eraikineran eramatea aipatu dute.

Basotxo erretiratuen elkarteak, oster, beste kokaleku bat izango lukeela diote, eta horren berri aurrerago emango dutela.

GORA ETA BEHERA



M.A.

Pausokaren egoitzan pintaketak



Oraintsu margotu dute Pausoka haur eskolaren egoitza eta dagoeneko pintaketak egin dizkiote bi hormatan. Hango kideek ez diete horiei "zentsurik" topatu eta "oso penatuta" agertu dira.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Posta bidezko botoa emateko laguntza eskaintzen du EAJK

Apirilaren 28ko Espainiako Kongresurako hauteskundeetarako botoa aurrez eman gura dutenendako laguntza eskaintzen du EAJK astelehenaz geroztik. Horretarako, batzokira (Durana 23) jo behar da. Hona hemen ordutegia: astelehen, eguazten eta egubakoitzetan arratsalde (17:00-18:30) eta martitzen eta eguenean goizez (11:00-12:30).

OHARRAK

'Aida' opera Arkupen

Sidneyko badian grabatutako *Aida* opera emango dute bihar, zapatua, Arkupen (19:00); sarrera, 5 euro.

Musika emanaldiak

Leizarra musika eskolako zeharkako flauta ikasleek emanaldia eskainiko dute hilaren 9an, Arkupen, (18:00), eta dantzariak, hilaren 10ean (17:00).

"Lehiaketan egindako lanarekin gustura nago"

YERAY ALVAREZ SOLDATZAILEA

EuskoSkills lehiaketa irabazi zuen iaz soldadura arloan eta SpainSkills-erako sailkatu zen; Madrilen izan da lau egunez, eta dominarik jaso ez badu ere oso pozik itzuli da

Mirari Altube ARETXABAETA

Yeray Alvarez (Aretxabaleta, 1997) gazteak soldadura eta erai-kuntza metalikoen gaineko erdi eta goi mailako ikasketak egin zituen Aretxabaleta Lanbide Eskolan. Martxoaren 26tik 29ra bitartean Madrilen izan zen, SpainSkills lehiaketan.

Zer moduz joan zen txapelketa?

Podiumera igotzerik ez nuen izan, baina oso gustura nago egindako lanarekin. Hamalau erkidegotako lagunak elkartu ginen nor baino nor gehiago, eta hiru egunetan hiru lan egin behar izan genituen. Ez dakit zenbatgarren postuan geratu nintzen, ez zigutelako esan, baina, nire ustez, aurrealdean.

Eta zu euskal ordezkaria?

Hori da. Iaz jokatu zen EuskoSkills, Aretxabaletan, gainera, eta hura irabazi nuelako ni izan naiz Espainiako txapelketan euskal ordezkari bakarra soldadura arloan; izan ere, beste arlo askotako lehiaketak egon ziren.

Zein lan egin zenituen?

Lehenengo bi egunetan zortzi ordutan jardun genuen lanean. Planoak eta materiala eman eta piezak gertatu behar izan genituen lehenengo; gero, muntatu; eta bukatzeko, soldatu hiru makina ezberdinekin. Egunetik egunera probak zailtzen joan ziren. Adibidez, ur-depositu bat egin behar izan genuen, eta gero, urarekin presio probak egin zituzten; nireak akats txiki batzuk zituen eta uste dut hor galdu nuela podiuma. Gainerako lanekin pozik geratu nintzen.

Irakasleen laguntzarik izan zenuten?

Ez, ez, telefonoak ere kendu egin zizkiguten hasterakoan. Lehiakide bakoitza kabina batean egon ginen gure lanak egiten.

Halako lehiaketatan parte hartzeraren animatuko zenituzke orain ikasten dabilizanak?

Bai, bai. Esperientzia oso polita da, eta behin bakarrik har daiteke parte, adin muga dago eta.



Yeray Alvarez. MIRARI ALTUBE

Halako lanetan aurreiritziak egon izan dira eta soldatzaile lana gogorra dela esan ohi da...

Bai; beharbada, gogorra da, ondo egin behar dira lanak, baina, gustuko izanez gero, polita ere bai; eta nik oso gustuko dut.

Eskolan asko ikasi dut, baina praktikak egiterakoan askoz gehiago; enpresa batean egon nintzen, eta orduan bai ikasi nuela. Gaur egun, gainera, lan eskaintza handia dago soldadura eta galdaragintza arloetan.



Soldadurako modalitatean jardun zuen taldea SpainSkillsen. ARITZ UGARTE

Hamalau kide nor baino nor gehiago

"Dominarik ez jaso arren, esperientzia ahaztezina izan da. Jende asko ezagutu dut eta giro bikaina izan dugu", adierazi du Alvarezek. Era berean, eskerrak eman gura izan dizkio Oihan Martinez irakasleari: "Hari esker heldu naiz honaino".



Pagaldai ikasleekin. JAGOBA DOMINGO

Kurtzebarrikoak 'Galdegazte' saioan

Kurtzebarri institutuko ikasleek Olatz Pagaldai aktore eskoriatzarra elkarrizketatuko dute Goiena telebistako *Galdegazte* saioan, datorren egunean, apirilaren 11n (21:30).

Antzerkigintzan emandako lehen pausoak eta ondoren egindako ibilbidea, familiaren babesa, aktore jardunean bizitakoak eta beste hamaika kontu izango dituzte berbetarako gai.

Estebez, pistan nagusi

Ezin gusturago itzuli da Garazi Estebez txirindularia Valentzian jokaturako pistako txapelketatik. Izan ere, hiru probatan nagusitu da: madison, tempo eta kanporaketa. Pistako Espainiako Txapelketa apirilaren 19tik 21era bitartean jokatu du, Tafallan. Aurretik, bihar, errepidean izango da, Nojan (Kantabria) jokatu den lasterketan, hain zuzen ere.

Zabalik dago udaleku irekietarako izen emate epea, gaurtik

Gaur, egubakoitza, zabalduko dute udaleku irekietan izena emateko epea, eta azken eguna hilaren 17a izango da. Arkupe kultur etxean, Ibarra kiroldegian eta Gazteria Zerbitzuan (udal-etxean) jaso daitezke eskuorriak.

Uztailaren 1etik 19ra bitartean egingo diren udaleku irekiak berrikuntza handiarekin datoz: ordutegi aldaketa. Astelehen, martitzen, eguazten eta egubakoitzetan, goizez bakarrik elkartuko dira (09:00-13:00). Eta egunetan, ekintza bereziak egingo dituzte egun osoz (09:00-17:00). 4 urtekoei dagokienez, ez da egongo aldaketarik (10:00-12:30). Prezioa 75 euro da.

Ordutegi aldaketa gurasoek egindako eskaerari erantzunez etorri dela jakinarazi dute Gazteria Zerbitzuko kideek. Martxoan egin zuten kontsulta, eta bi aukera eskaini zituzten: goizez bakarrik egitea edo goizez eta arratsaldez. 90 erantzun jaso zituzten, eta "ordutegi trinkoaren aukera nagusitu" zen.



JOSU ESTEVEZ

Bulkada Eguna ospatuko dute bihar, ekintza askorekin

Gazte olinpiadek emango diote hasiera (12:00) ospakizun aldarrikatzaileari bihar, apirilak 6, eta, gazte bazkaria egingo dute (14:30) udal-etxe zaharrean. Arratsaldean, Ekiñe Casadoren kontzertua izango da, Mitarte plazan (18:00), baita Bulkada Eguneko ekitaldia ere (19:00). Elektrotxararak girotuko ditu kaleak, eta, bukatzeko, DJak izango dira.

Mobiliario ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel: 943 79 08 07
ARETXABAETA



Iñaki Agiriano, Eskoriatzako Bibliotekako arduraduna, Goienan izan da Literatura Zikloari buruz hitz egiten. IMANOL BELOKI

Literaturan murgiltzeko egitarau zabala apirilean

Literatura Zikloa antolatu dute Eskoriatzako Bibliotekak eta Udalak elkarlanean. Apirilaren 23an izango da Liburuaren Nazioarteko Eguna, eta, martitzenetik hasita, ordura arte, irakurzaletasuna hainbat modutan sustatzeko ekintzak izango dira

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzarren artean irakurzaletasuna bultzatzeko eta idazleek aurrerapen sozial eta kulturalari egindako ekarpena agerian jartzeko, Literatura Zikloa antolatu dute Eskoriatzako Bibliotekak eta Udalak elkarlanean. Datuei erreparatu, "Eskoriatza herri txikia izanda, irakurzaletasuna dagoela esan daiteke. Gauza xumeak bideratu eta eginez etekina ateratzen dugu", adierazi du Iñaki Agiriano, Eskoriatzako Bibliotekako arduradunak.

Liburu irakurrienak

Haurren eta gazteen artean mailegutza kopurua jaisten ari dela eta helduenak, berriz, igo egin direla adierazi du Iñaki Agiriano, Bibliotekako arduradunak. "Helduen literaturan gazteleeraz askoz gehiago dira. Gazteenetan, berriz, hiru liburu mailegatuenak euskaraz dira, eta hori positiboa da. Iaz, Eskoriatzako haurren artean, Bibliotekan

Literatura Zikloa

Apirilak 5, egubakoitza

- 19:00 *Literatura kedada*, Zaldibar antzokian.

Apirilak 11, eguena

- 18:00 Pello Añorgaren ipuin kontaketa, Bibliotekan.
- 19:00 Literatur tertulia, kultura etxean.

Apirilak 12, egubakoitza

- 18:30 *Kanta galduak* ipuin musikatua, Zaldibarren. Eta gero, *Ezagutuz ulertu eta ulertuz maitatu* lehiaketaren sari banaketa.

Apirilak 14, domeka

- 19:00 *La sociedad literaria y el pastel de piel de patata* filma.

mailegutzan gehien hartutako euskarazko liburua *Futboleroak*, *Norberaren atean sartutako zapi golen misterioa* izan da. Helduen artean, berriz, maileguan hartutako lehenengo berrogeita hamarren artean ez dago euskarazko liburu bakar bat ere. Eskoriatzan, irakurlea emakumea da, eta, batez ere, 50 urtetik gorakoa. Gazteleerazkoak irakurtzen dituzte gehiago, eta euskarazko irakurriena, berriz, Uxue Alberdiren *Jenis Joplin* liburua da".

Gustuak elkartrukutzen

Apirileko egitarauari hasiera emateko, gaur, esaterako, *Literatura kedada* izango da, Zaldibar antzokian, 19:00etan. Hainbat herritarrek eman dute izena, bertan, eta norbanako bakoitzak liburu baten pasarte bat irakurriko du. Hala, euren artean iritziak, gustuak... konpartitzeko aukera izango dute, eta izena eman ez duenak ere aukera izango du bertara joateko.



Eskoriatzako ikastetxeetako haurrak osoko bilkura aretoan. IMANOL BELOKI

Baserri kultura aztertuta, proposamenak egin dituzte

Udalbatzako kideek haurrek egindako proposamenak entzun zituzten asteleheneko ezohiko osoko bilkuran

I.B ESKORIATZA

Eskola Agenda 21 programaren baitan, Eskoriatzako ikastetxeetako ikasleek baserri kultura gaia landu dute 2018-2019 ikasturtearen baitan. Azaroan hasi eta otsailera arte gai horren gaineko hainbat aspektu aztertu dituzte, eta egindako lana eta azterketa horretako ondorioak erakusten izan ziren, astelehenan, udal ordezkarien aurrean, Eskoriatzako osoko bilkuren aretoan.

Herriko jaien jatorria aztertu dute, eta, horren bueltan, euren proposamenetako bat izan zen festen programazioan festaren jatorria jartzea eta, nondik datozen jakiteko, museoa erakusteko bat jartzea; Eskoriatzako hiru baserritan ere izan dira, eta landareez eta fruituez asko ikasi dute; herriko lan sektoreak aztertu dituzte; paisaia eta sasibisitak landu dituzte: baserri-

tarrek sortu eta mantentzen zituztenak, elizateak eta herrigunea lotzeko. Bide hauek publikoak ziren eta urtean behin sasibisita izaten zuten; hau da, Udaleko ordezkariak bidea bisitatzen zuten, eta, egoera kasikarkean egoten baziren, auzolana deitzen zuten haiek konpontzeko; baserriek izan dituzten aldaketak aztertu dituzte; eta horietan ere izan dira bi baserriarren bizimodua ezagutzen, besteak beste.

Haurren ekarpen interesgarriak

Aztertu dituztenak aipatzeaz batera, hainbat proposamen egin zituzten udal ordezkariak, eta, horren harira, Josu Ezkurdia alkateordeak adierazi zien kontuan hartuko dituztela euren egindako proposamen eta ekarpen guztiak, eta ari direla horietako hainbat puntu hobetzeko lanetan.



Garaipena lortuz gero, Maila Nazionalera

Eskoriatza areto futbol taldeari bi partidu geratzen zaizkio denboraldia amaitzeko, eta, Maila Nazionalera igotzea helburu hori lortzeko, hiru puntu batu behar ditu bi partidu horietan. Hala, zapatuan, etxean jokatu du, 16:00etan, Araiako Zirauntzaren aurka

Imanol Beloki ESKORIATZA

Denboraldi borobila egiten ari da Euskal Ligan lehiatzen ari den Eskoriatza areto futbol taldea. Bi jardunaldi geratzen dira liga amaitzeko, eta zapatuan jokatu duten partiduan hiru puntuak lortuz gero, Maila Nazionalerako txartela lortuko dute Iker Molinaren mutilek.

Momentu honetan, bigarrenak dira sailkapenean, 38 punturekin, eta puntu bakarrera dago Scorpio taldea, hirugarrenean. Laugarrena, berriz, Mahastiak Labastida da eta bosgarrena, Tolosala. "Lau taldeok ditugu aukerak Hirugarren Mailara pasatzeko. Izan ere, sailkapeneko lehenengo hirurak igotzen dira mailaz, eta lehenengo postuan dagoen Gernika dagoeneko ligako txapelduna da, eta lortu du igoera. Tolosalak, agian, du zailen, baina halakoetan edozer gerta litekeela denok dakigu. Guk etxean jokatzeko dugu, eta hori ere guretzako positiboa da.



Aratz Kortazar baloiarekin. IMANOL SORIANO

Gainera, aurkariak ez dute ezer jokoan, baina azken jardunaldietan emaitza onak izan dituzte, eta, beraz, partidu gogorra, gaiztoa eta zikina izango dela aurreikusten dugu. Irabazi beharra daukagu hala edo nola...".

adierazi du Iker Molina entrenatzaileak.

Ametsa errealitate bihurtu guran 2004-2005 denboraldian Maila Nazionalen izan zen Eskoriatza areto futbol taldea. Orain, hama lau urteren ondoren, berriz, lortu nahi dute igoera eskoriatzarrek. Hala, herritarrei Manuel Muñozera joateko gonbita egin nahi diete, harmailak bete-beteta izan daitezen eta, garaipena lortuz gero, ospakizun bikaina egiteko.

Emakumezkoak, fase berrian

Senior mailako emakumezkoak, berriz, lehenengo lau postuen artean sailkatuta, ligako txapeldun izateko fase berrian sartuta daude. Pasa den astean, Lauburu Ibarra taldearen aurka 3-1 irabazi zuten, eta, pauso handia eman ostean, hurrengo partidua gaur izango dute, Ordiziaren aurka, 22:00etan, Manuel Muñozen.



Dantza pelikulako momentu bat. TXINTXUA FILMS

'Dantza' filmaz berbetan izango da Telmo Esnal zinemagilea

Bihar, zapatua, 'Dantza' pelikularen proiektzioa izango da Leintz Gatzagako elizan, 19:30ean

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako Korrika batzordeak antolatuta, *Dantza* filmaren proiektzioa izango da zapatuan Gatzagako elizan. Emañaldia 19:30ean hasiko da, eta pelikularen nondik norakoak azaltzen Telmo Esnal zuzendaria izango da.

Telmo Esnalek zuzendu eta Txintxua Films-ek ekoiztu duen pelikula Euskal Herriko zinema aretoetan izandako arrakastaren ostean, *Dantza* filma ikusteko aukera izango da Gatzagan. Hitzik apenas duen filmarekin apustu estetiko handia egin dute,

eta, proposamen berriak landuz, euskal dantza erabili dute istorio bat kontatzeko. Lokalizazio eta arropa bereziak, kolore eta mugimendu ikusgarriak eta efektu bereziak batzen ditu film horrek.

Euskal dantzei garrantzia

Euskal dantzak plaza eta ohol-tzetatik zinemara eraman dituzte, euskal dantzari garrantzia emanda. Dantzekin ahalik eta fidelen jokatu eta jatorriak errespetatuz, tradizionalaren eta garaikidearen arteko nahasketak bat da.



HUZEI

Altsasuko kasua hizpide

Eguaztenez, Altsasuko Gurasoak izan ziren, Eskoriatzako *Ikasle euskaldunen kanpaldia* egitasmoaren barruan, euren seme-alaben kasua azaltzen. Igone Goikoetxea eta Antxon Ramirez de Alda izan ziren hizlariak, eta, hain zuzen, Eskoriatzako unibertsitateko aretoa bete egin zuten bertaratu ziren ikasleek.

Screamers & Sinners taldea izango da gaur Inkernu tabernan

Gaur, egubakoitza, 22:30ean izango da Screamers & Sinners taldea Inkernu tabernan kontzertua eskaintzen. Psychobilly eta rock-and-roll musikaz gozatu nahi duenak aukera aparta izango du bertan emanaldi dibertigarriaz disfrutatzeko.

Hypnosia izeneko disko berriaren aurkezpena maiatzaren 11n egingo dute Arrasateko gaztetxean, *Rumble in Mondra* jaialdiaren barruan. Hala ere, gaur, disko horren lagin bat aurkeztuko dute Eskoriatzan. Lan berriko kantuez gain, zaharrak ere joko dituzte; *The revenge of El Sacamantecas* bigarren laneko eta *Demon Tales* lehenengo diskoko kantuak.

Liburuaren Eguna ospatuko dute gaur liburutegian

Apirilaren 2an, martitzenean, Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna eta apirilaren 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna izanda, gaur ospatuko dute Liburuaren Eguna Gatzagan. Horretarako, Eñaut Zubizarreta aretxabaletarra izango dute gonbidatu liburutegian.

Arratsaldeko bostetan, kontzertu didaktikoa eskainiko du, adin guztietako pertsonen zuzenduta. Amaitzean, atsedendaldi bat egin, eta 18:30ean, Trigger-ek kontzertua eskainiko du. Biolontxelo jatzeko modu berriez gozatu ahal izango dute entzuleek, besteak beste, *looperra* erabiliz sortutako abestiak eskainiko ditu eta.

Auzolana bukatu barik, lehenbailehen egiteko asmoz

Pasa den zapatuan, Leintz Gatzagako hainbat herritarrek auzolana egin zuten Gaztainuzketako mendi-etxeetan. "Sastrakak garbitzen ibili ginen hamasei lagun inguru. Jendearen erantzuna zoragarria izan zen, baina, lan handia egin bagenuen ere, oraindik ez dugu amaitu", adierazi zuen Juanito Bengoa Gatzagako alkateak.

09:00etan hasi eta 14:00ak arte auzolanean ibili zen kuadrilla polita Gaztainuzketako mendi-etxeetan. Helburua inguruak txukuntzea izan zen, baina egin beharreko lan guztiak ez dituzte bukatu. Hurrengo hitzordua zehaztu barik, berriro ere batu ko direla adierazi dute.



2015eko Korrika Aramaioko lurretan. GOIENA

"Lekukoa eraman nahi duen jende asko dago"

21. Korrika, bai, pasako da Aramaiotik, eta lbarratik ez ezik, baita Uribarritik ere –eta Oletatik–. "Bizitzan gutxitan gertatuko den zerbait da", dio Aizpea Ajuriagerrak; berezia izango da auzokoentzat. Udalerriari dagokionez, ekintza ugari antolatu dituzte

Julen Iriondo ARAMAIO

Hilaren 14an, zapatutik domekarako gauean, goizaldera, pasako da Korrika Aramaiotik. Oletatik iritsiko da Kruzetara, eta handik Ibarra aldera; bide nagusitik barik, ordea, Uribarrin barrena iritsiko da herrigunera –Gureia auzunetik behera–. "Auzotik pasatzea aurten nobedadea da, eta oso pozik hartu du jendeak, polita izango da Korrikak gure auzo osoa zeharkatzea", dio Aizpea Ajuriagerrak. Kilometroa erosi dute auzotarrek, eta astean ziren erabakitzeak norena izango den lekukoa eramateko ohorea: "Jende asko dago eraman nahi duena".

Egokitu zaien orduak, beraz, ez die atzera eragin: "Egun berezia da; bizitzan gutxitan gertatuko da gure auzotik pasatzea, eta jendea prest dago, zapatu gaua izan arren eta 02:30ak izan arren, Korrikari itxoiteko".

Erroka ez da, dena den, uribarritarrena bakarrik, aramaioar guztiena baizik. Jende askoren-

tzat errazena diren orduak ez, eta kilometro asko, gainera, betetzeko; izan ere, aurtengo Korrikak hamalau kilometro izango ditu herriko bideetan zehar. Hainbat aste daramatza lanean Korrika batzordeak, eta lortu dute hamalau kilometro horietatik gehien-gehienak osatzea: hainbat izan dira osoa erosi dutenak –eskola eta guraso elkarteak; Txirritola; Udala...–, eta beste askok ere egin dute diru ekarpena, norbanako eta eragile baten baino gehiagoren artean osatuz beste zenbait kilometro: "Oso ondo joan da", dio Korrika batzordeko kide ere baden Aizpea Ajuriagerrak.

Eta aurreko lanak eginda, motorrak berotzen joateko garaia

**URIBARRIKO
AUZOTARRAK POZIK,
AURTENGO KORRIKA
ETXE AURRETIK
IGAROKO ZAIELA ETA**

iritsi da; hainbat ekintza antolatu dituzte, asteburu honetan bertan hasita izango direnak: gaur, barikua, *Dantza* pelikula emango dute kultura etxean, 22:00etan –Telmo Esnal zuzendaria bertan egongo da–; domekan, berriz, Fermin Muguruza-ren *Black is beltza* emango dute leku berean, 19:00etan.

Hurrengo asteburura pasata, barikuan Korrika Txikia egingo dute 15:00etan, eta txokolatada ondoren. Zapaturako iragarri dituzte ginkana herrikoia –11:00etan– eta Korrika jaialdia –18:00etan–: "Ginkanan askotariko adinetako lau eta sei pertsona arteko taldeak izango dira –ume zein nagusientzako da–, eta euskararekin lotutako hainbat jolas egin beharko dituzte; inor talderik gabe badago, ager dadila plazan eta sartuko da bateren baten"; arratsaldeko jaialdian, berriz, herriko taldeek parte hartuko dute, eta lagun arteko pilota txapelketako finalak ere izango dira, gauean.

Lan txukuna egin dute aramaioarrek etxeko proban

Mendiko bizikletako Euskadiko Openeko bigarren lasterketan podiumera igo zen Ander Bengoa

J.I. ARAMAIO

Elite eta 23 urtez azpikoen lasterketan parte hartu zuen Bengoak, eta laugarren amaitu zuen. Cesar Manso irabazle eta Alexander Ordeñana bigarren izan zuten lasterketan, 23 urtez azpiko Aitor Izcue izan zen hirugarren, eta, ondorioz, elite mailako artean aramaioarra izan zen hirugarrena.

"Ibilbidea oso lehor zegoen, Ikusten nituen lehenengoak, baina hiru bider katea atera zait, eta ezin izan ditut harpatu. Pena, baina, hala ere, pozik", zioen amaieran Bengoak. Lasterketa berean, bosgarren sartu zen helmugan Iker Eskibel –eskoriatarra, baina Aramaio-ekin lotura baduena–.

Iker Beitia, hamabosgarren

Master 30 kategorian, bestetik, Iker Beitia hartu zuen parte,



Ander Bengoa. IMANOL SORIANO

eta hamabosgarren helmugara zuen. Azkenik, gazte mailan Julen Arriolabengoak jardun zuen –Aramaioekin lotura estua duena, hau ere–. Bosgarren lekuan amaitu zuen Barajuengo eta Azkoagako parajeetan jokatutako lasterketa.

Xabi Errasti, txapeldun

Aurreko asteburuan jokatu ziren Gasteizko Ogeta pilotalekuan 2018-2019ko Eskolarteko Euskal Pilota Txapelketaren finalak, eta Xabi Errasti aramaioarrek txapela jantzi zuen bertan.

Errastik gaztetxoan mailako finala jokatu zuen Gaizka Donaireren kontra, eta markagailu estu-estuarrekin lortu zuen garaipena, 16-15.



ARAMAIO PELOTA ELKARTEA

Zabalik da ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea

2019ko trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren ordainagiriak ekainaren 1era bitartean ordaindu ahal izango dira borondatezko aldian. Epea igaro ondoren, ordaindu gabeko kuotak %5eko gainkarguarekin kobratuko dituzte. Ordainketa helbideratuta dutenei, berriz, maiatzaren 6an kobratuko diete zergaren zenbatekoa.

OHARRAK

Argazki emanaldia

Gaur, barikua, 18:30ean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, Inauterietako eta Martxoaren 8ko argazkiak ikusteko aukera izango da, Alex Mendikutereren eskutik.

Areto futbolak

Aramaio Tropikala taldeak sasoiko etxeko azken partidua jokatuko du domekan, 18:30ean, kiroldegian.

"Ingurukook ere poztu gara Viñasprek irabazita"

Bigarren egin baino, txapela berak janztea nahiago zukeen, baina Manex Agirrek zintzo adierazi zion poza txapeldunari, eta umorez, azken agurrean: "Jode' Viñaspre bazen ordua...". Izan ere, finaleko beteranoen artean hari tokatzen zitzaion oraingoan

Julen Iriondo ARAMAIO

Finalaren atarian batek baino gehiagok esan arren aukerak denek zituztela, Arabako txapela beteranoen kontua izan zen, azkenean. Eta 700dik gora lagunek Printzipal hartan, berriak eta lehen ere egondakoak zeintzuk ziren ez zekien inor egotekotan, bertsolariak oholtzan agertu orduko, detailea: Aroa Arrizubieta eta Peru Abarrategi zuzenean jesartzera, eta Manex Agirrek altxatzeko, agurrak kantatu arte ez zen-eta tokatzen –inportantzia gabeko bitxikeria, gazteenak protagonista, plazaren ederrak despistatuta, agian?–.

Haiek ziren berriak –saio polita egin zuten, bide batez–, gainerakoek makinatxo bat final bizkar gainean. "Uste dut buruz burukoaren aurretik bai Viñaspre, bai Manex, bai Oihane eta bai neu geundela hor", zioen Xabi Igoak saioa amaitu berritan, oraindik puntuazioak zehatz ezagutu barik. Oihane [Perea] gertuago zebilkeen pota bategatik izan ez balitz, baina, bestela, arrazoirik ez zuen falta Igoak: 416,5 puntu Viñasprek galbahe aurretik; 411, Manex Agirrek; eta 409,5 Igoak. Buruz burukotik puntu eta erdira baino ez Igoa; puntu eta erdi, makinatxo bat bertsoan, bost epailerekin, ezer ez; alde txikia, erabateko diferentzia, aldi berean: egon ala ez egon. Viñasprei txapelarekin bezala: "Horrelakoetan esaten da ibilbide bati txapela ere badela; kontua da, baina, txapela irabazi egin behar dela". Eta Viñasprek, orain arte, ibilbide oparoa bai –azken bi finaletan bigarren–, baina txapelik ez. Orain arte. "Ingurukook ere asko poztu gara bere txapelagatik", zioen Agirrek.

Seiko finalaren lehen zatia beteta, ofiziotan jardunda eta puntuak erantzunda, alegia, Manex Agirre zen sailkapen buru. Saio osteko hausnarkete-



Manex Agirre, kantuan. ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

BAKARKAKO LANERA ARTE AURRETIK ZEN AGIRRE, BAINA FINAL AMAIERA HOBEA EGIN ZUEN VIÑASPREK

tan, ez zegoen pozik finalari emandako hasierarekin; gehiago, hamarrek txikiarekin; eta Peru Abarrategirekin seiko motzean egindakoarekin gehien –hamarrek txikian puntu gehiago jaso zituen arren–. Urpekaritza ikastaroa egiten ari ziren bi lagun larrutik kantatzea egokitu zitzaizen, ordura arte igerilekuan ibilitakoak, lehen aldiz itsasora zihoazela-eta: "Peru, jardun nahi nuke fin / baina urduri nago, jakin / ta neopreoa arazo bat da kakalarriakin", Agirrek lehenengo amaitzeko.

Lehen zati horrekin, "oro har", pozik; bakarka arantza, berriz ere. Eta hor kendu zion Viñasprek txapelerako erabakigarri izango zen lehen puntu sorta handia, 11,5. Xabi Igoak ere bai 4,5, baina ez buruz burukorako bera sailkatzeko adina. *Txikitari horrenbeste aldiz zure aitak ira-*

kurri zizun ipuina orain berari kontatzen ari zatzaizkio izan zen Igoari egokitu zitzaion gaia; Txanogorritxuren kontakizunarekin bertsoa hasi eta: "Nahiz ta orduan egin zituen hau kontatzen mila saio / alzheimeraren ondorioz, gaur, bukaera ahaztu zaio"; etxean "halako kasu bat" bizi izan dutela eta, oso beretik abestu zuela aitortu zuen Igoak. Egindako finalarekin pozik geratu zen, "txapelik gabe", baina "zorra kitatuta", azken agurrean kantatu zuenez.

Azken agurra aurretik lan gehiago egin behar izan zutenak, beraz, Agirre eta Viñaspre izan ziren. Eta Viñasprek handitu egin zuen Agirrekiko aldea azken bi ariketetan: 8 puntu binakakoan; eta bakarka, kartzelakoan, borobildu zuen finala. *Zure familiako ohiturarekin apurtzea erabaki duzu* gaiari, alarde mistoaren aldarriarekin erantzunez: "Ohitura batzuk geratu, batzuk behar dira joan". Eta joan, joan zen txapela bere burura –Lierni Altunak jarrita–, eta poztu zituen denak, "familia eder bat" moduan, Peru Abarrategik azken agurrean kuadrillari bota gisara.



Taldeko kideak. ERTZAK

Ertzak taldeak kontzertua egingo du etzi Eki tabernan

13:30ean hasiko da Ertzak taldearen emanaldia, domekan. Udazkenean aurkeztu zuten euren lehen diskoa, *Gaur*, sei abestirekin. "Era guztietako abestiak daude: lasaiak, folk ukitua duena, runba bat, trikitia, arin-arina... zaila da etiketa bat jartzea", azaldu zuen taldeko kide Aritz Alustizak diskoaren aurkezpenean. Halako doinuak izango dira, beraz, entzungai.

Dena gertu lehen aldiz ospatuko den Gazte Egunerako

Gazte Asanbladak antolatuta, Gazte Eguna egingo dute bihar, zapatua, herrian. 13:00etan hasiko da egitaraua, poteo musikatuarekin. 14:30ean bazkaria egingo dute, plazan, eta bazkalostean bertso pikea, Peru Abarrategi, Aitor Ugarte, Aitor Tatiegi eta Txaber Altuberekin. 22:30ean, kontzertuak: Wood Strings eta Unidad Alavesa.

Hilaren 15ean batuko da berriro irakurle klub feminista

Feminismoa eta literatura uztartzen dituen kluba apirilaren 15ean elkartuko da berriro kultura etxean, 18:00etan. Saioan parte hartu nahi dutenek Gloria Fuertesen poemak irakurri beharko dituzte; Udalaren webgunean ere jarri dute horretarako lotura. Antolatzaileek parte hartzeri dei egiten diete gaien interesa duten herritarrei.



NIRE USTEZ

LEIRE ELEJALDE

A28

Zeharkatu dugu muga, zapaldu dugu benetako joko eremua, piztu da sua eta entzun da lehenengo tiroa: apirila.

Denbora gogorak ditugu aurrean: erlojuetako orratzak ezkerretara ari dira biraka; autobus berde, gorri, urdin, more eta laranja ikusten dira errepedeetan; auzokideen arteko borroka pil-pilean dabil, irratiaren bolumentan gehien nork igoko; zabaldu da *mierda kajoia* eta *Pandorarena* erabat hustu.

Hegaz ikusten ditugu *zaska-k*, gezurrak, tranpak eta hauek estaltzen zituzten oihal leunak, galdera berdina hiru aldiz jarraian, saiheste lan agerikoak, baita astakeria galantak ere.

Haginak zorrotz, belarriak erne eta kliskarik egin gabe entzuten ditugu albistegiak, bai, kate ezberdinetakoak, egia manipulazten ari direlakoan.

Asko falta ez dela igartzen dugu, odola irakiten sentitzen dugun bezala, ondokoak esan duena ezabatu ezin dugulako, aititak desberdin pentsatzen duelako, gardentasuna falta delako, justua ez delako; inpotente sentitzen naiz, atzeraka goazela ikusten ez dutelako.

Barikuan amaituko da ipuin lehiaketara aurkezteko epea

Hilaren 12ra arte aurkez daitezke Txirritolaren lehiaketarako lanak. Lehen Hezkuntzako ikasleek parte hartu dezakete, bate-tik, eta 12 urtetik gorakoek, bestetik, sari ederrekin, gainera: 12 eta 18 urte artekoen artean, 75 euro jasoko ditu irabazleak, eta 50 bigarrenak. 18tik gorakoetan, asteburu pasa da lehen saria, eta otarrea bigarrena.

"Haurren ongizatea erronka handia izan da"

MARIA EUGENIA IRAZABAL ERRETIROA HARTU DUEN IRAKASLEA

16 urterekin hasi zen eskolak ematen Maria Eugenia Irazabal Antzuolako Ikastolan. 47 ikasturteren ostean, erretiroa hartu du, bizitzako etapa berriari ilusioz ekiteko

Maidar Arregi ANTZUOLA

Maria Eugenia Irazabalek, 47 ikasturte Antzuolan irakasle gisa jardun ostean, erretiroa hartu du. Eskolak egun duen pedagogia sustatzeko gogor egin dutela lan esan dio Irazabalek GOIENARI. Orain, baina, pedagogia propio horren etorkizunak kezkatzen duela ere aitortu dio. **Antzuolako ikastolaren eta Herri Eskolaren arteko bateratzea bizi izan zenuen.**

Bai; ni, berez, Ikastolan hasi nintzen irakasle, baina herri txiki batean bi ikastetxe egotea ez zen bideragarri ikusten. Bateratzeak onura asko ekarri zion herriari, bateratze hori izan da Antzuolako hezkuntza pedagogikoaren gakoetako bat. Eskola baten beharra zegoela argi ikusten zen; baina garai hartan ere ez zen erraza izan adostea, pentsaera eta ideologi ezberdinak zeuden eta. Baina guztiok helburu bera genuen: eskola bakar bat izatea non herriko haur guztiak elkarrekin ikasiko zuten. Hau aurrera eramateko irakasle talde egonkor baten premia ikusten zen, eta ezinbestekoa izan zen, noski, gurasoek egingadako lana Hezkuntza Sailarekin izandako harremanetan. **Urte askoan talde finko bat aritu zarete ereindako hazi hura zabaltzen.**



Maria Eugenia Irazabal, Herri Eskola aurrean. MAIDER ARREGI

Bai; horri esker eta familien prestutasunari esker pedagogia berritzailea eraikiz joan gara. Esan beharra dago garai hartan gure eskualdean kabinete psikopedagogikoa zegoela eta elkarlanean aritu ginela, teoria eta praktika uztartuz.

Antzuolako eskolak iturri askotatik edan duela diozu.

Korronte ezberdinak ezagutzen joan gara: psikomotrizitatean Acouturier-en teoria, ikasketa prozesuan Piaget-en teoria, konstruktibismoarena... etengabeko formakuntza izan da gakoa.

Bartzelonarekin ere harreman handia izan duzue.

Sasoi hartan, Bartzelona aldetik zetozen haize berriak, eta kabinete kideek harreman estua zuten IMIPAEko taldeko kideekin. Irakasleen talde-lana azpimarratuko nuke. Ondoren, Carlos Gallegorekin eta bere taldearekin ere harreman estua izan dugu. Elkarrekin hainbat lan egin dugu, gainera. Baina gure helburua haurren ongizatea eta ikasketa prozesuan bidelagun izatea izan da. Horretarako bideak ipintzen saiatu gara, tal-



Pausoka guraso elkarte batzar informatiboa eskaintzen. MAIDER ARREGI

Eskolako pedagogia bermatzeko

Pausoka guraso taldeak herritarrendako batzarrak egin ditu asteon. Izan ere, Herri Eskolak duen pedagogiak etorkizuna izan dezan lan egin gura dute herritarrekin batera. Horretarako, irakasle talde finkoaren beharra aldarrikatu dute. "Eskolan esperientzia duen irakaslea mantentzea garrantzitsua da; eta Antzuolako kasuan, are gehiago. Irakasle berri batek lehen urtean egokitu beharra dauka bertako pedagogiara. Adituek diote lau urte behar direla, gutxienez, sistema ondo jasotzeko. Eskolan irakasle berrien mugimendu handia dago, ordea. Gainera, finkoak ziren irakasleak erretiroa hartzen ari dira", azaldu du Nora Legorburu Pausokako presidentea. Helburua talde bat sortzea da eskolako pedagogiarek etorkizuna bermatzeko. Interesa duten herritarrek pausokaantzuola@gmail.com helbidera idatzi dezakete.

dekide bakoitzaren erritmoak eta egiteko era ezberdinak errespetatuz, elkarri lagunduz eta elkar babestuz; beti helburu berarekin lan eginez.

Batu zintuzten pedagogia horren etorkizuna zalantzan dago orain.

Eskola aldaketa handiak jasaten ari da; haur kopurua bikoiztearekin batera, hasierako talde hura erretiroa hartuz doa. Gaur egun, irakasleen mugimendu handia dago eta ezegonkortasun horrek desoreka sortzen du, eta guk urteetan eraikitzen joan garena transmititza ez zaigu

erraza egiten. Irakasle talde finko bat badago lanerako gogotsu, baina talde txikia da. Talde sendo bat lortzeko helburuarekin lanean dihardute gurasoek, irakasleek eta Udalak. Baina Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak du azken hitza.

"ZAILA DA HAINBESTE URTETAN ERAIKI DUGUNA EGUN GUTXITAN AZALTZEA EGONKORRA EZ DEN TALDE BATI"

Trekutz txukundu dute

Arrola Mendizale elkarteak deituta, zenbait herritar Trekutzen dagoen aisialdi eremua garbitzen aritu dira, auzolanean. "Premia handia zuen aisialdi-guneak", nabarmendu dute.

Hamarretakoaren garaian, gainera, sorpresatxoa izan zuten: 1974an Arrolak Urbian antolatutako euskal herrialdeen kanpaldiaren irudi digitalizatuak proiektatu zituzten.



ARROLA

OHARRAK

Landatxoepoko batzar orokorra

Bihar egingo du Landatxoepok urteko batzar orokorra. Lehen deialdia 16:30etan izango da eta bigarrena 17:00etan. Olanaren.

Aiherran, Korrika

Biharko Aiherran antolatu dituzten kontzertuetara joateko autobusa 16:00etan irtengo da. Domekan, 10:00etan abiatuko da autobusa Aiherrara. 13:00etan pasatuko da Korrika.

Landatxoperen irteera

Perigord bailarara hiru eguneko irteera antolatu nahi dute erretiratuek: ekainaren 3tik 6ra. Informazio batzarra egingo dute hilaren 9an, 17:00etan, Landatxoepoko egoitzan.



Torresoroa eraikinaren aurrealdean dauden aparkalekuak. MAIDER ARREGI

Zirkulazio-isunen kudeaketa aztergai

Udalbatzak onartu du Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena sinatzea zirkulazio-isunen zerga-bilketa egiteko. Udal Gobernuak adierazi du herriko udaltzainak eta ertzainek jarritako isun guztiak ez dituztela ordaintzen herritar guztiak

Maidar Arregi ANTZUOLA

Martitzenean egin zuten Antzuolako apirileko ohiko osoko bilkura. Eta aho batez onartu zuten zirkulazio-isunen zerga-bilketa egiteko Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena sinatzea.

Une honetan, Antzuolako udaltzainak eta Ertzaintzak berak dute isunak jartzeko ardura eta isun horien kontu-hartzeaz Beñardo Kortabarria Antzuolako alkatea arduratzen da. Baina alkateak azaldu du ohartu direla isunak jartzen dituzten zenbait herritarrek ez dutela jarritako isun hori ordaintzen. "Ez da arazo handirik egon, baina ohartu gara jende jakin bat ez dela ordaintzera etortzen. Horri irteera emateko bi aukera daude: batetik, udaltzaina egun osoz edukitzea. Baina horretarako baliabiderik ez dugu. Eta bestetik, bestelako zerbitzu batzuk erabiltzea", argitu du Kortabarria alkateak.

Eta bestelako zerbitzu horien artean daude, batetik, Diputa-

zioak duen software sistema bitartez kobratzea; edo Eusko Jaurlaritzari pasatzea eskumena eta isunak Jaurlaritzaren bidez kudeatzea aurrerantzean. Orain, aguazilak Diputazioaren softwarea ikertuko du aukera guztiak aztertzeko. "IZFERen barruan dagoen zerbitzu berri bat da. Eta aguazila saiaturko da ikusten zenbaterainoko lana eskatzen duen sistemak eta ea erantzuteko moduan gauden".

Antzuolako Udalak, baina, ez du isunen bitartez dirurik jasoko. Helburua jendeak ondo aparkatzea dela dio alkateak. "Helburua ez da dirua batzea. Zorionez, multetatik ez da diru askorik jasotzen. Nahi duguna da jendeak aparka dezala behar

"HERRITARRAK OHARTU DIRA HERRIAN LASAI IBILTZEAREN AUKERA ONA DELA"

den tokian, debekatutako nora-bidetik ez pasatzea eta espaloio gainean ez aparkatzea. Dagoen araudia errespetatzea, alegia".

Oinezkoen plana

Oro har, arauak errespetatzen dituen herria dela azpimarratu du eta gehiengo nagusiak ondo aparkatzen duela.

Oinezkoen plana aurreko agintaldian onartu zuten parte hartze prozesuaren bidez. Orduan erabaki zuten antzuolarrek oinezkoen gunea jartzea. Hasieran eztabaida sortu zuen arren, alkateak planaren balorazio positiboa egin du. "Hasieran, kritikak entzun genituen; baina herritarrek ohartu dira herrian lasai ibiltzearen aukera ona dela".

Hauteskunde mahaia

Bestalde, 2019ko hauteskunde orokorretako mahaietako kideak aukeratzeko zozketa egin zuten. Ondorengo egunetan jakinaraziko zaie hilaren 28an mahaian egotea tokatu zaien antzuolarrei.



IMANOL SORIANO

Kortabarria, bailarako lehena

Eulen taldeko Aritz Kortabarria txirrindulari antzuolarra izan zen Gorkako lgoeran lehen debagoiendarra helmugaratzen. Lasterketa polita egiten zebilen arren, bigarren igoeran amore eman behar izan zuen: "Denboraldi-aurrean bai, baina orain ez nabil batere sentsazio onarekin, segituan konturatu naiz hankak pisutsu nituela eta ez zela eguna".

'Ahotik bihotzera' ipuin maratoia ospatuko da

Apirilaren 14an, domeka, ospatuko da Antzuolako VI. ipuin maratoia. Eguerdian eta arratsaldean izango dira ekintzak. 13:00etan, ipuin kalejira egingo dute, Virginia Imaz ipuin kontalariak gidatuta, eta berarekin batera izango dira trikitilariak. Ondoren, *Welcome!* saioa hasiko da Iñaki Mataren eskutik: "Giza itxura duen pampina errealista-ekin jantzitako poesia eskaintzen digun obra ibiltaria da. Edozein barne migrazio prozesuari ongietorria emateko modua". Arratsaldean, berriz, ipuin kontaketak izango dira, Olanaren, 18:30ean hasita. Izena eman daiteke udaletxean eta kultura@antzuola.eus helbidean.

Bizikleta martxa 'gorria' egingo dute bihar herritarrek

Herriak lotu, bidegorria amaitu lelopean, herritar talde batek bizikleta martxan parte hartzeko dei egin die bergararrei eta antzuolarrei. Bizikleta martxaren helburua da bi herrien arteko bidegorriari bukaera ematea aldarrikatzea; eta baita ere Antzuolako ur-zikinen kolektorea egitea.

Bizikleta martxa apirilaren 6an Antzuolako plazatik 11:00etan abiatuko da eta 11:30ean San Antoniora iritsiko da. "Bergarako udaletxera joango gara. Jai giroan egingo dugu aldarrikapena eta gorritz jantzita joateko dei egiten diegu bai bergararrei eta baita antzuolarrei ere", azpimarratu dute antolatzaileek.

MUJIKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Zebra-muskuilua hasita dago Aixola kolonizatzen

Arriskutsuenak diren munduko ehun espezie inbaditzaileetako bat da eta Araban eta Bizkaian detektatu zutela urteak badira ere, lehenengo aldiz antzeman dute Gipuzkoan. Hedapena saihesteko neurri bereziak hartu beharko direla diote adituek

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Zebra-muskuilu ale heldu bat antzeman dute Aixola urtegian. Detekzio goiztiarrerako kokatuta dauden plaka berezi batzuetan agertu zen, martxoaren 26an. Ordutik, hainbat azterketa eta miaketa egin dituzte Gipuzkoako Urak-eko zein Ura Agentziako teknikariek. Ez dute, oraingoz, besterik aurkitu, baina pentsatzekoa da egon badaudela.

Adituek uste dute zebra-muskuilua gizakiaren eraginez iritsiko zela Aixolara. Nabigazioa debekatuta egonda, pentsatzekoa da arrantzarekin lotutako jardueraren baten ondorioz izan dela. Modu batean edo bestean, larbekin kutsatutako uretan edo tresnerian helduko zen.

Adituak kezkatuta daude; izan ere, zebra-muskuiluak ondorio larriak eragiten ditu eta kolonizazioa saihesteko neurriak hartu beharko direla aurreratu dute. Gaur, barikua, elkartuko dira urtegiako jardueretan esku-



Aixolako urtegia eta bertan azaldutako zebra-muskuilua. L.Z.L.

URTEGIAREN UR MAILA HAMABOST BAT METRO JAISTEA LITZATEKE NEURRIRIK ERAGINKORRENA

mena duten agente guztiak, Donostian.

Teknikariek behaketa lanekin jarraituko dute. Zebra-muskuilu udan ugaltzen da eta orduan izango da errazagoa larben presentzia zein kopurua detektatzea.

"Azkar hedatzen da eta bertako espezieendako oso kaltegarria da"

FRANCISCO SILVAN BERAZA URA AGENTZIAKO TEKNIKARIA

Adituak dio neurri bereziak hartu beharko direla Aixola urtegian.

Non agertu da zebra-muskuilua?

Urtegian ipinita dagoen detekzio plakan, zortzi bat metroko sakoneran. Ez dugu, oraingoz, gehiagorik antzeman, baina litekeena da egotea.

Behaketa lanik egin duzue?

Urgentziazko prospekzioak egin ditugu. Urertzak miatu ditugu besterik dagoen jakiteko eta ur laginak analizatu ditugu larbarik dagoen argitzeko. Ez da ezer agertu, baina normala ere bada, ez baita ugaltze sasoa. Urtegitik



L.Z.L.

doan erreka ere aztertu dugu, eta ez da ezer agertu, baina kolonizazioaren hasiera izanik hori ere pentsatzekoa zen.

Zergatik da espezie hori hain arriskutsua?

Azkar hedatzen da eta eremu zabalak hartzen ditu, eta bertako espezieei kalte handia egin. Bestetik, hoditerietan sartzen da, batzuk ixtera iritsi arte. Arazo handiak daude, batez ere, ureztatze sistemekin. **Eta hemendik aurrera zer?** Neurri bereziak hartu beharko dira espeziearen hedapena oztopatzeko. Saiatuko gara, baina, ziurrenik, ezingo da errotik kendu. Udan ugaltzen da zebra-muskuilua eta orduan ugarituko dira larba mikroskopikoak uretan. Presentzia zenbatekoa den jakingo dugu orduan. Neurrikerik eraginkorra urtegiako ur maila hamabost bat metro jaistea da. Hala, lehortu egingo lirateke zebra-muskuiluak egoteko aukeratzen dituen eremuak.

Bi hitzaldi, dokumental bat, eta lore eskaintza 'Intxortako atea'-n

Aurten ez dute Intxortako borrokaldien errekreazioerik egingo Elgetan, hauteskunde-eguna delako

L.Z.L. ELGETA

Intxortako borrokaldien urteurrena gogora ekartzeko egitaraua berezia da aurten. Antolaketa lanetan hasi eta eguna iragarri ostean jakin zuten antolatzaileek Espainiako Kongresurako eta Senaturako hauteskunde-eguna izango zela apirilaren 28a. Hori horrela, erabaki dute errekreazioerik ez egitea eta bestelako egitarau bat antolatzea. Memoria osatzeko jardunaldiak prestatu dituzte. Aurreko egunetarako bi hitzaldi eta ikus-entzuzko baten emanaldia iragarri

dituzte. Apirilaren 28an, berriz, lore eskaintza egingo dute *Intxortako atea*-n, 11:00etan.

Lehen hitzaldia martitzenean izango da, hilak 9. EHUko ikerlari Iñaki Etxaniz Tesourok egingo du, 19:00etan, udaletxean. Izenburua da *Air Pyrénées, Euzkadiko gobernuaren airelinea*.

Eguenean, berriz, Intxorta 1937 kultur elkarteak ekoiztutako *Kamarada* emango dute udaletxean. Miliziano komunista izandako Celestino Uriarte arrasatearraren bizitzan oinarritzen den dokumentala da.

Country doinuak eta dantzak, hilaren 14an, Espaloian

Hurrengo domekan, Ameriketako Estatu Batuetako musikariak izango dira Herri Dantzanek eta Elgetako Udalak elkarlanean antolatutako saio berezian. Northern Harmony izeneko abesbatzak emanaldia egingo du, 18:00etan, Espaloia kafe antzokian. Bulgariako, Georgiako, Korsikako, Hego Afrikako eta Ameriketako kanta tradizioa-

lak abesten dituzte. Euskal Herriko kantak ere abestuko dituzte emanaldiaren amaieran.

Dantza saioa izango da jarraian. Jeremy Gordon musikari estatubatuarren zuzeneko musikarekin, Ameriketako country dance delako kontradantzak ezagutzeko aukera izango dute bertaratzen direnek. Saioa 19:00etan hasiko da eta hor ere Euskal Herriko kontradantzek lekua izango dute. Trukaketa interesgarria izango delakoan daude antolatzaileak.

Hauteskunde-mahaiko kideak izendatuta daude

Apirilaren 28an izango diren Espainiako Kongresurako eta Senaturako hauteskunde orokorretarako mahaikideen zozketa eginda dago. Mahaiko presidente kargurako Enaitz Ezpeleta Gallastegi dago izendatuta. Lehen ordezkaria da Igor Hernandez Arantzeta eta bigarrena Naiara Cordoba Alejo. Lehenengo mahaikidea June Dosuna Mendikute da. Lehen ordezkaria Maria Carmen Arantzeta Egizabal da eta bigarrena Ana Maria Larreategi Zengotitabengoa. Bigarren mahaikidea, berriz, Eñaut Arantzeta Agirre da. Lehen ordezkaria Nerea Bollar Cruz da eta bigarrena Olga Bolinaga Iturricastillo.

OHARRAK

Haur ikuskizunak

Gaur, 17:30ean, Ipuinen Ordu berezia liburutegian eta 18:30ean *Peru eta otsoa* haur ikuskizuna, doan, Espaloian.

Bertso afaria

Korrikaren alde hilaren 12an egitekoa den bertso afarirako txartelak astelehenera arte egongo dira salgai Haizea zein El Rincon de Lola tabernetan.

Haurreskola

Zerbitzua ezagutzera emateko ate irekiak, hilaren 10ean, 17:30etik 19:00etara.

Podologia

Hilaren 11n izango da erretiratuendako kontsulta. Txanda hartzeko: 943 76 80 77.

AUTOAK 2019



Audi e-tron autoa.

UDALAITZ AUDI, VOLKSWAGEN, SKODA ETA SEAT AUTOEN ESKAINTZA

Elektrikoak, SUV kategoriakoak eta segurtasun handiko automobilak erabiltzaileen eskura, Udalaitz kontzesionarioan.

Tomas Muñoz Udalaitzeko Audi eta Seat autoen aholkulari komertzialak eta Felix Elorza Volkswagen eta Skoda ibilgailuen aholkulariak marka bakoitzeko auto bana azpimarratu dute: lehenengoak, Audi e-tron eta Seat etxeko Tarraco auto modelo; eta bigarrenak, aldiz, Volkswagen markako T-Cross autoa eta Skoda Karoq.

Merkatuan karga potentzia handiena duen auto elektrikoa da Audi e-tron. 150 kW-ko karga ahalmena du eta horrek 30 minutuko kargak egitea ahalbidetzen dio erabiltzaileari bidaiak luzeak egiterakoan. Bi aukera daude karga egiteko: alde batetik, 22 kW arteko karga nork bere etxean egiteko aukera; eta, bestetik, Audi markak duen kargatzeko sistema propioa erabilita; erabiltzaileak European kargarako dauden lekuen %80an izango du horretarako aukera. Bi motor elektriko osatua dago:

bata autoaren aurreko ardatzean dago eta bestea, atzekoan. Guztira, 300 kW-ko ahalmena du autoak *boost* eran.

Balazta-sistema berritzailea, unitate trinkoa eta presio handiko sistema oso azkarra dauka motor elektrikoari esker. Espazio zabala du autoak: bost lagunendako lekua, 660 litroko maletategia eta 1.800 kilogramo ditu erremolkerako. Ondorioz, "egunerokotasunean erabilerara askotarako auto perfektua da", dio Muñozek.

SUV kategoriako zazpi plaza-rainoko autoa da azpimarraturiko Seat Tarraco ibilgailua. Familia handian bidaiatuz gero edo ez, aukera bikaina edonorentzako. Atzeko aukerak plegatzeko aukera du, eta, horrela, maletategi handiagoa izango du erabiltzaileak. Bestetik, hirugarren lerroan aukerak jarritz gero, bost eserlekuko autoa izatetik, zazpi lagunek bidaiatzeko moduko autoa eratzen da.

Full link teknologia aurreratu dauka auto horrek. Norbakoaren smartphoneko *app*-etara jo dezake erabiltzaileak, zuzenean, ukimen-pantailaren bitartez. Seinaleen ezagutza, mapak, balaztatzea eta bidetik nahigabeko irteera kontrola ere baditu ditu, *Apple CarPlay*

Berrikuntzak egungo autoetan

Berrikuntza, puntako teknologia eta segurtasun handiko autoak, Autoberri, Takolo Autoak, Chapime eta Udalaitz kontzesionarioetan; alokairuan autoak hartzeko aukera, Avis-en; eta automobilak aseguratzeko, Zurich-en aukera

Renault CAPTUR
SUV by Renault

Renault Captur: kontsumo mistoa WLTP (l/100 km) 5,3 eta 6,6 bitartean.
CO₂ isuriak WLTP (g/km), 138 eta 150 bitartean.

Renault | **RENAULT**
Passion for life

AUTOBERRI San Andres, 8. Tel. 943 71 24 72. ARRASATE. GIPUZKOA www.autoberri.com

eta *Android Auto* aplikazioak erabilia.

Hiri izaera duen SUV kategoriako beste auto aukera bat da Volkswagen etxeko T-Cross autoa. Hiru bereizgarri nagusi ditu ibilgailu horrek: kanpoko diseinu erakargarria; Digital Cockpit, abiaduraren eta erregeiaren gaineko informazio zehatza ematen diona gidariari; eta gidari-lagun ikusezina, Lain Assist izeneko segurtasun programari esker. Azken horrek dauka errepede barruan ibilgailua mantentzea, aparkatzeko orduan laguntza, sentsore eta kameraz lagunduta, angelu itsuaren alerta, larrialdi deia eta argi laguntzaile dinamikoa. Horrela, ahalik eta segurtasun handiena eskaintzen dio autoak gidariari.

Azkenik, 1905ean Skoda autoen sortzaile izan zen Laurin & Klementen auto etxeko Karoq modelo gomendatzen du Felix Elorza Udalaitz kontzesionarioko aholkulari komertzialak. Skoda automobilak Volkswagen etxearen baitan dauden autoak dira. Munduko laugarren automobil markarik zaharrena da eta kalitate handiko autoak produzitzen jarraitzen dute gaur egun ere.

Horietako bat da Skoda Karoq autoa. Ekipamenduan eta segurtasunean oinarritutako apustua egiten du Activa Front Assits sistemarekin. Zona bi-koitzeako aire-girogailua dakar, eta baita funtzio askotariko bolantea ere.

Bestetik, beste ezaugarri bereizgarri hauek ere badakartza automobilak: Full Led argiak, sabaiko barrak, kristal ilunak, argi eta euri sentsoreak eta kameradun multimedia sistema moderno bat, hain zuzen ere.



Seat Tarraco.



Volkswagen T-Cross.



Skoda etxeko Karoq.

AUTOBERRI RENAULT ETA DACIA AUKERAN

Dacia eta Renault marketako autoak eskuratu daitezke Autoberrri kontzesionarioan. Marka bakoitzeko modelo bana azpimarratu ditu Yolanda Bujandak, kontzesionarioko langileak.

Dacia markako Duster modeloaren aldeko apustua egin dute Autoberrin: "Modelo bereizgarria da. Bizitasuna, mardultasuna eta abentura eskaintzen dio gidariari, Daciaren oinarritzko ezaugarriari eutsiz: bizigarritasuna eta erosotasuna".

C-SUV kategoriako modelo da Duster berria, errepidera zein mendira erraztasunez moldatzen dena. "Praktikotasuna eta ibilgailuaren prestazioak baloratzen dituzten bezeroei zuzendutako modelo da", adierazi du Bujandak.

Puntako berrikuntza teknologikoak eskaintzen ditu. Besteak beste, txartel bidezko kontrolari esker, autoa bakarrik desblokeatzen da metro bat baino gutxiagora txartela antzematean. Gainera, informatika entretimendu dispositibo ugari eskaintzen ditu; tartean, Media Nav Evolution konektagarritasun sistemari esker, hainbat funtzio eskaintzen ditu: ikuspuntu askotariko kamera -ibilgailua erraztasunez aparkatzeko-, 4x4 informazio-pantaila eta ECO Mode sistema, besteak beste.

Berrikuntza teknologikoen gidariaren segurtasuna bermatzen ere laguntzen dute. Horretarako, aldapako abiaraztean lagungarri den funtzioa, angelu itsuaren detektagailua, abiadura mugatzailea eta direkzio lagundu elektrikoa eskaintzen ditu.

ZURICH AUTOK eskaintzen dizu:

- Aseguruaren titulartasuna 25 urtetik aurrera
- Lehenengo bi urteetan erabateko hondamena gertatuz gero, auto berriaren balioa
- 25 eta 35 urte arteko emakumea izatearren, % 10eko deskontua
- "Soluzioak bidean" zerbitzu gida: zure aseguruak eskaintzen dizun abantaila eta zerbitzu gama zabala.

- Laguntza juridiko eta legala bidaietan
- Deskontuak talleretan
- Deskontuak jatetxeetan, hoteletan (NH, Sol Mellia...) eta paradoretan
- Deskontuak bidaietan (opor-paketeak, auto alokatuak, tren txartelak, tarifa bereziak charter hegaldietan, hegaldi erregularretan...)

...eta zure aseguruak?



ZURICH
M^o del Mar Urrutia Negueruela

Montxon kalea 5 behea
20.560 OÑATI
Tel./Faxa: 943 78 30 09
Polts.: 620 77 66 20



Dacia Duster berria.



Renault Kadjar berria.

Renault markari dagokionez, SUV kategoriako Kadjar berria da Autoberrik eskaintzen duen beste ibilgailu berritzaileetako bat. "Bezeroari gidatzeko esperientzia atsegina eta segurua eskaintzeko helburuarekin, diseinua eta teknologia konbinatzen ditu autoak. Gainera, ingurumenari ekarpen garrantzitsua egiten dio, emisioak murriztea helburu duten motor berria dakar eta", azaldu du Bujandak.

Ingurumenarekiko ardura ere erakusten du Renaultek; horregatik, Kadjar berria *Stop & Start* funtzioarekin dator, erregaien kontsumoa eta gasen emisioa gutxitzeko helburuarekin.

Segurtasuna bermatzeko asmoz, azken berrikuntza teknologikoak txertatuta dituen modeloa da hori, hala nola abiadura erregulatzeko mekanismoa, aparkatzeko laguntza –sentsore eta kamerarekin lagunduta–, atxikidura kontrola –gidariak une oro errepidearen kontrola eduki dezan– eta angelu itsuaren alerta –beste ibilgailuren bat sentsoreen detekzio eremuan dagoenean, gidaria ohartarazten du egoeraz jabetu dadin–.



Opel Combo Life Innovation

Konektagarritasun maila handia eskaintzen du modelo horrek. "R-LINK2 sistema multimedia-rekin hornituta dator automobila; irratia, USB sarbideak, jack eta bluetooth funtzioarekin, hain zuzen ere", azaldu du Yolanda Bujandak, Autoberri kontzesionarioko langileak.

Eta, horrez guztiaz gainera, honako hau ere gaineratu nahi izan du: "Modelo horri esker, bezeroak errendimendu hobea lortuko du eta kontsumo oso murrizta izango du garraiatzeko orduan".

OPEL TAKOLO AUTOAK LEHENDABIZI: SEGURTASUNA

Opel markako autoak eskaintzen dituzte Arrasaten dagoen Takolo Autoak kontzesionarioan.

Ibilbide oparoa duen marka da Opel. Markako fundatzaile Adam Opelek 1862an egin zituen lehen urratsak, bere konpainia propioa sortuta. Orduetik, etengabeko eraberritze prozesuan murgildurik dihardu Alemaniako konpainiak .

Gidariaren segurtasuna bermatzea da Opelen helburuetako bat. Hori dela eta, segurtasuna xede duen autoa aurkeztu du Ibon Rubiok, kontzesionarioko langileak: "Opel Combo Life Innovation autoan segurtasunak du lehentasuna, oso hornikuntza ona duen modeloa baita".

Espazio handia duen autoa da Combo Life Innovation, eta, gainera, ibilgailu moldaeraza izanik, profil askotariko bezeroei zuzendutakoa da. "Espazio handia duen autoa izateaz gain, moldaeraza ere bada. Horrega-

tik, profil askotariko bezeroei zuzendutako modeloa da –fami-liak, kirolariak, autonomoak...–. Esaterako, kirolarien beharretara oso ondo egokitzen den modeloa da –batez ere, eskiatzera edo eskalatzerara joaten direnak–", azaldu du Rubiok.

Segurtasuna bermatzeko helburuarekin, prestazio ugari dituen modeloa da. Hain zuzen ere, puntako berrikuntza teknologiak ditu.

Adibidez, ustekabeko erreialdatzearen alerta dauka; horren bitartez, arriskuren bat antzematen badu ibilgailuak, gidariari jakinarazten dio, nahikoa denbora izan dezan egiten ari den maniobra eteteko.

Abiadura eta nekeak eragindako lokartzea errepideko istripuen kausa nagusiak izaten dira, alkoholaren eraginpean gidatzearekin batera. Hori dela eta, bide-seinaleen irakurgailua eta neke detektagailua daramatza modelo horrek. Horrez gainera, gidatzean distrakzioak saihesteko asmoz, HUD (Head Up Display) sistema darama; hau da, gidariari, ikuspuntua aldatu gabe, informazioa ikusteko aukera eskaintzen dion pantaila.



OPEL COMBO LIFE. SEGURTASUNA DA GARRANTZITSUENA.



San Andres Auzoa 10-D • Tel.: 943 77 30 10



OPEL
OPEL ZERBITZU OFIZIALA

Gainera, euri eta argi sentso-rea, atzealdeko kamera, sabai panoramikoa eta aparkatzeko sentsoreak ere baditu Combo Live Innovation modeloak.

Ingurumenarekiko ardura handia erakutsi duen marka da Opel; horregatik, "egun merkaturatzen dituen ibilgailu guztien motorrak ekologikoak dira", azaldu du Rubiok.

"Diesel edo gasolina motorra izan ibilgailuak, kutsaduraren maila desberdina izango da. Baina kutsadura arazoak dituzten hiri handiagoetan ibiltzeko arazorik ez du modelo honek", gaineratu du.



Citroën C5 Aircross.

CITROËN CHAPIME MOTOR ONENAREN SARIA, LAUGARRENEZ

Ospe handiko marka da Citroën, eta horren adibide da laugarren urtez marka horretako hainbat modelok munduko motor onenaren saria lortu dutela. "Motor oso efizienteak ditugu gama guztietan. Hain zuzen ere, diesel teknologian beti izan gara oso aurrerakoiak; Blue HDI

izenez ezagutzen den teknologia eskaintzen dugu: oso motor efizientea, emisio gutxiokoa, eta, kasu askotan, gainera, hibridoak baino emisio eta kontsumo baxuagoarekin", azaldu du Mikel Loitik, Citroën Chapime kontzesionarioko langileak.

"Horrez gain, epe motzean, urte honen amaierarako, agian, baliteke ibilgailu hibrido bat izatea gurean", gaineratu du.

Era berean, Citroën C5 Aircross modeloaren promozioan murgildurik dira kontzesionarioko kideak. "SUV segmentuan aspaldian ez dugu eduki autorik, eta, azken urteotan asko hazi den segmentua izanik, auto honek hutsune hori oso ondo beteko duela uste dut", adierazi du Loitik.

Diseinu erakargarridun modeloa da. Bere segmentuan, hiru jarleku independente dituen

bakarra da, eta horrek espazio handiagoa ematen dio. "Bere segmentuko maletategirik handiena du, 720 litro bitarteko ahalmena duena", azaldu du Loitik.

Merkatura iritsi den azken modeloa da C5 Aircross eta berrikuntza teknologia ugariarekin dator.

"Hogei ekipamendu ditu segurtasun mailan, eta horietako asko oso lagungarriak dira

gidatzeko orduan", adierazi du Loitik.

Tartean dago Highway Driver Asit teknologia, gidariari kondukzioa era partzialan delegatzea ahalbidetzen diona. Horretarako, bi funtzio kontrolatzen ditu: lehenak ibilgailua bere erreian mantentzen du eta bigarrenak, berriz, motorraren abiatzea eta geldialdia kudeatzen ditu, aurreko ibilgailuak egiten duenaren arabera. Gainera, istripuak saihesteko helburuarekin, aurreko autoarekin talka arriskua aurreikusten du autoak, eta gidariari abisatzen dio. Horrez gain, Active Safety Brake sistemak –emergentziako galgatze sistema– aurreko ibilgailuarekin segurtasun tartea zaintzen laguntzen dio gidariari.

Berrikuntza teknologikoei esker, konektagarritasun mailan aurrerakuntza ugari dituen modeloa da; besteak beste, ukipen-pantaila eta mugikorreko aplikazioak autoaren pantailan kudeatzeko aukera. "Citroën timerako modelo askotan eman da aurrerapauso hau", dio Mikel Loitik.

Comfort Class SUV

SUV BERRIA
CITROËN C5 AIRCROSS

MOTELGAILU PROGRESIBO
HIDRAULIKOKO SUSPENTSIOA

19.490
EUROTIK AURRERA

**IKUS LEGE-BALDINTZAK ETA FINANTZAKETARI LOTUTAKO GASTUAK*



DEBAGOIENENKO CITROËN ZERBITZU OFIZIALA: TALLERES CHAPIME S.C.L. San Andres 5 Tel.: 943 79 45 22 - ARRASATE

Motorrak ere baditu bere orrialdeak 'Puntua' aldizkarian



puntua
goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

"Puntua" aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...
Bazkidetu orain. Urteko kuota 56€.
Deitu: 943 25 05 05 • kluba@goiena.eus



Mikel Egaña Bartzelonan.

Zurich-en hirugarren belaunaldia Oñatin

Mari Mar Urrutiak, ibilbide oparoa egin ostean, bere seme Mikel Egaña Urrutiari emango dio lekukoa laster. Elkarlanean dihardute ama-semeek gaur egun: lehena, Oñatiko bulegoan; eta bigarrena, berriz, Bartzelonan

Amaren urratsei jarraiki, aseguru arloan trebatzen ari da Mikel Egaña Bartzelonan.

"Gaur egungo aseguru-etxe garrantzitsuenek egoitza dute Bartzelonan, oso toki dinamikoa da sektorean trebatzen joateko. Lanean eta ikasten ari naiz orain, artekari lanak ikasten; ez zait askorik falta artekaria izateko", azaldu du Egañak.

"Nire amak Oñatin dihardu lanean, ni iristen naizen unera arte. Ideia zera da, ni Oñatira iristean, denbora batez, elkarrekin lan egitea, amari erretiroa hartzeko unea iritsi arte. Ondoren, nik jarraituko dut aitona hasitako bidearekin", gaineratu du.

Prezioaren finkatzea

Aseguru-etxe bakoitzak bere irizpideak dituen arren, guztiek parametro bera jarraitzen dute aseguruaren prezioa zehazteko orduan. Parametroak prezioa zehaztuko duten aldagai desberdinak jasotzen ditu.

"Jendeak uste du norberaren kasua bakarrik hartzen dela aintzat prezioa zehazteko orduan, baina pisu handiko beste hain-

bat faktore ere hartzen dira kontuan", esan du Egañak.

Nortasun agiria, adina, gidabaimenaren antzinakotasuna, posta kodea, aseguruaren historia eta autoa, besteak beste, aldagai "erabakigarriak" izaten dira.

Estaldurak

Estatuak Derrigorrezko Erantzukizun Zibila eskatzen die ibilgailuei. Horrez gain, defentsa juridikoa, osasun-asistentzia eta bidaia asistentzia ere kontratatu daiteke. "Enpresa handiek bidaia asistentzia eskaintzen dute, baina bezeroaren interesekoak ez diren klausulak aurkitu genitzake bertan", azaldu du Egañak.

Hirugarrenentzako aseguruak ere eskaintzen dituzte. Baina osatuena arrisku orotako aseguru da, berezko kalteak ere bere gain hartzen dituen.

"JENDEAK USTE DU NORBERAREN KASUAREN ARABERA ZEHAZTEN DELA ASEGURUEN PREZIOA"

Audi Service **VW** **SKODA AUTO** **SEAT**

Zutaz arduratzen gara

Audi Q2 VW Caddy VW T-Roc Skoda Kodlaq Seat Arona

UDALAITZ

UDALAITZ S.L.
Gipuzkoa etorbidea 36
20500 Arrasate

Tel.: 943 71 18 70 | Faxe: 943 71 18 71
udalaitz@otola.org | www.udalaitz-arrasate.com



Avis taldeak alokairuan dituen ibilgailuetako batzuk.

Avis: ibilgailuen alokairua Debagoiengan

2018. urtean hasi zen Arrasaten egoitza duen Avis enpresa ibilgailuak alokatzeko zerbitzua eskaintzen Debagoiengan. Gainera, gaur egun, ibilgailuak errentan ematen dituen Debagoieneko enpresa bakarra da hura

Ibilgailuen errenta zerbitzua eskaintzen esperientzia handia eta ibilbide luzea duen enpresa da Avis.

Izan ere, partikularren eta enpresen mugikortasun beharrak asetzen profesionalak dira; bezeroei zerbitzu pertsonalizatuak, malgutasuna eta bizkortasuna eskaintzen adi-tuak, alegia.

Esan behar da 70 urte baino gehiagoko esperientzia duela Avisek; hain zuzen ere, 1946. urtean zabaldu zuen Warren Avisek ibilgailuak alokatzeko lehen egoitza, Detroitko aireportuan; hiru ibilgailurekin bakarrik.

Gaur egun, ostera, Avisek 5.000 egoitza baino gehiago ditu munduko 165 lurraldetan banatuta.

Eta horien artean dago Arrasaten duen egoitza.

Debagoiengan bakarrik

Ibilgailuen errenta zerbitzua eskaintzen duen Debagoieneko enpresa bakarra da gaur egun Avis.

"Gu zerbitzu hau eskaintzen hasi baino lehen, Debagoieneko bezeroek beste toki batzue-

tara mugitu behar izaten zuten ibilgailuak alokatu ahal izateko; gehienetan, hiriburuetara, hala nola Gasteizera eta Bilboko aireportura", azaldu du Yolanda Barcinak, Aviseko langileak.

"Gainera, ibilgailuen errenta zerbitzua eskaintzen duen Debagoieneko enpresa bakarra gara une honetan", gaineratu du Barcinak.

Hain zuzen ere, 2018. urteko irailaren 3an hasi ziren ibilgailuen errenta zerbitzua eskaintzen Debagoieneko biztanleei.

"Urtebete ere ez da igaro ibilgailuen errenta zerbitzua Debagoiengan eskaintzen hasi ginenetik, baina esperientzia handia dugu ibilgailuekin; zehazki, 1963. urtea ezkeror daramatzagu ibilgailuen munduan lanean", adierazi du Barcinak.

Eskaintza zabala

Ibilgailuen errenta zerbitzua enpresek kontratatzen duten zerbitzua dela uste da maiz. Baina gero eta gehiago dira ibilgailuak alokatzeko hautua egiten duten partikularrak.

"Hasiera batean, gure bezeroak ia eskusiboki enpresak izango zirela pentsatzen genuen. Baina, egia esan, pertsona partikular ugari jo dute guregana, arrazoi batengatik edo bestearengatik ibilgailu baten alokairuaren beharra dutenak", azaldu du Barcinak.

Beraz, askotariko bezeroek, partikular zein enpresa, izan ditzaketen behar eta nahiei erantzuna emateko asmoz, ibilgailuak hainbat kategoriatan sailkatzen dituzte Avis enpresan.

"Alokatzeko ditugun autoak hainbat kategoriatan sailkatzen

dira: modelorik txikienetatik hasi, eta zazpi eta zortzi eserlekutako monobolumenetara. Gainera, garraio zerbitzueta-rako ere hiru furgoneta tamaina eskaintzen ditugu", gaineratu du.

Hainbat aukera

Bezero bakoitzaren beharrak eta nahiak asetzeko asmoz, ibilgailuak egunka, asteka, asteburuka, hilabeteka edota urteka alokatzeko aukera eskaintzen dute Avisen.

Gainera, bezeroari bizkortasuna eta malgutasun handiagoa emateko helburuarekin, "posible da ibilgailua, esaterako, Arrasaten hartzea eta, ondoren, Malagan uztea, edota alderantziz", azaldu du Barcinak.

Harremanetarako

Avis enpresarekin harremanetan jartzeko edo informazio zehatzagoa eskuratzeko, hainbat bide daude aukeran: *Avis.es* webgunean, Arrasateko San Andres auzoan dagoen egoitzan -Autoberrri SL-, 943 71 24 72 eta 678 49 13 73 telefono zenbakietan eta *mondragon.ciudad@avis.es* posta elektronikoren bitartez.

"ERRENTA ZERBITZUA ESKAINTZEN DUEN DEBAGOIENeko ENPRESA BAKARRA GARA UNE HONETAN"

GERO ETA GEHIAGO DIRA IBILGAILUAK ALOKATZEKO HAUTUA EGITEN DUTEN PARTIKULARRAK

AVIS®

Budget®

GIDARIRIK GABEKO IBILGAILUAK
ERRENTAN
ARRASATEN, ZABALDU BERRIA!


ERRESERBA EZAZU ZURE AUTOA GUREKIN ARRASATEN:

AUTOBERRI, S.L. (MECA)
San Andres Auzoa, 8 • 20500 Arrasate
mondragon.ciudad@avis.es
T. 943 71 24 72 | 678 491 373
avis.es





Hirigintza teknikari Leticia Alvarez eta Elena Lete alkatea eguaztenean seminarioko patioan, obrak hasi diren partean. TXOMIN MADINA



Seminarioko patioaren ingurua urbanizatzeko aukeretako bat. BEB

Ibargarai berritzeko "aukera asko"

Udalak BEB enpresari esleitu zion Ibargarai urbanizatzeko alternatiba ezberdinen azterketaren inguruko dokumentu teknikoak idaztea, 7.865 eurotan. "Aukera asko" daudela dio Gobernuak, eta bazuela berritzeko "premia". Espaloia zabaltzea aurreikusten dute zirriborroek.

Hodi biltzailea aldatzen hasita, uztailean zulatuko dute parkingerrako zorua

Errotazio bidezko 86 aparkaleku egiteko parkingerrako lanak asteon hasi dira eta apirilatik ekainera arteko lehen fasean hodi biltzailea aldatzea izango da lanik aipagarriena; Aranzadiren ikasturtea amaitzean, uztailean, zulatuko dute aparkalekua egiteko zorua

Jokin Bereziartua BERGARA

Astean zehar seminarioko patioatik pasatu diren herritarrak konturatuko ziren hasi dituztela lur azpiko parkinga egiteko lanak. Teknikoki komenigarria zela ikusita, lanak zatika egingo dira, eta, lehen fasean, uraren hodi biltzailea aldatzeko izango dira obrak. "Lurzorua zeharkatzen duen hodi biltegiak asko baldintzatzen zuen erabilera eta ziurtatu genuen teknikoki posible zela aldatzea", adierazi du Elena Lete alkateak.

Aste Santuan lehen faseko zailena

Lehen faseko lan horiek ere hainbat fasetan egingo dituzte; horiek finkatzeko orduan, Udal Gobernuaren arabera, teknikariek harreman zuzena izan dute Aranzadi ikastolarekin eta inguruko eragileekin. "Aste Santuko oporrak aprobetxatuko

ditugu lehen faseko lanik konplikatuena egiteko", gaineratu du. Izan ere, eragileekin duten "harreman estu" horren ondorioz posible da lanek aurrera egin ahala aldaketak izatea, Gobernuak aurreratutako duenez: "Eragi-

leekin akordatuta etengabe ari gara proiektuari hobekuntzak egiten; Udala une oro ekarpenak jasotzeko prest dago. Ekarpene horiekin, baliteke aurrerantzean aldaketak izatea fase edo pauso zehatzetan". Artzamendi enpre-

Kudeaketaz eta zorpetzeaz kezkatuta

Oposizioak ez du begi onez ikusten parkingaren proiektuak orain arte izan duen lanketa. EH Bilduk eta Irabazik "informazio falta" salatu dute hasieratik. EH Bilduk, Bergarako parking faltaren arazoari soluzio bat eman behar zaiola onartu arren, salatu du Gobernuak inprobisatzen aritu dela proiektu horrekin eta horrek Udala "nabarmen" zorpetzea ekarriko duela. Hasierako aurrekontua -1.400.000 eurokoa, Gobernuak zehaztu zuenez- gutxienez bikoiztu egingo du bukaerako kostuak, EH Bilduk ohartarazi duenez. Irabazi proiektuaren kontra agertu zen hasieratik, parking bat erdigunean eraikitzea euren mugikortasun ikuspegiaren aurka doalako. Horrez gain, Irabazik osoko bilkura batean adierazi zuen obra osoaren kostua lau milioi eurora hel daitekeela, euren teknikarien kalkuluetan oinarrituta.



Karpa ondoko zanga gauzatzeko lanak hasita daude. T.M.

sa ari da lehen faseko lanek egiten, 280.000 euro inguruko aurrekontuarekin.

Parkingerrako zulaketak, uztailean

Lehen fasea apirilatik ekainera bitartean kokatzen du Leticia Alvarez arkitektoak, lau zatitan: apirilko lehen hamabostaldian, karpa ondoko zanga gauzatu da; bigarren zatian, Aste Santuko oporretan, frontoiko paretatik Aranzadiren sarrera nagusirako tartea hartuko dute; lehen faseko hirugarren zatian, maiatzean, lorategien gunean eta haur eskolaren fatxadan kokatuko dira lanak; eta, lehen fasea borobiltzeko, maiatz eta ekain artean, Herri Lagunak kalera helduko da obra. Zirkulazioko aldaketen berri emango dute obrak gauzatu ahala. Dena ondo bidean, uztailean hasiko dira parkinga egiteko zulaketa lanak.

Plaza "zabalak eta erosoak"

Gobernuak bere garaian eman zituen datuak aintzat hartuta, errotazio bidezko 86 plaza izango ditu parking berriak, solairu bakarrean. Plazak, diotenez, "zabalak eta erosoak" izango dira; 2,60 metroko altueran, 5,20 metro luze eta 2,50 metro zabal izango ditu plaza bakoitzak eta barruko izarobideak 5,20 metro zabal izango dira. 86 plaza horietatik hiruk elektrizitate-kargarako aukera izango dute, etorkizuneko auto elektrikoek begira.

Erramu Zapatuko feria, bertan

Epe motzera itzulita, apirilaren 13an egingo den Erramu Zapatuko feria seminarioko patioan egingo da, horretarako beharrezkoak diren segurtasun neurriak hartuta eta lanek hartuko duten eremua txikituta. 2020an Bideberrira pasatuko dute feria.



Auzotarrak elkartzeko plaza ireki bat izateari eman zaio lehentasuna Uberan; Aste Santurako amaituko dira lanak. JOKIN BEREZIARTUA

Berrituta, Uberako plaza topaleku izatea gura dute

Plaza berritu eta espazio irekiari lehentasuna emateko obrak hurrengo bi asteetan amaitzea aurreikusten du Udalak; azken urteetan aparkaleku erabilera izan duen plazak garai bateko topaleku izatea gura du berriro, Iñigo Barruso auzo alkatearen arabera

Jokin Bereziartua BERGARA

Urtarrilaren 27an San Paulo jaiak bukatu eta egun gutxira hasi ziren Uberako plaza berri-
ro urbanizatzeko lanak. Udal Gobernuko ordezkariak martitzen iluntzean egon ziren Uberan, obrei jarraipena bertatik bertara egiteko, eta jakinarazi zuten Aste Santuko oporren aurretik obra amaituta egotea aurreikusten dutela. "Espero dugu lanak hurrengo bi asteetan amaitzea; hasieran, atzerapen txiki bat izan genuen, baina obra arazo handirik gabe eta epe barruan joan da", adierazi du Obra eta Zerbitzuetako zinegotzi Lander Arregik.

Lehentasuna plaza irekiari

Plaza berritu dute eta beste era batera antolatuta dute; ibilgailuen zirkulazioa bideratu dute eta plaza irekiari eman diote lehentasuna. Hala ere, bestelako lan batzuk ere egin dira: autobus geltokia eta edukiontzien gunea tokiz aldatu dira; errepidearen

bestaldeko etxeen sarbideak indartu dira; umeendako jolas parkea berritu egin da eta leku berean mantendu –auzotarren artean eztabaida egon zen umeendako jolas tokia elkartearen atarian jarri behar zen edo orain arte egon den lekuan mantentzea zen egokiena, eta leku berean uztea izan da, azkenean, hartu duten erabakia–; eta frontoira-ko eta elkarterako irisgarritasuna bermatu egin dira.

Proiektua Biark arkitektura enpresak idatzi zuen eta lanak Sasoi eraikuntzak enpresari adjudikatu zizkion Udalak, 204.872 eurotan. Lau hilabeteko iraupena aurreikusitako obrari eta, esandako moduan, epe barruan doaz.

SASOI ERAIKUNTZAK ENPRESA ARI DA OBRA EGITEN, 204.872 EUROKO AURREKONTUAREKIN

Auzo alkatea, "pozik"

50 etxetan banatuta, 150 bat auzotar ditu gaur egun Uberak. Auzoko alkate Iñigo Barrusok gogoratzen du orain eraberritu den plaza auzolanean egin zela aspaldi: "Plaza inguruan hiru erreka elkartzen ziren lehen, eta lautada bat sortu zen. Egin zenean bazuen erabilera, orduan askoz auto gutxiago egoten zirelako. Baina urteekin oso deserosoa bihurtu zen plaza; auzotarrondako ez zen egoteko leku bat, aparkaleku soil bat baizik".

Emaitzarekin gustura dago Barruso: "Pozik gaude, gure plazak lehen ez zuelako inongo praktikotasunik. Biltzeko lekuri ez badugu, auzotarrak base-
rritik Bergarara jaitziko dira zuzenean eta han egingo dute bizimodu guztia. Auzo txikietan biltzeko lekuak izatea garrantzitsua da; hemen tabernarik ez dago, elizara jende asko ez da joaten eta geratzen zaigun bakarra elkarte, frontoia eta plaza bera dira".



NIRE USTEZ

MIGUEL LAZPIUR

Gure etorkizunari begira

Gizarte demokratikoetan, hauteskundeak hurbiltzen direnean, gure egunerokoa aldatu egiten da; eta, are gehiago, orain bezala, askotariko aldaketetan murgilduta gaudela. Horrez gain, aldaketa politiko handiak ikusten ari gara; mota askotariko alderdiak eta agintariak boterea hartzen ari dira, eta, gainera, beste aldaketa batzuk ere badira: automozioan, energian, komunikazio munduan... Horrek guztiak ziurgabetasun handia sortzen du.

Egoera honetan egonda, ez da erraza jakitea urte batzuk barru gizarte honek zer norabide hartuko duen eta non egongo den. Eta, are gutxiago, egoera honi aurre egiteko zer egin behar dugun. Baina argi daukat zaindu beharreko gauza batzuk badauzkagula: industria, teknologia, lehiakortasuna, hezkuntza, gure kultura... Alor horietan, munduan lehenengo tokietan egon behar dugu.

Gizarte aurreratu bat izan behar dugu gure produktuetan, lehiakorrek, arduratsuak, kultura hori zaintzen, hobekuntza sortzen, baina ardurarekin.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Txoriendako etxeek arrakasta izan dute



Ipintza Institutuko hainbat zuhaitzetan txoriendako etxetxoak egin dituzte eta, herritar batek jakinarazi duenez, txoriei gustatu zaie. "Etxe horietako bat, behintzat, okupatuta dago dagoeneko!"

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.

600 sinadura batu ditu Xaxauk dirulaguntza handitzeko, oraingoz

Joan den asteburuan, sinadura bilketa abiatu zuen Xaxau jai herrikoien konpartsak ekainaren 7an hasiko diren Pentekosteei begira Udalarri eskatzeko dirulaguntza handitu dezala: "Xaxauk adin guztiei zuzendutako hainbat emanaldi eta ekintza antolatu izan ditu, bai Bideberriko txosnagunean eta baita herriko kaleetan ere. Udalak proiektu

hau aurrera eramateko dirulaguntza eman izan du, baina azken bost urteetan laguntzak ez du igoerarik izan, ezta KPIaren igoeraren arabera ere". Xaxauk aditzera eman duenez, oraingoz, 600 bat sinadura batu dituzte; egunean 300 bat batu zituzten, egubakoitz iluntzean 250 inguru eta zapatuan 50 bat. "Ahalik eta sinadura gehien" batzeko asmoa dutenez, jakinarazi dute gaur eta bihar iluntzean ere sinadura gehiago batzen egongo direla, Iranan.

Rokodromo "erabilgarri" baterako negoziazioetan

Labegaraietako kiroldegia berritzeko behin betiko proiektuan "rokodromo duin bat" jasotzea eskatzen dute eskalatzaileek, "aspaldiko" euren eskaerak aintzat hartuta; Udalak dio "batzar pila bat" egin direla eurekin eta azken detaileak oraindik zabalik daudela

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergarako eskalatzaileek salatu dute Udalak ez duela aintzat hartu euren iritzia Labegaraietako kiroldegia berritzeko proiektuan. "Rokodromoaren kudeaketa eta mantentzea eskalatzaileon ardura izan da betidanik, eta Udalarekin harremana formalizatu gura dugu. Proiektuaren bueltan izan ditugu elkarriketak eta bilerak, baina aspaldi honetan ez digute aurrerabiderik ematen, eta badakigu beste kirol klub batzuekin hitzartu dituztela hainbat gai. Badirudi aintzat hartzeko azken kluba garena".

Egunoak baino metro koadro gehiago izatea eskatzen dute, eta ahalik eta erabilgarriena izan dadila: "Kristalera bat jarri gura dute eta uste dugu estetikara begirako neurria dela. Rokodromoa erabilgarri izatea izan beharko litzateke lehen irizpidea". Gaur egun rokodromo "hotza, zaratsua eta zikina" dutela diote eta berri bat eginez gero urte luzez iraun beharko duela jakinda, ahalik eta ondoen egitea eskatzen dute. "Orain arte jasotako erantzunek ez dituzte gure kezak lasaitu".

"Batzar pila bat egin ditugu"

Udaleko Kirol Zerbitzua "harrituta" dago eskalatzaileen sala-



Rokodromo duina eskatzeko eskalatzaileen artxiboko argazki bat. J.A.

ERABILGARRIA IZATEA ESKATZEN DUTE, ETA UDALAK DIO ORAINDIK BILEREK AURRERA JARRAITZEN DUTELA

ketarekin, "batzar pila bat" izan dituztela argudiatuta: "Udala prozesu guztian etengabeko harremanean aritu da eskalatzaileen ordezkariekin, beste talde batzuetako ordezkariekin bezala. Ulertu beharko dute

proiektuak osotasunean beste hainbat kirol diziplina ere hartzen dituela bere baitan". Udalak gaineratu du adostasunerako bidea zabalik dagoela: "Hasieran egin genien proposamenari aldaketak planteatu zizkieten. Gero, bigarren planteamendua proposatu genien eta horren gainean ere aldaketak eskatu zituzten; gaur da eguna Labegaraietako kiroldegia proiektuaren detaileak zabalik daudela eta hirugarren aukera baloratzen ari garena. Bilerek jarraitu egiten dute".

Senegalen "bestelako oporrak" bizi izateko aukera abuztuan

Ndank Ndank-en programa baten barruan kokatzen da ekimena; apirilaren 12an Irizarren elkartuko dira (18:30)

J.B. BERGARA

Lehenengoz antolatutako ekimen berezi batekin dator Ndank Ndank elkartea. Izan ere, abuztuan bi aste "bestelako oporrak" bizi izateko aukera eskainiko die aurtun hamabost bat laguni. Elkarbizitza eta lankidetzaz oinarrituta, Dionewarren (Senegal) lau motatako ekintzak antolatu dituzte: umeen eskolako eraikina egiten hasi; 6 eta 12 urte arteko umeekin aisialdi programa egin; kulturartekotasuna eta sensibiltasun lantzeko tailerrak -artisautza, musika senegaldarra,

emakumeen kooperatibara bisita, gastronomia-tailerra, bideo-foruma...; eta Dionewar eta inguruko natura baliabideak ezagutzeko irteerak. Bergararrek izango dute lehentasuna.

Programan parte hartzeko prezioa Ndank Ndank-ek Udalaren partetik jasotzen duen dirulaguntzaren arabera izango da. Oraindik ez dute tramite hori egin, baina diote espero dutela laguntzaren bat jasotzea. Ekimenaren berri emateko saio irekia antolatu dute apirilaren 12rako, Irizarren (18:30).

OHARRAK

Adinekoei begirako osasun saioa anbulatorioan

Nire osasuna kudeatzen izenburupean, 59 urtetik gorakoendako saioa egingo dute apirilaren 12an anbulatorioan (11:00).

Pol-Poleko beteranoen irteera domekan

Murgian hasi eta bukatzen den irteera egingo dute etzi: Jugatxi basoa, Arkimelo tontorra eta Oro santutegia zeharkatuko dituzte. Frontoian elkartuko dira (08:00); prezioa 20 euro da.

Bidegorria amaitzea eskatzeko aldarrikapena

Antzuola eta Bergara artean bizikleta martxa egingo dute bihar, bidegorria amaitu dezatela eskatzeko. Bergararrak San Antonion elkartuko dira (11:30); antolatzaileek gorritz janztea eskatu dute.

Jardunen ludotekak: apirileko ekintzak

Osintxun, Angiozarren eta Okendon askotariko ekintzak izango dira. Hori bai, hiru ludoteketan errepikatu den ekintza izango da Korrikari ongietorria egitea, apirilaren 12an.

Oparitu Zuhaitz Bat ekimenaren beste saio bat

Apirilaren 11n elkartuko dira, Udal Liburutegian, 19:30ean.

Rokodromoa 2020an berrituko dute

Labegaraietako kiroldegia berritzeko lanetan, aurtun biltegi zaharra botatzen hasiko dira eta modulu berria eraikiko dute; hor joango dira piraguismorako biltegia, aldagelak eta makinagela. Barruko lan aipagarrienak 2020an hasiko dira; kantxa eta rokodromoa berritzea, tartean. Udalak ia 600.000 euroko dirulaguntza jaso du Diputazioaren partetik lanok egiteko.



Gaur egungo rokodromoa "hotza eta zaratsua" dela diote eskalatzaileek. J.B.

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8,
943 76 59 54 BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



Mikel Aristi, ezkerrean, Kataluniako Itzuliko etapa batean, esprintean. EUSKADI MURIAS

"Garaipenaren bila noa Frantziako klasikoetara"

Mikel Aristi bergararra ez da Euskal Herriko Itzulian izango, eta horren ordez, datozen egunetan Frantziako hainbat klasikotan parte hartuko du; gaur, adibidez, Route Adelle de Vitre lasterketan izango da, eta domekan, berriz, La Roue Tourangelle proban

Eneko Azurmendi BERGARA

Aurten zazpigarren denboraldia du profesional mailan Mikel Aristi txirrindulari bergararrak, eta inoiz baino maila hobea ematen ari da. Horren adibide dira Kataluniako Itzulian esprintean lortu dituen bi bosgarren postuak. Kontuan hartu behar da, gainera, World Tou-

reko lehen itzulia duela. "Paris-Roubaix bi aldiz egin dut, baina World Tour mailako lehen itzulia izan da niretzat Kataluniakoa. Ez nuen oso ondo ezagutzen lasterketa hauetan zegoen maila. Baina, egia esan, oso pozik nago egiteko gai izan naizena-ekin. Pozgarria da niretzat, urtetik urtera hobetzen ari naiz,

eta aurten ere nabaritzen dut aurrerapauso bat ematen ari naizela. Hasiera ona eman diot denboraldiari, momentu onean nago, eta ea maila honetan jarraitzen dudana", azaldu du.

Denboraldi hasiera bikain honen ostean, Frantziako klasikoetarako bidea hartua du dagoeneko Aristik. "Orain arte

egin ditudan lasterketekin oso gustura nago. Orain, lasterketa politikak ditut aurretik, eta gogo handia dut errepidera ateratzeko. Ea lehen aipatutako aurrerapauso hori emaitzen bitartez islatzeko gai naizen", dio.

La Route Adelle de Vitre lasterketan ariko da gaur, egubakoitza, eta domekan, berriz, La Roue Tourangelle proban. Gero, atsedean hartuko du, eta astebe- tez ez du lasterketarik edukiko. Ondoren, Paris-Camembert, Finisterre Itzulian eta Tro Bro Leon lasterketan ariko da. "Oso lasterketa politikak dira, nire ezaugarriekin bat datozenak, eta nik uste dut maila onean ibiltzeko moduan izango naizela. Iaz seigarren egin nuen Tro Bro Leonen, eta aurten hori hobetzeko helburuarekin noa. Taldeak emaitza onak eskatu dizkit, eta emaitza onak bakarrik ez, nik garaipenak nahi ditut", azpimarratu du, baikor.

Etza etxeko lasterketan izango

Euskal Herriko Itzulia astelehe- nean abiatuko da Zumarragatik. Bergararra, hala ere, ez da irteera puntuan izango. "Penaz nago. Etxeko lasterketa izateaz gain, aurtengo edizioko bi etapa begiz jota nituen. Baina hala suertatu da, eta dudak guztia emango dut Frantziako klasikoetan". Ez da sekula Itzulian izan. "Datorren urtean izango naiz, seguru. Badaukat gogoia. Azken finean, etxeko lasterketa

da, eta familia, lagunak eta guz- tiak bertan dituzu. Horrez gain, txikitatik gertutik jarraitu dudak lasterketa da, bai telebistatik bai bide bazterretik. Beraz, ilu- sio handia egingo lidake, baina gaur-gaurkoz helburuak beste batzuk dira eta datozen urtee- tarako utzi beharko dugu Euskal Herriko Itzulia".

Aurtengo edizioa oso irekia ikusten du Aristik. "Zeresan handia emango du aurtengoak. Goi mailako ziklista asko daude, eta talde oso indartsuak ariko dira lehian. Ikusiko dugu zer gertatzen den". Zail ikusten du taldekideren batek garaipenik lortzea, nahiz eta oso ondo ikus- ten duen taldea. "Esan moduan, oso maila oneko txirrindulariak daude, eta ea zer egiteko gai diren. Seguru oso lan ona egin- go dutela", gaineratu du.

Euskadi Murias, oso indartsu

Iazkoa "zoragarria" izan zen. Baina aurten, oraingoan, hobeak dira emaitzak. "Iaz garai haue- tarako oraindik garaipenik gabe geunden eta aurten dagoeneko hiru garaipen ditugu, maila ho- bea eskainita, gainera. Taldearen dinamika oso ona da".

WORLD TOURREKO LEHEN ITZULIA IZAN DU KATALUNIAKOA ARISTIK, ETA MAILA BIKAINA ERAKUTSI DU



BERGARAKO SHOTOKAN

Emaitza onak Gipuzkoakoan

Pasa den asteburuan Gipuzkoako Karate Txapelketan emaitza onak eskuratu zituzten Bergarako Shotokan taldeko karatekek. Kirol Eskolan, Kumite modalitatean, Ariane Martin txapeldun izan zen eta Iraia Aragones eta Oihan Perez txapeldunorde. Katetan, Beñat Villar

bigarren geratu zen eta Danel Fernandez hirugarren. Federaziokoan, kadete mailan, Ainhoa Salillas, Naia Perez eta Nora Linazisoro, Gipuzkoako Txapeldunak izan ziren, Saioa Leturia bigarren sailkatu zen eta Nahia Etxarri, hirugarren.

Pantaila erraldoia domekako finala gertutik jarraitzeko

Azken lau urteetan Binakako Txapelketako finalean izan da Beñat Rezusta, eta dagoeneko ohitura bilakatzen ari da etxeko pilotariaren final handiak pantaila bidez jarraitzea. Aurten ere, beste urteetan moduan, pantaila erraldoia jarriko dute Udal Pilotalekuan. Herrikidearen partidua bertan ikusteko interesa dutenek gonbidapena eskuratu beharko dute Agorro- sinen edo Udal Pilotalekuan.

Finala Bilboko Bizkaia fron- toian izango da, Danel Elezkano eta Beñat Rezusta, Iker Irribarria eta Jose Javier Zabaletaren aurka. Jaialdia 17:00etan hasiko da, eta bigarren partidua izango da finala -ikus 38. orria-.

Partidu garrantzitsua du domekan Soralue Bergarak Urnietan

Pasa den asteburuan Pulpo tal- dearen aurkako partidua iraba- zi ondoren, sailkapeneko lauga- rren postuan dira bergararrak, eta kontutan hartuta lau lehenak sailkatzen direla Euskadiko Txapelketako igoera faserako, postu horri eusteko ahaleginak egingo dituzte azken jardun- dian. Ez dute, ordea, nolanhiko aurkaria izango. Hirugarren postuan dagoen Urnietaren etxean jokatu dute domekan, 11:30ean. Haritza Eibarren eta Elgoibarren arteko partidua ere erabakigarria izango da, Josetxo Muniategirenek galdu ezker- o. "Taldea gogotsu dago denbor- diari bukaera bikain bat ema- teko", dio entrenatzaileak.



Lou Olangua, 80ko hamarkadako abeslari zarauztarra. LOU DANTZAN JO TA KE

Euskal rockaren abeslari aitzindaria ezagutzen

Gaur, barikua, 'Lou. Dantzan jo ta ke; oinak lehertu nahian' dokumentala aurkeztuko dute kartzela zaharrean; Lou Olangua 80ko hamarkadako abeslariaren bizitza jasotzen duen dokumentala da, lagunaren eta adituen testigantzetan oinarritua

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA
Lou. Dantzan jo ta ke; oinak lehertu nahian dokumentala aurkeztuko dute gaur kartzela zaharrean. Lou Olangua abeslaria nor zen ezagutzeko aukera egongo da, eta musikaren munduan egin zuen ekarpena ezagutzeko.

Usua Garin, Andrea Lopetegi eta Izotz Barrio zarauztarrak izan dira dokumentalaren egileak. "Gure herrikidea zen Lou, eta konturatu ginen ez genekie la gauza askorik hari buruz, ez zela ondo ezagutzen haren figura", dio Barriok.

Hori horrela, Zarauzko Udaren beka bati esker dokumentala egitea erabaki zuten.

Inguruko testigantzak

Ordubete inguru irauten du filmak, eta Olanguaren inguruko eta musika munduko adituen testigantzak jasotzen ditu. "Hamar lagun testigantzak jaso ditugu dokumentala egiteko", azaldu du Barriok. Testigantzak euskaraz eta gaztelaz

jasotakoak izan arren, euskarazko azpigituluak ditu lanak.

Dokumentalaren helburua Lou Olangua izan zena eta hark egin zuena "ezagutzera ematea" izan dela diote egileek.

Abeslari aitzindaria

Olangua nolakoa zen galdetuta, Barriok ez du zalantzarik: "Aitzindaria izan zen 80ko hamarkadan. Izugarria zela esan daiteke; zerbait buruan sartzen zitzaionean, aurrera egiten zuen, beldur barik".

Euskal rockaren lehenengotarikoa emakumezko ahotsa izan zen 80ko hamarkadan. Hume-decidos, OK Korral eta Las Lagartas taldeetako abeslaria izan zen. "Ahots bat baino askoz ere

AHOTS BAT BAINO ASKOZ GEHIAGO ZEN; PROBOKATZAILEA ZEN, BAI ESTETIKAN, BAITA JARRERAN ERE

gehiago zen: probokatzailea, bai estetikan, bai jarreran, oholtzaren gainean zegoenean", dio Barriok. 80ko hamarkadan emakumeek oholtza hartu zuten lekuari buruz ere badihardu dokumentalak. Garai hartan jarrerak eta estetikak izan zuten garrantzia nabarmentzen da, besteak beste.

Barriok gaineratu du uste dena baino eragin handiagoa izan zuela Olangua musikaren munduan; eta, gaur egun ahaztuta dagoen arren hark egindako lana, "ibilbide oparoa" izan zuela. Dokumentalak bitxikeriak ere jasotzen ditu: "Testigantzez gain, dokumentalak jasotzen ditu argitaratu gabeko abestiak".

Afaria eta solasaldia

Kartzela zaharrean egingo dute emanaldia eta solasaldia. 21:00etan afaria egingo dute eta ondoren, 22:00etan, dokumentala proiektatuko dute. Proiektioaren ondoren, egileekin solasaldia izango da.



Enrike Txurruka Bergarako banda zuzentzen, urtarrilaren 27an. GOIENA

Kontzertu pedagogikoa eskainiko du Musika Bandak

Enrike Txurrukak zuzenduko du kontzertua eta Igor Larrañagak aurkeztuko du; 12:30ean izango da saioa

A.E. BERGARA

Apirilean musika ekimenaren barruan, gazteei zuzendutako kontzertu pedagogikoa eskainiko du Musika Bandak. Emanaldia 12:30ean izango da, Udal Pilotalekuan.

Instrumentuak aurkeztu

"Bandako musika instrumentuak aurkeztuko ditugu; eta ahalegin berezia egingo dugu hain ezagunak ez direnak aurkezten, horien ezaugarriak eta funtzioak azalduz. Horretarako, umeentzat eta gaztetxoentzat ezagunak diren abesti batzuk moldatu ditu-

gu", azaldu du Enrike Txurruka bandako zuzendariordeak. Domezkan, baina, Txurrukak berak zuzenduko du emanaldia.

Kalejira eta kontzertua

11:00etan, kalejira egingo du Musika Bandak, eta kontzertua 12:30ean izango da. Igor Larrañagak aurkeztuko du saioa. Aukeratutako piezak dira: *Panpoxa*, X. Zabalarena; *Elkartasuna*, P. Reparazena; *Lis Escoubo*, J. V. Der Roost-ena; *Procession of the Sorcerers*, R. Buckley; eta *Ahoa bizi, belarria prest*, Urbietarena eta Zabalarena.

Dynamo zineklubak 'La vida de Brian' film ezaguna eskainiko du

Gertu du kartzela zaharreko Dynamo zineklubak apirilako eskaintza. *Erlijioa* da hil honetarako aukeratu duten gaia. Apirilaren 10ean, *La vida de Brian* filma eskainiko dute; apirilaren 17an, *Los dioses deben de estar locos*; eta apirilaren 24an, *Spotlight* filma.

Eguaztenetan izango dira emanaldiak, 21:00etan. *La vida de Brian* (1979) oso ezagun egin zen estreinatuta zuten urtean. Monty Python talde ezagunaren hiru garren film luzea izan zen, eta Jesukristo jaio zen egun berean jaio zen judu baten istorioa kontatzen du. Hain zuzen, umorea eta musika ardatz hartzen dituen filma da hori.

'A rapa das bestas' eguneko argazkiak ikusgai Aroztegin

Javier Ortiz argazkilari tolosarraren lana Aroztegin dago ikusgai apirilaren 14ra arte. Sabucedon (Pontevedra), La Estrada udalerrian uztailen zehar hiru egunez urtero ospatzen den festaren izena da *A rapa das bestas*. XVIII. mendeko festa da aipatutakoa; zaldiak, behorrak eta moxalak menditik jaitsi, zurdak moztu eta moxal gazteak markatzeko jaia izaten da. Hala, ospakizun horren bueltan egindako argazkiak dira aipatutakoak. Mendian libre bizi diren zaldien, behorren eta moxalen jarrera basatia ikusteko eguna, *curro* izeneko itxituran sartu ahal izateko. 50 urteko ibilbidea du Ortzi argazkilariak.



Hotz Oñati egiten ari den produktuen bilketan atzo, eguena. O.E.

Produktuen bilketa ari da egiten Hotz Oñati

Jakiak eta higienarako produktuak batzen ari da, atzo ezker, Hotz Oñati elkarte herriko bost supermerkatutan. Ia 100 herritar ari dira boluntario moduan bilketa antolatzen. Batutako guztia Greziako errefuxiatuen gunera bidaliko dute

Oihana Elortza OÑATI

Janari eta garbitasun produktuen bilketa egiten ari da egun hauean Hotz Oñati. Eguenean hasi ziren eta bihar, zapatua, arte izango da bilketa. Greziako errefuxiatu-guneetara bidaliko dute batutakoa. "Ikaragarria da herritarren elkartasuna. Eguen goizetik ari gara kaxak batzen. Oso pozik gaude, oso", zioen Hotz Oñatiko Edurne Bikuñak eguen eguerdian.

Produktuak

Herriko supermerkatuetan ari dira bilketa egiten: Lezesarri eta Errekaldeko Eroskin, Super BMn, Errekaldeko dendan eta San Miguel Kooperatiban. Eta batu gura dituzten produktuak bi multzotan banatuko dituzte: elikagaiak, batetik -dillistik, babak, garbantzuak, arroza, makarroiak, arrain, barazki eta lekale kontserbak txerrikirik gabe-, olioia eta haurrentzako esne-hautsa eta higienarako produktuak, bestetik -haurren-

tzako pixoihalak, toallatxoak eta konpresak-.

Boluntarioak

Urteko bilketa nagusia da hau Hotz Oñati elkartearendako: hiru egunetan herriko bost supermerkatutan eta eten barik, denden ordutegiaren barruan. Denda guztietan egongo dira bizpahiru herritar jendearen ekarpena batzeko eta kaxetan sartzeko; ia 100 lagun lanean, guztira. "Txanda bakoitzean bi lagun egongo dira, gutxienez. Beste batzuk biltegian egongo dira kaxa guztiak ondo antolatzen eta beste batzuk garraioaz arduratuko dira. Laguntzaile asko behar genituen eta pozik gaude izan dugun erantzunarekin. La-

**HERRITARREK
ERAKUTSI DUTEN
ELKARTASUNA
IKARAGARRIA IZAN
DELA ADIERAZI DUTE**

rrañoako hemezortzi lagun ere gertu daude laguntzeko, eta baita beste sei saharar ere. Asko elkartu gara", dio Bikuñak.

Greziara

Joan den urteko bilketan, ia zazpi tona produktu batu zituzten eta aurten beste horrenbeste, behintzat, jasotzea espero dute. Batutako guztia, hori bai, Greziara bidaliko dute, hango errefuxiatu-guneetan banatzeko. Hain zuzen ere, duela aste batzuk han izan zen Hotz Oñatiko kide Xabi Gesalaga, Lesbosen, Zapareak elkartekoekin, "galdu eragin zaien duintasuna otordu duin batekin bueltarazten laguntzen". Hemendik bidalitako janariarekin otorduak prestatzen ibili da, besteak beste, "sukalde lanak egiten". 1.300 otordu inguru ematen zituen egunero beste hainbat boluntarioekin batera. Hango hainbat errefuxiatuen egoerak ere gertutik ezagutu ditu Xabi Gesalaga oñatiarrak.

Hauteskundeetarako zerrenda aurkeztuko du bihar EH Bilduk

Gaztelekuan izango da, 13:00etan, eta Juan Karlos Izagirre eta Maddalen Iriarte ere egongo dira

O.E. OÑATI

Izaro Elorza da Oñatiko EH Bilduren alkategaia maiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako. Berarekin batera taldea nortzuek osatuko duten bihar, zapatua, esan eta erakutsiko dute. Gaztelekuan egingo dute zerrenda osoaren aurkezpena, 13:30etan. Ekitaldian Juan Karlos Izagirre eta Maddalen Iriarte ere egongo dira.

Talde horrek "etorkizunerako amestutako Oñati gidatuko du arlo instituzionaletik", EH Bilduren esanetan. Hain zuzen ere,

"urtebete iraun duen Harritu prozesuan egindako diagnosi eta amestutako eta irudikatutako etorkizuneko Oñati gidatuko du". Prozesu hori bukatuta, "sarea aktibatu eta zabaldu" egin dutela diote, "datozen urteetan EH Bilduren jardun politikoaren iparra izango dena zehaztuta" dutela eta "ekintza plan hori instituzioetatik bideratzeaz arduratuko den lantaldea osatuta". Hurrengo erronka udal hauteskundeak izango direla adierazi zuten EH Bilduko ordezkariak martitzeneko prentsurrekoan.


50. urteurrena prestatzeko bilera du Oñatzek martitzenean

Datorren urtean, 2020an, 50 urte beteko ditu Oñatz dantza taldeak. Urte berezia izango da eta ekintza bat baino gehiago egin gura dituzte urteurren hori ospatzeko. Antolakuntza martxan jartzeko bilera ireki bat egingo dute apirilaren 9an, 18:30ean, Eltzian, taldearen lokalean. Oñatzen parte izan diren guztiak daude deituta.

Enpresagintzan egingo duten azken odol ateratzea da

Gaur, egubakoitza, egingo dute apirileko odol ateratzea. Azkenaldian egin duten moduan, MUK Oñatin duen Enpresagintza Fakultatean izango da, 17:00etatik 19:00etara. Baina hor egingo duten azkena izango da, tokia aldatu egingo baitute. Datorren hiletik aurrera, maiatzetik, Euskaldun Berria gelan egingo dituzte odol ateratzeak.

GORA ETA BEHERA



SAN MARTINGO BIZILAGUNAK

Autoa marra horien gainean aparkatuta

San Martingo bizilagun batzuek kexa adierazi dute argazkiko autoa marra horien gainean uzten dutelako aparkatuta "goizero". Udaltzainek "ezikusiaarena" egiten dutela gaineratu dute.

Topagunea nola jantzi ari dira erabakitzen

Gune horretan azkar eta arin muntatzen diren altzariak edo moduluak behar dituztela argi ikusten dute, mugikorrek beharko dutela izan. Ekitaldiak egiteko erabiliko da, baina barrura sartzeko gonbidapena ere egin beharko dio guneak bisitariari

Oihana Elortza OÑATI

Eltziako sarreran dagoen espazioak du izena Topagunea. Hutsik dago egun. Harraska, ur beroa eta armairu batzuk daude bakarrik gunearen barrenean, baina espazioak ez du beste elementurik. Eltziako sarrera da, han egoitza duten taldeengana joateko pasabidea.

Bertakoen beharrak

Espazio hori aprobetxatu eta gune horrek bere funtzioa betetzea zen asmoa hasieratik, eta orain, Eltziak zein erabilpen eta funtzionamendu duen ikusita erabaki dute espazio hori jantzea, hornitzea. Horko elementuak, baina, eltziakideen beharrak beteko dituztenak izango dira, eta baita kanpotik etor daitezkeen eskaerei erantzuteko modukoak ere. Eta pisu handiena bertakoen beharrei emanez hasi da lanean talde txo bat. Pez estudioko adituekin batera ari dira lanean. Dagoeneko bi bilera egin dituzte. "Bilera hauetan argi ikusi da gune horretako elementuek mugikorrek izan behar dutela, eta, beraz, gurgilak dituzten moduluen edo piezen alde egin da. Elementu horien materialei dagokien ez ere berba egin da", dio Parte-hartze Saileko udal teknikariak, Onintza Andresek.

Bi gunetan banatuta

Espazioa bi gunetan banatu du talde honek. "Batetik, taberna ondoan dagoen tokia dago. Bestea baino txikiagoa da eta, era berean, zaratatsua ere bai. Beste espazio handia, kristaldegiaren parean dagoena, aldiz, lasaiagoa da. Horrek, baina, erabilera ezberdinak ditu egunaren edo momentuaren arabera, eta unean uneko beharretara egokitze moduko espazioa izango da", adierazi du Andresek.

Bilerak, zuzeneko ikuskizunak, hitzaldiak, erakusketak, taile-



Espazioan bertan egiten dituzte bilerak. A.T.

ELTZIAKIDEEN BEHARRETARA EGOKITUKO DA BAINA KANPOKO ESKAERAK ERE JASOKO DITUZTE

rrak, aurkezpenak... edo eltziakideek antolatzen duten beste edozein ekitaldi egiteko izan daiteke espazio hori. Baina ekin-tza bakoitzak funtzionalak diren bere elementu propioak izan behar ditu. Horiek, aldi berean, azkar muntatu edo desmuntatu daitezkeenak izatea komeni da, espazioa erabili behar duen hurrengoak bere beharretara egokitze. "Nolako argiak beharko diren, agertokiaren tamaina zein izan daitekeen, mahaiak egonez gero nola kokatu beharko diren... halako zalantzak argitzen ibili gara bi bilera horietan. Topagunean bertan egin ditugu bilerak, espazioaren neurriak ikusiz, eta lurtean eta paretetan markak egin ditugu balizko mahai, foku edo beste-lako elementuek zenbat okupatzen duten garbiago ikusteko eta modu batera edo bestera

jarriz gero zenbateko tokia gelditzen den aztertze", dio Parte-hartze teknikariak.

Ekainaren amaierarako

Topagunearen espazio handienak, era berean, Eltzian dauden eragileengana joateko gonbidapena ere egin beharko dio bisitariari. "Barruan zer egongo den adierazi beharko dio sartzeko denari, eta, nolabait, barrura sartzeko bidea zein den adierazi. Bestalde, eltziakideek zer egiten duten adierazten duten elementuak jartzea ere komentatu da bilera hauetan", Andresen esanetan.

Espazio publikoaren kudeaketarako formulak ezagutu zituzten azaroan Eltzian bertan egindako topaketa batean. Bi bilera hauetan gauza asko definitu dituzte eta hirugarren bileran laster egingo dute; horrekin gunearen gutxi gorabeherako diseinua lotuta geldituko da. Bilera horiek eman dutena, baina, Eltziako batzarrera eramango dute taldekideek eta han eman beharko diote oniritzia. Muntaketa nola egin erabaki beharko dute gero. Asmoa da ekainaren amaierarako Topagunea jantzi-eta egotea.

Antzerkirako gonbidapena dakar Korrika batzordeak domekarako

Apirilaren 13an egingo den bazkarirako txartelak salgai daude eta Korrika Txikia prestatzen ari dira

O.E. OÑATI

Oñatiko Korrika batzordeak antolatuta, hiru antzezlan labur egongo dira herrian domekan, apirilaren 7an. Hirurak izango dira 12:00ak eta 14:00ak bitartean eta herriko hainbat gunetan egingo dituzte: Mikel Martinez aktoreak *Tabernaria* bakarrik-eketa egingo du gaztetxean; Irati Agirreazkuenaga eta Arantzazu Sanz liburutegian izango dira *Komunak* lanarekin eta hirugarrena Martinezek eta Agirreazkuenagak egingo dute Elkar Hezin, *Biba Voi*. Hiru

saiok izango dira doan eta irekiak.

Bazkarirako txartelak

Korrika Oñatira iristen denean, apirilaren 13an, herri bazkaria egingo dute gaztetxean, eta txartelak salgai daude Ona eta Arrano tabernetan. Prezioak dira: zortzi euro ikasle eta langabeendako eta hamabi gainerakoendako. Menu begetarianoa ere egongo da bazkari horretan.

Bestalde, herriko hiru ikastetxeen artean egingo da Korrika Txikia apirilaren 12an.

Domekan emango dituzte bertso-paper lehiaketako sariak

Domekan emango dituzte gaztelekuko bertso-paper lehiaketako sariak; hamargarren urtez antolatu dute. Aurten, guztira, 80 bat lan jaso dituzte, hiru ikastetxeetako ikasleek. Gaztetzaren ahalegina azpimarratzeko izan dela adierazi dute antolatzaileek.

Lau kidek osatu dute epaimahaia eta zortzi saridun izendatu behar zituen: bost LH sai-

lean eta hiru DBHko eta batxilergoko ikasleentzako. Sari gazteenak izan dira: Etxaun Lizarralde, Lide Mendarozketa, Irati Mendizabal, Maider Alberdi eta Izaro Elgero eta Naroa Moreno. Nagusienetan, berriz: Aitor Tatiegi, Bittor Zubiagirre eta Lide Arregi.

Sari banaketa 17:30ean izango da, gaztelekuan, domekan, eta Onintza Enbeita bertsoaria izango da sariak emango dituen. Ondoren, merienda egongo da gaztetzaren ondoren.



NIRE USTEZ

AINHOA NEGERUELA

'Schwarzfahrer'

Pepe Danquart-ek, 1992an, zuzendutako film laburra da *Schwarzfahrer*. 11,15 minutu eta zuri-beltzean. Ez dut amaiera kontatuko; beraz, lasai, jarraitu irakurtzen.

Berlineko tranbia batean gertatzen da istorioa, "libre al dago?" galdetzen dionean mutil batek adineko emakume bati eta honek, goitik behera begiratu ondoren, ezer erantzuten ez dionean. Mutila alboan eseri zaio, hala ere, eta jesarri orduko marmarka hasi da emakumea, betiko erretolikari tiraka. Alboko mutilak eta bere modukoek usain txarra dutela, izen konplikatuak dituztela, alferrak direla eta abar aurpegiatuz, baina aurpegira begiratu gabe. Ez dio ezer erantzun, eta kakahueteak jaten eta leihotik begira jarraitu du mutilak, ezer gertatuko ez balitz bezala. Inguruan dituztenek ere ez dute ezer esaten, batzuek begiratu egiten diete eta beste batzuek ezta hori ere. Tranbia geltoki batean gelditu da eta, geroxeago, bere errailen bidean Friedrichshain-erantz abiatu da. Eta orduan iristen zaio filmari semantika linguistikoaren ordua, ordura arte zena ez baita Schwarzfahrer izango eta ez zena, bai. Ezer ulertu ez baduzu, ikusi filma.



Aloña Mendiko jokalaria, Zestoaren aurka Azkoagainen jokaturako partiduan, gol bat ospatzen. IMANOL SORIANO

Aukerekin bueltatu gura dute liderraren etxetik

Denboraldiko une erabakigarrian sartuta dago Aloña Mendi, eta geratzen diren lau partiduetatik bi aurkari zuzenen aurka jokatu dituzte Endika Ruizen mutilek; lehen 'finala' bihar jokatu dute, Azpeitian, Lagun Onak liderraren aurka, 17:45ean

Eneko Azurmendi OÑATI

Lau partiduren faltan, Lagun Onakek 57 puntu ditu, Urolak 56 eta Aloña Mendik 53. Lehenengo sailkatua Erregional Oho-rezko Mailara igoko da zuzenean eta bigarren sailkatuak, berriz, beste multzoko bigarrenaren aurka jokatu beharko du kanporaketa, bi partidutara, igoera lortzeko –etxean eta kanpoan–. Geratzen diren lau norgehiagoka horietatik bi azpeitiarren eta zumarragarren aurka jokatu dituzte oñatiarrek, "onerako edo txarrerako", Endika Ruiz entrenatzailearen esanetan. "Irabazten badugu, borrokan jarraituko dugu eta galtzen badugu, berriz, zail jarriko zaizkigu gauzak. Hiru partiduren faltan alde txikiak ere handiak dira", adierazi du.

Ruizek garbi du dagoeneko ezin dutela hutsik egin. "Gauden lekuan egonda, ez dugu huts egiteko aukerarik. Ez badugu hutsik egiten, aldiz, Urolaren aurkako partidura, azken jar-

dunaldira, bizirik iritsiko gara, eta hori polita izango da".

Horra heltzeko, baina, bihar-ko *finala*-ri egin beharko diote aurre lehenik. "Goiko taldea Hirugarren Mailan dauka Lagun Onakek, baina, bigarren taldea izanda ere, oso maila ona dute. Azpeitiko jokalaria dituzte, gehienbat, gazteak zein esperientzia handiagoa dutenak. Ligako talde onenetakoa da", dio Ruizek. Garmendipe futbol zelaian izango da lehia, 17:45ean.

Denboraldiarekin pozik

Aukerekin iritsi dira oñatiarrak denboraldiko une erabakigarri- ra, eta "pozik" dago Ruiz horrekin. Pena apur bat azaldu du, ordea, etxean "irabazi beharre-

**ENDIKA RUIZ:
"URDURITASUN ETA
EMOZIO HANDIENKO
PARTIDUAK IZANGO
DIRA DATOZENAK"**

koak ziren partidu batzuk" ezin izan dituztelako irabazi. "Hala ere, gure alde esango nuke atzean ere ez garela geratu. Azken tren horiek harrapatu egin ditugu eta borrokan jarraitzen dugu". Taldearen sentsazioak "onak" direla aitortu du. "Momenturik politenak orain datoz, denboraldiko urduritasun eta emozio handieneko partiduak izango dira datozenak, eta partidu hauek jokatu ahal izateko eskubidea guk irabazi dugu. Ilusioz eta gogoz gaude".

Helburua baino gehiago, ilusioa

Entrenatzailearen esanetan, mailaz igotzea ez da helburu bat izan behar, "ilusio" bat baizik. "Ez da mundua bukatzen igoera ez badugu lortzen. Belaunaldi aldaketek eragin handia dute etxeko jokalariekin bakarrik aritzen zarenean, eta hori nabaritu du Aloñak. Baina orain bide onean goaz, taldea geroz eta indartsuagoa da, eta hori izan behar da benetako helburua".

Hernaniren gaurko emaitzaren zain dago Mekalki Aloña Mendi

Tolosako Take Orbela Taberna taldearen aurka jokatu dute Aitor Ugarterenek bihar, Zubikoan, 18:00etan

E.A. OÑATI

STL Azkunereren eta Hernaniren arteko partidua erabakigarria izan daiteke Mekalki Aloña Mendik igoera faserako txartela lortzeko –20:00etan jokatu dute gaur, Donostian–. Izan ere, Hernaniren porrotak automatikoki aukera hori emango lieke oñatiarrei.

Pasa den astean ere izan zuten Ugarterenek helburu hori lortzeko aukera, baina ezin izan zuten Donosti Dolphins taldea menderatu. "Oso partidu lehiatua izan zan. Defentsan asko sufritu genuen, barruan jokalaria indartsuak dituzte eta. Hala ere, azken minutura arte partiduan egon ginen", azaldu du Aitor Ugarte entrenatzaileak.

Taldea, motibatuta

Dolphinsekin aurka erakutsitako maila onak motibazioa eman



Unai Guridi jokalaria. IMANOL SORIANO

dio taldeari, Ugarteren esanetan. "Ikusi dugu talde handien aurka ere lehiatu gaitezkeela, eta horrek konfiantza ematen digu biharko partiduari begira. Irabaziz gero, igoera fasea lasaiago eta hobeto prestatzeko aukera izango dugu", dio entrenatzaileak.

Hil edo biziko partidua domekan, mailari eusteko lehian

Construcciones Aloña Mendik "derrigorrez" irabazi behar du domekan Urdaibai Eskubaloi Taldearen aurka, mailari eutsi gura badi, behintzat. 12:15ean hasiko da partidua, Mundakako Isla Kale kiroldegian.

Aste honetan Euskadiko Eskubaloi Federazioak jakinarazi duenez, hamabitik lau talde izan daitezke maila galduko dutenak,

eta horrek zuzenean eragiten die oñatiarrei, bederatzigarren postuan daude eta, Ereintza Barymont eta Irauli-Bosteko taldeekin berdinduta. Domekako partidua irabaziz gero, ordea, mailari eustea lortuko dute. Izan ere, Ereintza Barymontek eta Irauli-Bostekok elkarren aurka jokatu dute azken partidua.

Galduta ere aukera eduki dezakete helburua lortzeko –Maila Nazionaleko emaitzen arabe- ra–, baina irabaztera irtengo direla azpimarratu dute.

Mendi irteera egingo du Aloña Mendik apirilaren 14an

Apirilaren 11 izango da izena emateko azken eguna, Aloña tabernan edo alonamendi.mendi@gmail.com helbidera idatzita. 10 euro da prezioa eta federatuta egon beharko da. Postetxe pare- tik irtengo da autobusa, 08:00etan. Hau da ibilbidea: Bakaiku-Santa Marina-Baiza (1.182 metro)-San Adrian-Etxarri; 17 kilometro, 800 metroko desnibelarekin.

Herriko Futbol Txapelketako Ligako finalaurrekoak, bihar

Pasa den asteburuan jokatu zituzten Kopako finalaurrekoak, eta finala zehaztuta geratu da: Sasquatch-Larraña. Azken horien "portaera desegokiak" zeresan handia eman zuten finalaurrekoan. Bihar, zapatua, Ligako finalaurrekoak jokatu dituzte. Batetik, Albok-Shatoken Moïra, 11:30ean. Bestetik, Mazedonia-Txuskos, 13:00etan.

"Oso pozik" Beratuk aurten eman duenarekin

Bigarrenez egin dute Beratu jaialdia. Aurten iaz baino ekitaldi gehiago izan dira eta antolatzaileak "oso pozik" agertu dira jaialdiak eman duenarekin, ekitaldiek harrera ona izan dutelako. Aurrera begira, ikasten jarraitzeko gogoz azaldu dira

Maialen Regueiro OÑATI

Martxoaren 29tik 31ra bitartean izan da Beratu jaialdiaren bigarren edizioa. Aurten, iaz baino ekitaldi gehiago egin dituzte eta antolatzaileek adierazi dute jaialdiak orokorrean harrera ona izan duela. Edizio honen helburua musikara beste modu batzuetatik gerturatzea izan da, eskaintza zabalduz eta agertoki berriak proposatuz. Jaialdi hau antolatzen arituen Arkaitz Villarrek, gainera, honako hau adierazi du: "Aurtengo jaialdia aurrera eramateko lantaldea osatu dugu eta hura sendotzea izango da hurrengo erronka, baina, momen-



Usopop jaialdia San Martin ermitan. IMANOL SORIANO

tuz, aurtengoak eman duenarekin oso pozik gaude, agertoki desberdinetan jendea aritu dela ikusi dugulako". Balorazioa egiteko orduan, ez dute ekitaldi bakarra nabarmendu, baina aurrera begira ikasten jarraitzeko gogoz azaldu dira.

Leire Palacios eta Olatz Salvador musikariek kultura etxean eskainitako hitzaldi musikatuak ireki zuen jaialdiko egitaraua, egubakoitzean. Horrez gain, gauean Ainara Legardon taldearen kontzertua izan zen gazte-txean.

Musika eskaintza zabala

Zapatuan ere musika eskaintza zabala izan zen. San Lorentzo auzoko ermitan aritu ziren Madeleine taldea eta Juan Valls Trio arratsaldeko kontzertua eskaintzen. Gauean, aldiz, Gaztelekuan aritu ziren Elena Setien, Vulk eta Atom Rhumba taldeak.

Bukatzeko, domekan ere ez zen musika emanaldirik falta izan: hain zuzen ere, Lazarragan izan zen goizeko kontzertua eta San Martin ermitan, berriz, Usopop jaia egin zuten arratsaldean.

Laburbira hilaren 11n iritsiko da kultur etxeko zine aretora

Martxoaren 18tik apirilaren 17ra bitartean, Laburbirak 35 herri bisitatuko ditu eta hilaren 11n iritsiko da kultur etxeko zine aretora. 20:00etan hasiko da berderatzi film laburren emanaldia. *Begi ninien koreografia*, *Shell Phone*, *Ama*, *Zapatak*, *June*, *Ilunpean*, *Hotzean garbitu*, *Erroak* eta *Handiak eta txikiak* dira ikusiko diren lanak.

Hezurbeltzak taldearen emanaldia domeka eguerdian

Jon Maia, Gorka Hermosa eta Jesus Prieto *Pitti* hirukoteak osatutako Hezurbeltzak taldeak kontzertua eskainiko du igandean gaztelekuan, 12:30ean. *Belarri-motzak* izeneko lana kaleratu zuten abenduan eta, hain zuzen ere, disko horretako kantak aurkeztuko dituzte. Kontzertua ikusteko sarrerak 5 eurotan eros daitezke.

www.korrika.eus

Kliika

aek

21. korrika

2019ko apirilaren 4tik 14ra

GARESTIK GASTEIZA

"Atzelarien artean dago eskuz binakako finala"

PILOTA Domekan Bilboko frontoiko harmailak goraino beteko dira Eskuz Binakako Txapelketako finala ikusteko —Bergaran pantaila erraldoia jarriko dute—. Jarraian jokatu duen laugarren finala da Rezustarendako; gutxik lortu dute hori

Xabier Urzelai ARRASATE

"Binakako finala atzelarien artean dagoela uste dut". Aspeko kirol zuzendari Jokin Etxanizen aste barruko adierazpenak dira; alegia, neurri handian, Jose Jabier Zabaletaren edo Beñat Rezustaren lanak mugitu dezakeela domekan balantza alde batera edo bestera. Atzelariendako seinale ona da hori, lau eta erdikoan edo banakakoan izaten ez duten protagonismoaz jabetu dira eta. Eta Rezustak berak hainbatetan aitortu du hori bera, binakakoa atzelariendako erakuslelhoa dela, beste bi txapelketa nagusietan gaitzagoa delako, euren ezaugarriengatik, nabarmentzea.

Hala, esan bakarrik ez, bete ere egin du, azken lau txapelketetako finalak jarraian iritsi da-eta Rezusta bergararra, eta oso gutxik lortu dute hori aurretik; Retegi II.ak eta Arretzek baino ez. 2017koa irabazi zuen, Irribarriarekin.



Zabaleta eta Rezusta atzelariak, Bergaran, txapelketa hasieran. IMANOL SORIANO

"Gustura" pilotekin

Atzo, eguna, aukeratu zuten materiala, lehia jokatu den leku berean, Rezustak, Elezkanok, Irribarriak eta Zabaletak. Gustura geratu ziren lau pilotariak. Gertatzen dena gertatzen dela

ere, materiala "aitzakia" ez dela izango esan dute pilotariak.

Partidu nagusiaren aurretik, Altuna III.a-Martija eta Urruti-koetxea-Imaz bikoteek jokatu dute. Jaialdia 17:00etan hasiko da, Bizkaia pilotalekuan.


"Rezusta indartsu eta motibatuta ikusi dut entrenamendu saioetan"

AITOR MENDIZABAL ASPEKO PILOTARIA

Gutxi egongo dira Aitor Mendizabalek (Antzuola, 1989) baino informazio gehiagorekin domekako finalaz berba egin dezaketena, antzuolarrak domekako protagonistekin entrenamendu saioak partekatu ditu eta. Bestalde, buruz burukoan egongo ez delako pena hartu duela aitortu dio GOIENARI: "Ilusio hori izaten dugu".

Zelan ikusten duzu binakako finala?

Finala orekatuta dagoela uste dut, jakinda Zabaletari eta Irribarriari irabaztea ez dela



AITOR MENDIZABAL

gauza batere erraza, kolpe izugarriarekin daude eta. Baina, Elezkanoren eta Beñaten finalerdietako azken partidua ikusita, eta aste barruan ikusi dudana erekin, badut esperantza.

Zer da, ba, aste barruan ikusi duzuna?

Atzo [martitzena] Tolosan izan nintzen Beñatekin batera arlo fisikoa entrenatzen, eta sasoi onean ikustearekin batera oso motibatuta ikusi nuen. Gainera, azken partidua utzitako zapora onak eragina izaten du; nik aukerak ikusten dizkiet.

Arlo pertsonalean, zer moduz?

Bueno, gu enpresarendako lan egiten dugun pilotariak gara, eta enpresak jartzen dizkigun partiduetan neurria ematen ahalegintzen gara. Orain, buruz buruko dator, ez naute txapelketan sartu eta pena hartu dut; azken batean, hori izaten da gure ilusioa. Baina halaxe tokatu da aurtun; lanean jarraitzea egokitzen zaigu.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGION.

Mondra-Mutriku
Domeka. 16:30. Mojategi.
Aretxabaleta-Bergara
Domeka. 16:30. Ibarra.

ERREGIONAL PREFERE.

Aretxabaleta-Urola
Zapatua. 16:30. Ibarra.
Mondra-Getariako
Zapatua. 17:30. Mojategi.
Lagun Onak-Aloña Me.
Zapatua. 17:45. Azpeitia.
Zumaiako-Antzuola
Zapatua. 16:00. Zumai.

OHOREZKO GAZTEAK

Bergara-Aloña Mendi
Zapatua. 17:00. Agorrosin.
Mondra-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Mojategi.

EMAKU. OHOREZKO E.

Atsedena dute.

EMAKUM. GORENGO M.

Añorga-Aloña Mendi
Zapatua. 17:45. Donostia.

EMAKUMEZKOAK, KOPA

Bergara (atsedena)

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Eskoriatza-Zirauntza
Zapatua. 16:00. M. Muñoz.
Mondrate-Aretxabaleta
Zapatua. 17:30. Musakola

GIPUZKOAKO LIGA

Eskoriatza-Clinica Den.
Zapatua. 18:00. M. Muñoz.

OHOREZKO GAZTEAK

Castro Urd.-Eskoriatza
Zapatua. 16:00. Castro U.

GIPUZKOAKO BIG. MAILA

Egarrri-Mondrate
Zapatua. 17:00. Billabona.

EMAKUMEZKO SENIOR

Eskoriatza-Ordizia
gaur. 22:00. M. Muñoz.

GAZTEAK, GIZONEZKOAK

Aloña Mendi-Arantzaz.
Domeka. 12:00. Zubikoa.

Eskoriatza-Getariako
Domeka. 12:00. M. Muñoz

SASKIBALOA

EBA MAILA

Valle Egues-MU
Domeka. 12:30. Sarrigu.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA

Loiola Indautxu-MU
Zapatua. 12:30. Bilbo.

EUSKADIKO BIG. MAILA

Ibaizabal-Alkideba Oin.
Zapatua. 16:00. Galdakao.

GIPUZKOAKO SENIOR.

Mekalki Aloña-Take O.
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

SENIOR BIG. MAILA

Antigua-Bergara Sora.
Zapatua. 20:00. Donostia.

SENIOR HIRU. MAILA

Kurkubi-MU C
Gaur. 20:00. Lezo.

Zalburi-Mekalki Al.

Gaur. 19:30. Deba.

SENIOR EMAKUMEZKO.

Eskoriatza-Goierri
Gaur. 20:15. M. Muñoz.

ESKUBALOA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Fagor Indus.-Ford Mu.

Domeka. 12:15. Iturripe.

EMAKU. EUSKADIKO TX.

Urdaibai-Aloña Mendi

Domeka. 12:15. Mundaka

GIPUZKOAKO TXAPELKE.

Urnieta-Soraluce BKE

Domeka. 11:30. Urnieta.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Gaztedi-Kanpan. ART

Zehazteke.

ZIKLISMOA Berbaldia potentziometroan ganean Ibarra

Apirilaren 9rako, martitzena, Ibarra kiroldegian berbaldia antolatuko dute. Aitor Alberdi entrenatzaile nazionalak egingo du berba, eta txirrindularitzako indar watten eta horiek neurtzeko erabiltzen dituzten gailuen —potentziometroa— ganean jardungo du (19:00). Izena ematea komeni da, plaza mugatuak daude eta (943 03 98 42).

PILOTA Apirilaren 30ean hasiko dute Bergara Hiria

Soraluce lau eta erdikoa amaituta, Bergara Pilota Elkarteko lagunek dagoeneko gertu dute apirilaren 30ean hasiko duten Bergara Hiria torneo. Final-laurdenetan hasiko dute txapelketa, hamaseina pilotari batu dituzte promesen eta nagusien kategorian eta partidua martitzenetan jokatuko dituzte, 19:30ean hasita.

ATLETISMOA Gipuzkoako Eskola Arteko txapelketa Mojategin

Domekan, 10:00etan hasita, Eskola Arteko Gipuzkoako Txapelketak jokatuko dituzte Mojategiko kirol instalazioetan. Guztira, 23 proba egongo dira ikusgai eta infantil eta alebin mailetak atletak izango dira bertan. Hala, antolatzaileek 690 kirolari inguru espero dituzte. Arrasate Atletiko Taldeko 28 atleta izango dira bertan.

FUTBOLA Neskendako topaketak hilaren 15ean Aretxabaletan

Arizmendi Ikastolak antolatuta, eta Mondraren, UDAREN eta Real Sociedad Fundazioaren laguntzarekin, hirugarren aldiz neskendako futbol topaketak antolatuko dituzte. Apirilaren 15ean izango dira topaketa horiek, Ibarra futbol zelaian —Realeko entrenatzaileen eskutik—. 8 eta 12 urte bitarteko neskek esku hartu ahal izango dute.

"Bosgarren edizioa mugarrria da guretako"

GANIX LASA MONDRAITZ KLUBEKO KIDEA

MENDI LASTERKETAK Apirilaren 14an Arrasate-Udalatx mendi lasterketak bost urte beteko ditu. Urteurrena ospatzeko, aurreko txapeldun guztiak gonbidatu dituzte

Xabier Urzelai ARRASATE

Apirilaren 14ra begira Mondraitzeko kideak lasterketaren aurretik egin daitezkeen lanak amaitzen dabilta. Bost urte beteko ditu lasterketak, eta aurtengo berezitasunetako bat da Korrikarekin bat egingo duela: "Herriarrak bi ekitaldietan parte hartzera animatzen ditugu, lo gutxi eginda bada ere".

Duela bost urte mendi lasterketekin maiteminduta zeundeten kuadrilla batu zineten herrian lasterketa propioa antolatzeke. Imajinatzen zenuten bide hau egingo zenutenik?

Bada, seguruenik, ez. Arrasatek lasterketa bat merezi zuela sinistuta geunden lagun talde bat elkartu ginen, eta, bost urteren ostean, hemen gaude. Probak geroago eta oihartzun handiagoa du, eta izen-ematea da adierazle bat, geroago eta azkarrago agortzen dira-eta dortsalak. Neurri handian, lasterketa hau erreferentziazko bilakatu da lasterkari askorendako, eta hori



Mondraitzeko kide Ganix Lasa, Udalatx atzean duela. X.U.

guztia guretako oso pozgarria eta aberasgarria da. Babesleen babesa ere nabarmentzekoa da, eta baita herriarrek lasterketa zelan hartu duten. Batetik, 100 boluntario inguru animatzen dira egunean bertan laguntzera,

eta, bestetik, egunean bertan lasterketa ikusten ere jende asko egoten da, kalean, Udal, Udalatxen...

Ezin dugu esan lasterketa poliki-poliki hazten joan denik. Hasieratik egin zenuten apustu sendoa.

Bai, lehenengo egunetik indartsu hasi ginen, garbi geneukan apustu sendoa egin gura genuela. Eta horretarako ezinbestekoa izan zen proiektuko hasierako pausoetarako bidelagun aproposak aurkitzea, eta gaur egun oraindik gurekin jarraitzen dute. Behin hasierako apustu sendoa eginda, urte hauetan detaileak fintzen joan gara, korrikalariei begira, boluntarioei begira... Azken horiek gabe ezinezkoa da Arrasate-Udalatx antolatzea.

Bosgarren edizio honetarako, ze nobedade dituzue?

Egia da urteurren hau mugarrria dela guretako. Orain arte, urte-urte urtera joan gara, baina bosgarren urteurren honetan zerbait berezia egin gura izan dugu. Horretarako, sare sozialetara begira sustapen-bideo bat egin dugu [Goiena.eus atarian dago ikusgai], eta aurreko bost edizioetan lasterketa irabazi dutenak gonbidatu ditugu. Izen guztiak ezin ditut baieztatu, askotan azken ordukoak egoten direlako, baina bi aipatzearen Aritz Egea eta Oihana Azkorbebeitia lasterketan izango dira, mundu mailako lasterketetan aurrean dabilzanak.

Horrenbestez, txapeldunen arteko lehia antolatu duzue.

Bueno, bai, izenburu baterako balio du; kar, kar. Dena dela, datorren astean egingo dugu lasterketaren gaineko aurkezpena, eta korrikalari gehiago baieztatu ahal izango ditugu.

Eurekin batera, ikustekoa da herrian ere zenbat mendi lasterkari dauden, eta ze mailatakoak. Aritz Kortabarria eta Ane Zabala, esaterako.

Aritz Kortabarriaren erretratu bat erabili dugu, hain zuzen, aurtengo lasterketako kartela egiteko. Eta, gainera, esango nuke bost edizio hauetan Kortabarria podiumaren bueltan ibili dela. Ane Zabalar buruz, berriz, zer esan... Iaz, lasterketa irabazi zuen eta antolatzaileei ilusio handia egin zigun herrikide bat lasterketa irabazten ikustea. Plazan helmuga gurtzatu zuen momentua oso hunkigarria izan zen.

Asteburu bete izango da: Korrika, Arrasate-Udalatx...

Arduratu egin ginen Korrika ordu batzuk lehenago Arrasatek pasako zela jakin genuenean; batez ere, boluntarioei begira. Arrasateko AEK-koekin hartu-emanetan egon gara, eta egia da Arrasaten egun osoko ekitaldia zapatuan izango dela, nahiz eta Korrika goizaldean pasako den. Seguruenik, asteburu horretan lo gutxixeago egingo dugu [Barre], baina herriarrak bi hitzorduetan egotera gonbidatu gura ditugu".

"GURE LASTERKETAK ETA KORRIKAK BAT EGINGO DUTE; GUK BIETAN HARTUKO DUGU PARTE"

Derbiarekin estreinatuko du Juanan Cruzek UDAko aulkia

FUTBOLA Etxeko entrenatzaile baten aldeko apustua egin dute Sergio Santano gasteiztarra ordezkatzeko

X.U. ARRASATE

"Taldea ez genuen ikusten eman lezakeen guztia ematen zebilenik; triste, joko gabe ikusten genuen", adierazi zion eguaztenean Agurtzane Elkoro UDAko presidentek, zuzendaritzako kideen izenean, GOIENARI. Hala, Sergio Santanok ez du Aretxabaleta domekan zuzenduko, Bergararen kontrako derbian; eta harrobietan lanean zebilen Juanan Cruzen ardura izango da, batetik, taldeari bizipoz apur bat eman eta bolada negatiboa atzean utzi -azken bi hilabeteak ez dira



Juanan Cruz. GOIENA

horren txarrak izan, emaitza aldetik-, eta bestetik, eta garrantzitsuena, kategoriari matematikoki eusteko beharrekokoak dituzten puntuak lehenbailehen batzea.

Bergarak etxeko jokalariekin egin zion aurre Tolosari joan den astean (0-2), jokalaria gazteei aukerak emanaz. Mahoneroek ez dute larritasunik sailkapenean, baina azken bi jardunaldietan galdu egin dute, eta zapore gozoarekin amaitu gura dute liga.

Bost onenen artean egon guran

Mondrak ondo irabazi zion Hernaniri joan den astean (1-3). Hala, liga amaierara arte bosgarren postuagatik borrokatzeko saltsan hainbat talde sartuta daude; tartean dago Mondra, eta baita domekako bisitari Mutriku ere (16:30).

Derbiarekin amaituko dute liga Ford Mugarrik eta Industrialek

ESKUBALOIA Arrasatekoek garaipena behar dute, beste batzuen menpe ez egoteko; Oñatikoak igoera fasean daude jada

X.U. ARRASATE

Ford Mugarri Arrasatek eta Fagor Industrialek derbiarekin agurtuko dute Euskadiko Txapelketa (domeka, 12:15, Iturripe). Zuri-morendako urteko azken partidu garrantzitsua izango da, irabaziz gero matematikoki kategoriari eutsiko diote eta: "Sailkapenean atzetik lau talde gehiago izatea garrantzitsua da, ez dakigu-eta zenbat taldek galduko duten maila. Segurua dena da azken bosgarrenak ez duela mailarik galduko", dio Josu Herterok. Oraingoan, postu horretan

daude zuri-moreak, baina Muskiz bi puntura baino ez dago: "Muskizek liga jokoan duen Urkulizen kontra jokatu behar du. Normalena galtzea izango litzateke, baina... guk gurea egin behar dugu".

Oñatikoek, berriz, urteko partidu garrantzitsuenak dituzte aurretik, kasurik txarrean bosgarren postuan sailkatuko dira eta; izan ere, postu horrek lau finala jokatzeko aukera ematen die. Fase horretarako taldearen bertsio onena erreku-peratzea ezinbestekoa da.

Argazkilaritza garaikidea hurbiltzeko erakusleioa

Ilunpetan Argazki Taldeak bi urtean behin antolatzen duen Argi festibala abiatuko dute gaur, egubakoitza; argazkigintza garaikidea zabaltzeko helburuarekin, askotariko erakusketak, zinekluba, solasaldia, 'Bookjockey' saioa eta argazki tailerra izango dira

Argi festibaleko egitaraua

- **Apirilaren 5etik maiatzaren 5era.** Askotariko erakusketak: *Argizaiola*, Herriko dendetako erakusleioetan; Nagore Legarretaren *Ibaia ez da leku bat*, Foruen plazan; Aitziber Orkolagaren *Plaketak*, Foruen plazan; Xabier Atxaren *Gu*, Berdura plazan; Mendi Urruzunoren *Barrubaso*, Antixena parkean; Oñatiko errefuxiatuen *Beste begirada bat*, Eltzian. Inaugurazio ekitaldia, gaur, 19.00etan;
- **Apirilaren 6tik maiatzaren 5era.** *Ispiluak* erakusketa herri osoan zehar.
- **Apirilaren 12tik maiatzaren 12ra.** Elisa Gallego Picarden eta Antonio Guerraren *Argi Arantzazu* erakusketa, Arantzazuko Gandiaga Topagunean. Inaugurazioa, 19.00etan.
- **Apirilaren 13an.** Dani Garcia Valeroren *V de Bergara bookjockey* saioa, 22:00etan, udaletxeko arkupean.
- **Apirilaren 22tik maiatzaren 5era.** San Telmo Museoko Gabriela Cendoya Funtsa, liburutegian ikusgai.
- **Apirilaren 30ean,** Gabriela Cendoyarekin solasaldia, 19:00etan, liburutegian.
- **Maiatzaren 2an.** Joana Biarnesi buruzko *Una entre tots* dokumentala, 20:00etan, kultura etxean.
- **Maiatzaren 17tik 19ra.** *Akatsaren poetika* tailerra Nagore Legarretarekin, Eltzian.

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Herriko argazki taldeak Udalaren eta Arantzazu Gaur Fundazioaren laguntzarekin antolatu duen laugarren Argi festibalak argazkilaritzaren alde poetikoa eta emozionala erakutsiko du publiko guztientzako proposatutako askotariko ekitaldiekin.

Maiatzaren 19ra bitartean, bada, irudia izango da Oñatin protagonista; horren erakusle dira herriko hainbat txokotan jarriko dituzten erakusketak. Estilo eta egile ezberdinen lanak izango dira; horien artean, Argizaiola lehiaketaren mostra bat, Poloniako Wroclaw hirian sortutako argazkiak eta Larrañako egoitzan bizi diren errefuxiatuen begiek harrapatutakoak.

Argazki-liburuei tokia eginda

Argazkilarien artean estimatuak diren ale bitxiak izango dira liburutegian ikusgai, Gabriela Cendoya donostiarraren eskutik; bildumaz gainera, bildumagilea ere Oñatiraino hurbilduko da. Horrez gainera, Daniel Garcia Valero Bergarako *bookjockey*-ak argazki-liburuetako irudiak dantzan jarriko ditu bere saioan.

Gipuzkoako bertsolari gazteen finalean, hiru debagoiendar

Gaur, egubakoitza, Lasturren jokatu den Eskolartekoaren finalean izango dira Eskoriatzako Oihana eta Haizea Arana ahizpak eta Aitor Tatieggi oñatiarra. Iaz ere hirukote bera heldu zen Lasturko saioa, eta Oihana Aranak jantzi zuen txapela.

Beste aldietan moduan, afa-lostean egingo dute saioa, eta zortzi bertsolarik jardungo dute. Debagoienekoek lehia-kide ezagunak izango dituzte gaurko saioan lagun: Uxue Alkorta, Aner Peritz *Euzkitze*, Imanol Albizu, Igauri Lopetegi eta Maddi Aiestaran.

